

Euskadiko gazteak

2020/2021



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Euskadiko gazteak

2020/2021

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2022

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren
katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

Argitaraldia: 1.a, 2022ko iraila

© **Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa**
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: **Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1-01010 Vitoria-Gasteiz

Egileak: Miren Bilbao Gaztañaga, Oskar Longo Imatz,
Nieves Corcuera Bilbao eta Itziar Urresti Bilbao

Koordinazioa: Gazteen Euskal Behatokia

Maketazioa: Canaldirecto, S.L.

Aurkibidea

Aurkezpena	5
Sarrera	7
Metodologia	8
1. Kapitulua. Okupazioa eta ikasketak	10
1.1. Gazteen okupazio nagusia	10
1.2. Ikasle gazteak egiten ari diren ikasketak	12
1.3. Gazteriaren ikasketa- eta prestakuntza-maila	14
1.4. Euskara-maila	16
1.5. Ingeles-maila	17
1.6. Euskadiko hezkuntza-sistemaren balorazioa	19
1.7. Prestakuntza-esperientzia atzerrian	20
2. Kapitulua. Lan-egoera eta egoera ekonomikoa	22
2.1. Gazteen lan-esperientzia	22
2.2. Gazteen enpleguei buruzko ezaugarriak	24
2.3. Lanarekiko poztasuna	29
2.4. Lanaren bilaketa, eta diskriminazioa lana eskuratzeko orduan	30
2.5. Lanerako aukerak	34
2.6. Baliabide ekonomikoak	39
3. Kapitulua. Familia- eta bizitegi-egoera	43
3.1. Emantzipatutako gazteen egoera	45
3.2. Emantzipatu gabeko gazteak	47
3.3. Gazteek emantzipatzeko dituzten arazoak	53
3.4. Emantzipatzeko adin egokiena	56

4. Kapitulua. Egoeraren balorazioa	57
4.1. Egoera pertsonalaren balorazioa	57
4.2. Arazo pertsonalak	60
4.3. Gazteen egoeraren balorazioa, oro har	63
4.4. Erakundeak gazteriaren alorrean egiten ari diren lanaren balorazioa	65
5. Kapitulua. Politika eta parte-hartze soziala	68
5.1. Politikarekiko jarrera	68
5.2. Partaidetza eta aldaketa soziala	74
6. Kapitulua. Balio eta jarrera sozialak	88
6.1 Feminismoa eta genero-berdintasuna	88
6.2. Ekologismoa eta jasangarritasuna	94
6.3. Erliziozaletasuna	103
6.4. Tolerantzia ideologikoa	107
6.5. Atzerriko inmigrazioarekiko jarrerak	108
6.6. Gauetz bakarrik ibiltzeko beldurra	113
6.7. Indarkeria bikotearen barruan	115
6.8. Sexualitatea	118
6.9. Beste gai sozial batzuei buruzko iritzia	122
7. Kapitulua. Aisialdia eta kultura	126
7.1. Aisialdirako jarduerak	127
7.2. Jarduera artistiko eta kulturalak	146
8. Kapitulua. Sare sozialak eta internet	150
8.1. Sare sozialen eguneroko erabilera	151
8.2. Youtuber, gamer eta influencerren jarraipena	157
8.3. Blog eta Youtubeko kanal propioak	159
8.4. Sare sozialetan gehien erabilitako hizkuntzak	161
8.5. Sare sozialetan jazarpena edo umiliazioak bizitzea	163
Eraitza esanguratsuenak	171
Azken hausnarketak	186
Bibliografia	188
Anexoa. Galdetegiak	191

Aurkezpena

Euskadiko Gazteak 2020/2021 argitalpen berri hau Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gazteen Euskal Behatokiak lau urtean behin egiten dituen ikerketen seigarrena da. Bilduma 2000. urtean jarri zen martxan, aldian-aldian Euskadiko gazteriar buruzko informazioa ematen duen ikerketa soziologikoa eskaintzeko. Aurreko edizioetatik gertatu zen moduan, *Euskadiko Gazteak 2020/2021* ikerketak gazteen egoera eta kezkek hobeto ezagutzeko beharrari erantzuten dio, hala, administrazio publikoek hobeto erantzungo baitiete gazteen beharrei.

Ikerketa honetan gure gazteei galdetu zaie zein diren haien kezka nagusiak; gai garrantzitsuak aztertu dira, hala nola enplegua eta emantzipazioa; politikan eta gizartean nola parte hartzen duten galdetu zaie, baita sare sozialen erabileraz, immigrazioari, genero-indarkeriari edo erlijioaren inguruan duten iritziaz eta gaur egungo gizarteari buruz eta gazteen egoerari buruz duten balorazioaz ere. Halaber, pandemiak aisialdian izan duen eragina eta beste gai asko aztertu dira. Hau da, haien egoera pertsonala nolako den eta bizi diren gizartea nola ikusten duten jakiteko aukera ematen diguten hainbat gai aztertu dira.

Azterketa honetan, Gazteen Euskal Behatokiak diagnostiko bat eskaintzen du, eta espero dugu Euskadiko gazteen errealitatea hobetzeko politikak diseinatzeko tresna gisa erabili ahal izatea, eta, aldi berean, politika horien jarraipena egiteko eta eraginkortasuna neurtzeko ere baliagarria izatea.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu gure galderei eskuzabaltasunez erantzun dieten gazte guztiei, eman diguten laguntzagatik.

Beatriz Artolazabal Albéniz

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailburua

Sarrera

Euskadiko Gazteak 2020/2021 lana Gazteen Euskal Behatokiak izenburu horrekin lau urtean behin egiten duen ikerketa soziologikoaren seigarren edizioa da.

Serieari 2000. urtean eman zitzaion hasiera, eta, beraz, bi hamarkada daramatza biztanleriaren sektore bat, gazteria, aztertzen. Izan ere, ezaugarri bereizgarriak dituzte gazteek, eta, horrenbestez, instituzioen berariazko arreta behar dute. Gazteen Euskal Behatokiaren egitekoetako bat gizarteari gazteen egoerari buruzko diagnostiko eguneratu eta jarraitua ematea da, eta horretarako tresna da *Euskadiko Gazteak* azterketa.

Ikerketaren oinarria Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen lagin adierazgarri bati egindako inkestak dira, non, gazteen kezka nagusiak jasotzeaz gainera, gazteek hainbat gairi buruz dituzten iritziak eta jarrerak biltzen baitira. Gaurkotasun-gaiak dira, besteak beste: prestakuntza, lanbidea, emantzipazioa, berdintasuna, jarrera eta iritzi politikoak, partaidetza soziala, erlijio-sinesmenak eta immigrazioarekiko, abortuarekiko edo eutanasiarekiko jarrera. Baita aisiaren erabilera, kontsumoa eta kultura, sare sozialen erabilera, etab. ere.

Ikerketa honek aurrekoekin alderatuta duen berezitasuna da datuak bi inkestetan bildu direla. Lehenengoa 2020an egin zen, eta bigarrena, 2021ean. Horrez gainera, hurrengo atalean ikusiko dugunez, Covid-19aren pandemiaren ondorioz, aldatu egin behar izan da aurreko urteetako etxeko inkesten metodologia, eta beste inkesta mota bat erabili behar izan da. 2020an, inkestak telefonoz egin ziren, eta 2021ean, berriz, online. Edonola ere, ikerketa honek eskaintzen dituen azterketetatik garrantzitsuenetako bat da gazteen iritzien eta jarrerren bilakaerari buruzkoa. Gainera, kasu guztietan, informazioa hainbat aldagaitan banatuta ematen da, batez ere, sexuaren eta adin-taldearen arabera.

Euskadiko Gazteak 2020/2021 lanak, beraz, Euskadiko gazteen jokabide, balio eta jarrerren argazkia eskaintzen digu; aldi berean, 2020an eta 2021ean izan dituzten beharretara, arazo eta kezka nagusietara hurbiltzen gaitu, eta jokabide eta jarrera horien bilakaeraren ikuspegia eskaintzen digu.

Espero dugu azterketa erabilgarria izatea gazteen esparruan ardura politiko eta teknikoak dituztenentzat, gizarte osoarentzat eta Euskadiko gazteentzat.

Metodologia

Azterketa honetan erabilitako metodologia kuantitatiboa izan da, eta, horretarako, elkarrizketa indibidualak egin zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko guztietako 15 eta 29 urte bitarteko gazteen lagin adierazgarri bati.

Zehazki, bi fasetan egin dira inkestak; lehenengoa 2020an, eta bigarrena, 2021ean. Bakoitzean metodologia bat erabili da, zeina ondoren azaltzen baita.

2020ko inkestetan, elkarrizketa egiteko prozesua erabat baldintzatu zuen Covid-19aren pandemiak. Hasiera batean, gazteak haien etxeetan elkarrizketatu ziren. Horretarako, Eustat Euskal Estatistika Erakundeak teorikoki 15 eta 29 urte bitarteko gazteak bizi ziren etheen zerrenda bat eman zion Gazteen Euskal Behatokiari. Zerrenda horretan, etxebizitza titularrez gainera, ordezeko bat eta erreserbako bat zeuden titular bakoitzeko.

Hala ere, martxoaren 12an, oraindik etxez etxeko 160 inkesta baino ez zeudenean eginda, landa-lana bertan behera utzi zen pandemiaren

ondorioz. Zehazki, etxez etxeko lana otsailaren 24tik (aurretesta lehenago egin bazen ere) martxoaren 12ra bitartean egin zen.

Etxeko konfinamendua kendu ondoren ekin zitzaion berriro landa-lanari, baina telefonoz egitea erabaki zen, inkestatzaileen eta inkestatuen artean harreman esturik izatea saihesteko. Horren ondorioz, aparteko lan bat egin behar izan zen etheen lagineko telefonoak bilatzeko, posta-helbideetatik abiatuta. Etxeetako telefonoak (titularrak eta ordezekoak) ezin izan zirenean aurkitu edo beste egoera batzuk eman zirenean (etxe horietan ez zen bizi gazterik, ezinezkoa izan zen pertsona hori lokalizatzea edo inkestari erantzuteari uko egin zion), barruti eta sekzio bereko etxeetara deitzea erabaki zen, inkestak osatzeko. Telefono bidezko lana maiatzaren 25etik irailaren 3ra bitartean egin zen, eta, hala, bete egin ziren eskatutako inkesta guztiak (1.500), honela banatuta lurraldeka: 399, Araban; 601, Bizkaian, eta 500, Gipuzkoan.

Ikerketa honetan erabilitako galdera-sorta egituratua eta itxia izan da galdera gehienetan.

Beste galdera batzuetan, ordea, parte-hartzaileen erantzun ireki eta espontaneoak eskatu dira. Galdera-sorta horri ere eragin zion pandemiak. Hasiera batean, planteatutako gai guztiak zituen, baina, inkesta etxez etxe egitetik telefonoz egitera aldatu behar izan zenez, murriztu egin behar izan zen galderen kopurua, zaila baitzen inkestatuak telefonoz erantzun egokia emateko jarrera izatea 15 minututik gorako denbora-tartean. Horrez gainera, pandemiak eragindako egoeraren ondorioz, ez zeukan zentzurik zenbait galdera egiteak, aisialdiari edo kulturaren kontsumoari buruzkoak, adibidez. Hori dela eta, aurreko edizioetan kulturari, aisialdiari edo kontsumoari buruz egindako galderak 2021eko ikerketarako utzi ziren.

2021eko udaberrian (zehazki, apirilaren 30etik maiatzaren 10era bitartean), beste inkesta bat egin zen, 2020ko edizioan baztertutako gaiak aztertzeko. Kasu horretan, inkestak online egin ziren, bakoitzak bete beharreko galdetegia erabilita. Inkesta horiek egiteko, gonbidapen bat egin zitzaion Gazteen Euskal Behatokiak 2020an egindako inkesta batean Behatokiaren ikerketa gehiagotan parte hartzeko prest agertu ziren 15 eta 29 urte bitarteko pertsona guztiei. Guztira, 2.495 galdetegi jaso ziren beteta: 420, Araban bizi ziren gazteenak; 1.199, Bizkaiko gazteenak; 781, Gipuzkoako gazteenak, eta 95, gaur egun beste autonomia-erkidego batzuetan edo atzerrian bizi diren Euskadiko gazteenak.

Eranskinean daude fase batean eta bestean erabilitako galdera-sortak. Lehenengoan 2020an telefonoz egindako inkesta-lanean egindako galderak baino ez dira agertzen, baina hasierako zenbakitzea errespetatu da (hasiera batean planteatutako galdera guztiei dagokiena, hain

zuzen), pandemiaren ondorioz egin behar izan ziren aldaketak jasota uzteko.

Elkarrizketak euskaraz edo gaztelaniaz egin ziren, inkestatuak adierazitako nahiaren arabera. Kasu guztietan, erantzunen anonimotasuna eta konfidentziasuna bermatu zitzaion elkarrizketatutako guztiei. Inkestatu beharreko pertsonak 15 urte zituen kasuetan, gainera, aitaren edo amaren ahozko edo idatzizko baimena eskatu zen inkesta egin aurretik.

Inkesta guztiak baliozkotu ostean, emaitzak haztatu, eta milakotara bihurtu ziren, gazteek Euskadiko lurralde historikoetan zuten banaketan eta aztertutako adin-taldeetan zuten banaketa errealean oinarrituta aurkezteko, Eustat Euskal Estatistika Erakundeak argitaratutako biztanleriari buruzko datu ofizialekin bat etorrita.

Egotz daitekeen lagin-errorea, lagina erabat ausazkoa izango zatekeen kasu teorikoan, $\pm 2,5$ da Euskadiko gazte guztien artean, 1.500 inkestako lehen fasean, eta $\pm 2,0$, 2.495 inkestako bigarren fasean. Kasu bietan, konfiantza-maila % 95,5ekoa eta $p=q=0,5$ izan da.

Lagin orokorren barruan, kolektibo jakin bateko banakoak aukeratzeak hasierako lagin-erroreek gora egitea dakar. Horregatik, zenbait datu aztertutako fenomenoaren hurbilketa gisa ulertu behar dira, eta ez magnitude zehatz gisa. Edozelan ere, tauletan kolektibo bereizi bakoitzari egindako inkesta kopurua ageri da.

Gazteen Euskal Behatokiak du ikerketaren diseinuaren, emaitzen azterketaren eta txostenaren idazketa-lanen gaineko erantzukizun osoa. Bestalde, landa-lana *Ingartek* enpresak egin du, Gazteen Euskal Behatokiak berariaz eman dizkion jarraibideak beteta.

01.

Okupazioa eta ikasketak

2020a urte berezia izan da enpleguari dagokionez. Covid-19aren pandemiak eragindako egoeraren ondorioz, enpresak itxi dira, aldi-baterako enplegu-erregulazioko espedienteak zabaldu dira, zailtasun erantsiak sortu dira enplegua bilatzeko, etab.

Egoera ez da hobeia izan ikasketei dagokienez, etxeko konfinamenduaren eta online eskolen

ondorioz, sarritan ezin izan direlako egin ikasketa-praktika edo ikasketa-trukeak, etab.

Kapitulu honetan, okupazio nagusiari, ikasketei, lan-baldintzei, enplegu-bilaketari, baliabide ekonomikoei buruzko gaiak jorratzen dira, eta Euskadiko gazteek lanaren inguruan dituzten itxaropenak eta nahiak aztertzen dira bereziki.

1.1.

Gazteen okupazio nagusia

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen erdia baino gehiago ikasten dago 2020an. % 54,4k ikasi baino ez dute egiten, eta % 14,3k lana eta ikasketak uztartzen dituzte. Horrenbestez, esan dezakegu Euskadiko 30 urtetik beherako hiru gaztetik bi ikasketaren bat egiten ari direla.

Bestalde, % 24,1 lanean ari dira modu eksklusiboan eta ez dute inolako ikasketarik egiten, eta aipatutako % 14,3ak lana eta ikasketak uztartzen

dituzte. Puntu honetan esan behar da inkesta egin zen unean aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batean (ABEEE) edo bajaran zeuden pertsonak langiletzat jo direla.

Edonola ere, aurrerago egingo diren azterketen ondorioetarako, ikasletzat jo ditugu soilik jarduera bakartzat ikasketak dituztela edo jarduera nagusitzat ikasketak dituztela, baina, aldi berean, lanean ari direla esan duten pertsonak (% 63,7),

eta langileztat jo ditugu soilik lanean ari diren pertsonak edo jarduera nagusitzat lana dutenak, baina, aldi berean, ikasten ari direnak (% 29,2).

Bestalde, gazteen % 5,6k esan dute langabezian daudela. Haietatik, % 2,6 langabezia-prestazioa kobratzen ari dira, eta % 3,0k ez dute langabezia-prestazioa kobratzen.

Gainerako % 1,6a beste egoera batean dago; ehuneko horretan sartzen dira, besteak beste etxeko lanetan edo familiakoak zaintzen ari direnak, baina egoera hori gazteen % 0,2k baino ez dute aipatu.

Ez dago ezberdintasun handirik emakume eta gizon gazteen artean okupazio nagusiari dagokionez, baina esan dezakegu emakume gazteek gizon gazteek baino kasu gehiagotan uztartzen dituztela ikasketak eta lana: emakumeen % 17,5ek gauza biak egiten dituzte, eta gizonen % 11,4k.

Adinari dagokionez, ordea, ezberdintasun handiak daude, eta 20 urtetik beherako gehienen

(% 94,5) jarduera bakarra ikasketak dira. 20 eta 24 urte bitartean, erdia baino gehiago dira ere soilik ikasten ari direnak. 25 eta 29 urte bitartean, berriz, erdia baino gehiago (% 55,5) lanean ari dira modu eskusiboan.

Egoera hori aurreko urteetan erregistratutakoarekin alderatzeko, nagusiki ikasten ari diren eta, gainera, lanean ari diren pertsonen ehunekoak eta nagusiki lanean ari diren, eta, aldi berean, ikasten ari direnenak elkartuko ditugu, kategoriak bateratzeko. Halaber, epigrafe berean sartuko ditugu langabezian dauden eta langabezia-prestazioa kobratzen ari direnak eta langabezian egonda prestazioa kobratzen ez dutenak.

Bilakaera aztertuz gero, ikus dezakegu 2020an erregistratu dela soilik ikasten ari diren pertsonen ehunekorik handiena eta lanean ari direnen txikiena. Langabezian dauden gazteen zifrak txikiak dira. Horrek erakusten digu lanik ez duten gazteek prestakuntza jasotzeko erabiltzen dutela beren denbora.

1.1. taula. **Gazteen okupazio nagusia 2020an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Zein da zure zeregin nagusia, orain ERTEn edo bajaran bazaude ere?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19	20-24	25-29
Ikasten duzu soilik	54,4	52,1	56,6	94,5	54,8	11,1
Gehienbat ikasten duzu eta gainera lan egiten duzu	9,3	11,5	7,2	3,7	16,4	8,1
Gehienbat lan egiten duzu eta gainera ikasten duzu	5,1	6,0	4,2	0,3	5,4	9,7
Lan egiten duzu soilik	24,1	23,7	24,5	0,8	17,6	55,5
Langabezian zaude eta langabezia-prestazioa jasotzen duzu	2,6	2,1	3,1	0,3	1,7	5,9
Langabezian zaude baina ez duzu prestazioa jasotzen	3,0	3,0	3,0	0,1	2,7	6,3
Etxeko lanak edo zaintza-lanak egiten dituzu	0,2	0,3	0,0	0,0	0,2	0,3
Beste egoera batean zaude	1,4	1,2	1,6	0,3	1,1	3,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343

1.2. taula. **Gazteen okupazio nagusiaren bilakaera (%)**

Zein da zure zeregin nagusia?						
(%)	2000	2004	2008	2012	2016	2020
Ikasten, soilik	42,7	42,8	38,8	41,0	44,6	54,4
Ikasten eta lan egiten	7,9	9,3	10,3	10,2	14,7	14,4
Lan egiten, soilik	40,9	36,7	41,3	27,5	27,5	24,1
Langabezian	7,2	8,8	7,2	17,8	11,1	5,6
Etxeko lanetan edo zaintza-lanetan	0,7	1,4	1,7	1,3	1,1	0,2
Beste egoera batean	0,6	1,0	0,7	2,2	1,0	1,4
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1.364	1.500	1.500	1.500	1.500	1.500

Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

1.2. Ikasle gazteak egiten ari diren ikasketak

Aurreko epigrafean ikusi dugun moduan, Euskadiko gazteen erdia baino apur bat gehiago ikasten ari da (% 54,4).

Ikasle gehienak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) amaitzen ari dira edo Batxilergoa edo unibertsitate-gradu bat egiten ari dira. Gutxiago dira lanbide-heziketako erdi mailako edo goi-mailako ziklo bat egiten ari diren gazteak. Egiten ari diren ikasketa mota lotuta dago, batez ere, adinarekin eta prestakuntza-faseak betetzeko aukerarekin, hurrengo taulan ikus daitekeenez. Taula horretan, batu egin dira 20 eta 24 urte bitarteko pertsonen datuak eta 25 eta 29 urte bitarteko pertsonenak, azken talde horretan oso gutxi direlako okupazio nagusizat ikasketak dituzten pertsonak.

20 urtetik beherako ikasle gehienak DBH amaitzen edo Batxilergoa egiten ari dira; bostetik bat unibertsitate-gradu bat egiten ari da, eta oso gutxi dira lanbide-heziketako zikloren bat egiten ari direnak. 20 urtetik gorako ikasleen artean, berriz,

gehienak unibertsitate-gradu bat egiten ari dira, eta laurden bat goi-mailako beste ikasketa batzuk amaitzen ari da, bai goi-mailako prestakuntza-zikloak, bai graduondoko ikasketak edo masterrak.

Gazteek amaitutako ikasketen maila eta egiten ari diren ikasketen maila alderatzen baditugu, ikus dezakegu zein diren prestakuntza-ibilbide ohikoenak. Hala, ikusten da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH edo baliokideren bat) amaitu dutenek Batxilergoa egitea erabakitzen dutela, eta askoz gutxiago direla erdi mailako ziklo batera doazenak. Bestalde, Batxilergoa amaitu dutenen artean, hamarretik zortzi unibertsitate-gradu bat egiten ari da, eta hamarretik batek baino ez du aukeratu goi-mailako prestakuntza-ziklo bat. Erdi mailako prestakuntza-ziklo bat amaitu dutenen artean sakabanatuago daude gaur egungo aukerak, baina ohikoena da goi-mailako prestakuntza-ziklo bat egitea edo ikasteari uztea lanean hasteko. Beste alde batetik, goi-mailako titulazioen bat dutenetatik, gehienak ez dira

ari ikasten, baina aipatu behar da goi-mailako prestakuntza-ziklo bat amaitu duten hamarretik bi unibertsitate-gradu bat egiten ari dela, eta

unibertsitate-gradu bat dutenen laurden bat baino apur bat gehiago graduondoko, master edo doktorego bat egiten ari dela.

1.3 taula. **Ikasle gazteak 2020an egiten ari ziren ikasketak, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Zer ari zara ikasten edo zer bukatu berri duzu ikasturte amaiera honetan?					
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-29 urte
DBH edo parekoak	16,9	15,4	18,3	31,5	0,0
Batxilergoa	19,4	20,1	18,7	35,8	0,4
Lanbide Heziketako erdi-mailako zikloa (LH-I)	5,8	5,3	6,3	7,8	3,5
Lanbide Heziketako goi-mailako zikloa (LH-II)	7,4	6,4	8,2	4,9	10,2
Graduko unibertsitate-ikasketak	37,1	39,2	35,1	18,9	58,1
Graduondoa, masterra, doktoretza edo antzekoak	7,6	8,0	7,2	0,0	16,3
Goi-mailako arte-ikasketak	0,7	0,8	0,6	0,3	1,2
Hizkuntzak	0,5	0,6	0,5	0,0	1,1
Oposizioak prestatzen	2,7	2,4	2,9	0,4	5,3
Beste motatako ikasketak edo ikastaroak	1,6	1,2	2,1	0,4	3,0
Ez du erantzun	0,4	0,6	0,2	0,0	0,9
GUZTIRA	100	100	100	100	100
(n)	1.063	529	534	596	467

1.4 taula. **Gazteak egiten ari diren ikasketak, 2020an, amaitutako ikasketen arabera (%)**

Zer ari zara ikasten edo zer bukatu berri duzu ikasturte amaiera honetan?						
(%)	DBH edo parekoak	Batxilergoa	LHko erdi-mailako zikloa	LHko goi-mailako zikloa	Unibertsitateko gradua	Graduondoa, masterra
DBH edo parekoak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Batxilergoa	68,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Lanbide Heziketako erdi-mailako zikloa (LH-I)	18,6	1,2	0,0	2,3	0,0	0,0
Lanbide Heziketako goi-mailako zikloa (LH-II)	0,0	9,6	37,9	0,8	1,6	0,0
Graduko unibertsitate-ikasketak	0,0	81,4	5,5	18,3	0,0	0,0
Graduondoa, masterra, doktoretza edo antzekoak	0,0	0,0	0,0	1,3	28,4	0,0
Goi-mailako arte-ikasketak	0,0	1,4	0,0	1,5	0,0	0,0
Hizkuntzak	0,0	0,1	0,0	0,0	1,6	0,4
Oposizioak prestatzen	0,5	0,6	5,7	3,2	5,2	7,9
Beste motatako ikasketak edo ikastaroak	2,5	0,7	4,6	4,7	3,7	0,7
Ez du erantzun	1,9	0,7	0,0	0,8	0,8	0,0
Ez dago ikasten	8,4	4,3	46,3	67,2	58,8	91,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	309	467	86	126	229	88

1.3.

Gazteriaren ikasketa-eta prestakuntza-maila

Euskadiko gazteen heren batek baino gehiagok (% 37,0) goi-mailako ikasketak ditu, bai graduoko edo graduondoko unibertsitate-ikasketak, bai goi-mailako prestakuntza-zikloak edo goi-mailako arte-ikasketak (askoz gutxiago badira ere).

Horrez gainera, oraindik egiaztatu ahal da gazteek unibertsitateko ikasketak lehenesten dituztela, baita Batxilergoa ere, unibertsitaterako prestatzeko, lanbide-heziketa baino. % 27,1ek Batxilergoa amaitu dute, eta % 18,8k, unibertsitate-gradua, hau da, bien artean ia gazteen erdia hartzen dute (% 45,9), eta % 16,0 baino ez da LHko titulazioa duena, erdi mailako edo goi-mailako ziklo bat. Prestakuntza-zikloen eskaintza oso zabala izan arren, oraindik ere gehiago dira LHko erdi mailako edo goi-mailako titulazioa duten gizon gazteak (% 19,8) titulazio profesionala duten emakume gazteak baino (% 11,9).

Edonola ere, Euskadiko gazteen ikasketa-mailari buruzko azterketa zehatza egiteko, aintzat hartu behar da gazteen adina, ikasle gazteen kasuan egin dugun bezala.

1.5. taulan ikus daitekeenez, adinak gora egin ahala gora egiten du ere goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen ehunekoak. 25 eta 29 urte bitarteko ikasketa-mailan zentratzen bagara (kontuan hartuta adin horretan posible dela aukeratutako ikasketa-maila amaituta izatea), ikusten dugu % 79,8k goi-mailako ikasketak dituztela. 2016an ehuneko hori % 53 izan zen, eta lau urte lehenago, 2012an, % 52.

Bestalde, Euskadiko 25 eta 29 urte bitarteko gazteen 2020ko ikasketa mota 2004an erregistratutakoarekin alderatuz gero, ikus dezakegu nabarmen gora egin duela unibertsitateko ikasketak (graduokoak edo graduondokoak) dituzten gazteen ehunekoak, % 42,2tik % 58,1era pasatu baita. Erdi mailako edo goi-mailako lanbide-heziketa dutenen kasuan, berriz, antzekoa da ehunekoa: 2004an, % 27,2, eta 2020an, % 27,5. Hala ere, derrigorrezko ikasketak edo Batxilergoa baino ez dituztenen ehunekoak behera egin du, 2004ko % 30,6tik 2020ko % 13,3ra. Hau da, Euskadiko gazteek prestakuntza-gaitasun gehiago eskuratzearen alde egin dute, neurri handi batean kualifikazio espezializaturik ez duten pertsonentzat lanerako aukera gutxiago egoteak eraginda. 2004an, oparoaldi ekonomikoko garai bat bizi izan genuen, eta lan ugari izan zen eraikuntzan. 2020an, aldiz, pandemiak eragindako krisia izan dugu, 2009tik zetorren krisi ekonomikoa erabat gainditu gabe zegoenean. Krisi horrek enplegu ugari suntsitzea eragin zuen, bereziki kualifikazio gutxikoa, eta bai gazteek bai gizarteak orokorrean garrantzi handiagoa ematen diote orain goi-mailako prestakuntzari.

Horrez gainera, datu horiek Euskadiko adin gehiagoko biztanle-taldean datuekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu 25 eta 29 urte bitarteko taldea dela Euskadin unibertsitateko ikasketen ehunekorik handiena duena, eta, aldi berean, kualifikazio berezirik gabeko ikasketen ehunekorik txikiena duena.

1.5 taula. **Euskadiko gazteek amaitutako ikasketen maila, 2020an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Zein ikasketa-maila duzu? (Bukatuta dituzun maila altuenetako ikasketak adierazi)						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19	20-24	25-29
Lehen hezkuntza	11,6	10,3	12,7	31,7	0,0	1,6
DBH edo parekoak	18,1	17,8	18,3	43,3	5,5	4,1
Batxilergoa	27,1	29,1	25,3	22,3	51,7	7,6
Lanbide Heziketako erdi-mailako zikloa (LH-I)	6,0	4,3	7,7	2,7	8,6	6,9
Lanbide Heziketako goi-mailako zikloa (LH-II)	10,0	7,7	12,2	0,0	10,0	20,6
Graduko unibertsitate-ikasketak	18,8	22,5	15,3	0,0	20,8	36,7
Graduondoa, masterra, doktoretza edo antzekoak	7,9	7,5	8,0	0,0	2,6	21,4
Goi-mailako arte-ikasketak	0,4	0,7	0,1	0,0	0,4	0,8
Ez du erantzun	0,2	0,1	0,3	0,0	0,4	0,2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343

1.6 taula. **Euskadiko biztanleek amaitutako ikasketa mota, 2020an, adinaren arabera (%)**

Zein ikasketa-maila duzu? (Bukatuta dituzun maila altuenetako ikasketak adierazi)						
(%)	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	30-45 urte	46-64 urte	65 urte eta gehiago
Derrigorrezko hezkuntza edo batxilergoa	97,3	57,2	13,3	21	33	54
Lanbide Heziketako erdi-mailako graduak edo graduondoak	2,7	18,6	27,5	31	29	20
Unibertsitate-ikasketak, graduak edo graduondoak	0	23,4	58,1	47	38	25
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	610	547	343	800	1.132	968

30 urte eta gehiagoko biztanleriaren datu-iturria:

Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2021 (73. Euskal Soziometroaren datu-basea)

1.4. Euskara-maila

Gazteen erdiak (% 51,3) adierazi du ondo hitz egiten dutela euskaraz. % 29,0k diote nahiko ondo hitz egiten dutela. Hau da, Euskadiko hamar gaztetik zortzi gai dira euskaraz ondo hitz egin eta komunikatzeko.

Batera hartzen baditugu nahiko ondo edo oso ondo hitz egiten dutela dioten ehunekoak (izan ere, batzuetan, zaila da bata eta bestea bereiztea eta elkarrizketatuaren ikuspegi objektiboaren eraginpean egon ohi da, nolabait), ez dago ezberdintasun handirik emakume eta gizon gazteen artean (% 80,6 eta % 80,0, hurrenez hurren), ezta 15-19 urteko eta 20-24 urteko pertsonen artean ere (% 85,6 eta

% 82,2). 25-29 urtekoen artean, berriz, euskararen ezagutza-maila apur bat baxuagoa da (% 72,2).


Ezberdintasun gehien dakartzan aldagaia gazteak bizi diren lurralde historikoa da. Gipuzkoako gazteen % 86,5ek diote ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutela euskaraz; Bizkaian, % 77,4 da, eta Araban, % 75,8.

Gazteen euskararen ezagutza-mailak gora egiten jarraitu du aurreko urteekin alderatuta, eta euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutela dioten ehunekoa saileko altuena da, bai Euskadin orokorrean, bai lurralde historiko bakoitzean.

1.7 taula. **Euskadiko gazteen euskarazko adierazpen-maila, 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%)**

Zure euskara-mailari dagokionez...?									
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso ondo hitz egiten duzu	51,3	54,0	48,7	47,0	57,1	49,7	41,3	45,3	64,4
Nahiko ondo hitz egiten duzu	29,0	26,6	31,3	38,6	25,1	22,5	34,5	32,1	22,1
Zerbait esan dezakezu, pixka bat hitz egin ahal duzu	12,6	12,5	12,7	11,7	12,2	14,1	16,1	15,3	7,2
Hitz batzuk baino ez dakizkizu	5,0	4,7	5,3	1,7	2,9	10,8	5,4	5,8	3,9
Ez dakizu ezer esaten	2,1	2,3	1,9	1,0	2,7	2,9	2,7	1,6	2,5
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343	399	601	500

1.1. grafikoa. **Euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten duten Euskadiko gazteen ehunekoaren bilakaera, lurralde historikoaren arabera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

1.5. Ingeles-maila

Bost gaztetik batek (% 21,6) dio ondo hitz egiten duela ingelesez. Nahiko ondo mintzatzen direla diotenak (% 41,4) gehitzen baditugu, ikusten dugu Euskadiko hiru gaztetik ia bi gai direla ahoz ondo adierazteko ingelesez.

Taldeen artean euskararen ezagutza-mailan ikusitako ezberdintasunak ingeles-mailari dagokionez ere ematen dira: ez dago ezberdintasun handirik emakume eta gizon gazteen artean, eta, ingelesez ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutela dioten ehunekoak batzen baditugu,


15 eta 24 urte bitarteko pertsonen 25 eta 29 urte bitartekoekin baino ingeles-maila altuagoa dute, eta ingeles-maila altuagoa da Gipuzkoan Araban edo Bizkaian baino.

Ingelesaren ezagutza-mailak ere nabarmen gora egin du aurreko urteekin alderatuta: 2012an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 29,9k esan zuten gai zirela ingelesez ondo edo nahiko ondo hitz egiteko; 2016an, ehuneko hori % 41,5era iritsi zen, eta 2020an gehiengoa dira ingelesez ondo mintzatzen direla diotenak: % 63,0.

1.8 taula. **Euskadiko gazteen ingelesezko adierazpen-maila, 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%)**

Zure ingeleza-mailari dagokionez, zer esango zenuke?									
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso ondo hitz egiten duzu	21,6	21,6	21,6	17,5	24,0	23,3	20,1	22,1	21,6
Oso ondo hitz egiten duzu	41,4	42,2	40,6	46,3	42,4	35,1	40,6	38,3	46,1
Zerbait esan dezakezu, pixka bat hitz egin ahal duzu	30,3	29,9	30,6	29,6	27,9	33,3	31,3	32,2	26,8
Hitz batzuk baino ez dakizkizu	5,7	5,8	5,6	5,8	5,1	6,3	7,6	6,3	4,1
Ez dakizu ezer esaten	1,0	0,5	1,4	0,8	0,4	2,0	0,4	0,9	1,4
Ez duzu erantzun nahi	0,1	0,0	0,1	0,0	0,2	0,0	0,0	0,1	0,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343	399	601	500

1.2 grafikoa. **Ingelesez ondo edo nahiko ondo hitz egiten duten Euskadiko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

1.6.

Euskadiko hezkuntza-sistemaren balorazioa

Euskadiko gazteen erdiak (% 52,6) uste du Euskadiko hezkuntza-sistema oso ona edo nahiko ona dela. % 28,9k ez dute ez iritzi onik eta ez txarrik, eta % 15,2k uste dute nahiko txarra edo oso txarra dela. Eta % 3,2k ez dakite edo ez dute erantzun.

Adinak gora egin ahala gora egiten du ere Euskadiko hezkuntza-sistemari buruzko balorazio positiboen ehunekoak, eta behera egiten du sistema ez dela ona ezta txarra ere dioten ehunekoak. Bestalde, ez dago ia alderik gure hezkuntza-sistemari buruzko balorazio negatiboa egiten dutenen zifretan.

Sexuaren arabera azterketak ez du islatzen alde garrantzitsurik emakume eta gizon gazteen


artean, baina badaude aldeak bizileku duen lurraldearen arabera: Gipuzkoako gazteek gainerakoek baino balorazio hobea dute Euskadiko hezkuntza-sistemari buruz (Gipuzkoako gazteen % 63,7k balorazio oso ona edo nahiko ona egiten dute; batezbestekoa % 52,6 da).

Euskadiko hezkuntza-sistemari buruzko balorazio positiboak behera egin du aurreko urteekin alderatuta. Covid-19aren pandemiak eragindako egoera, aurrez aurreko eskolak eten, eta online eskolekin ordeztu izana, praktikak eta ikasketa-trukeak egiteko ezintasuna, etab. izan daitezke beharakada horren arrazoiak.

1.9 taula. **Euskadiko gazteek Euskadiko hezkuntza-sistemaz duten iritzi orokorra, 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%)**

Oro har, zelako iritzia duzu Euskadiko hezkuntza sistemari buruz?									
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso ona	9,7	10,1	9,4	5,6	10,8	13,1	5,0	9,5	12,4
Nahiko ona	42,9	43,3	42,6	40,2	42,8	45,7	39,6	38,2	51,3
Ez ona ezta txarra ere	28,9	29,6	28,2	35,6	27,7	22,9	36,9	31,9	20,9
Nahiko txarra	12,7	11,4	14,0	11,9	12,6	13,7	10,4	14,8	10,6
Oso txarra	2,5	2,1	3,0	3,3	3,5	1,0	4,1	2,6	1,7
Ez dakizu edo ez duzu erantzun nahi	3,2	3,6	2,9	3,5	2,6	3,7	4,1	3,0	3,1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343	399	601	500

1.3 grafikoa. Euskadiko gazteek Euskadiko hezkuntza-sistemaz duten iritziaren bilakaera (%)



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

1.7.

Prestakuntza-esperientzia atzerrian

Gazteen erdiak baino apur bat gutxiagok (% 44,8) dio noizbait joan dela atzerrira ikastera edo hizkuntza bat hobetzera.

Ez dago alde handirik sexuaren edo bizileku duten lurralde historikoaren arabera. Adinak, berriz, ezberdintasunak markatzen ditu: 20 eta 29 urte bitartekoek multzoan gehiago dira halako esperientzia bat izan dutenak 20 urtetik beherakoek multzoan baino.

Beste alde batetik, gazteen % 35,5ek diote noizbait joan direla atzerrira eskola- edo unibertsitate-trukeetan ikasteko edo parte hartzeko.


Kasu horretan, apur bat gehiago dira emakume gazteak gizon gazteak baino (% 38,6 eta % 32,6, hurrenez hurren). Berriz ere 20 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean gehiago dira halako esperientzia bat izan dutenak 20 urtetik beherako pertsonen artean baino. Eta, lurralde historikoaren arabera, atzerrira ikastera edo ikasketa-trukeetan parte hartzeri joan direnen ehunekoa apur bat handiagoa da Gipuzkoako eta Arabako gazteen artean, Bizkaiko gazteena baino.

Atzerrira ikastera edo ikasketa-trukeetan parte hartzeri inoiz joan diren gazteen ehunekoak gora egin du 2016tik aurrera, 1.4. grafikoa ikus daitekeen bezala.

1.10 taula. **Euskadiko gazteek ikasketen arloan atzerrian izandako esperientzia, 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%)**

Zu joan al zara inoiz atzerrira ondoko gauzak egitera?									
(galdera bakoitzari dagokion baiezkotza erantzunen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Hizkuntza bat ikasi edo hobetzera	44,8	45,1	44,5	38,3	49,6	47,1	43,9	45,4	44,2
Ikasteko edota eskolako edo unibertsitateko ikasle-trukeetan parte hartzera	35,5	38,6	32,6	31,3	38,5	36,9	37,2	32,6	39,1
(n)	1.500	748	752	610	547	343	399	601	500

1.4 grafikoa. **Ikasketak direla-eta, noizbait atzerrira joan diren Euskadiko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

02.

Lan-egoera eta egoera ekonomikoa

2020an, gazteen lan-egoera apur bat berezia izan da, Covid-19aren pandemiak ABEEE ugari izatea, enplegua galtzea, gehienetan gazteek bete ohi dituzten udako aldi baterako lanik (udalekuekin, kirol-jarduerekin edo ostalaritzarekin lotutakoak, adibidez) ez eskaintzea ekarri baitu,

baita, telelanaren hedapenaren ondorioz, lan-baldintzak aldatzea ere.

Kapitulu honetan, gazteen 2020ko lan-egoera eta egoera ekonomikoa aztertzeaz gainera, aurreko urteetako egoerarekin alderatuko dugu.

2.1.

Gazteen lan-esperientzia

Kapitulu honen 1. atalean adierazi dugun moduan, 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik hiruk (% 29,2) lana dute okupazio nagusi. Pertsona horietatik % 24,1ek lana dute okupazio bakarra, eta ez da ari ikasten. % 5,1, berriz, nagusiki lanean ari dira, baina, aldi berean, zerbait ikasten ari dira. Bestalde, % 9,3k diote ikasle direla, baina lanen bat dutela.

Edozein lan mota egiten duen % 38,5 horri 2020an ikasle, langabetu edo bestelako egoeran egonda, inoiz lanen bat egin duela esan duen % 22,7

gehitzen badiogu, Euskadiko gazteen % 61,0ek lan-esperientziaren bat dute.

Esperientzia horietako batzuk atzerrian izan dira. Gazteen % 9,7k adierazi dute noizbait lan egin dutela beste herrialderen batean. % 11,4k esan dute atzerrian izan direla ikasketa-praktikak egiteko edo ikerketaren bat egiteko, ikerkuntzarako beka baten bidez.

Atzerrian lanaren, praktiken edo ikerketen arloko esperientziaren bat izan dutenen ehunekoak gora

egiten du gazteek adinean gora egin ahala, baina ez dago alde nabarmenik sexuaren edo bizileku duten lurralde historikoaren arabera.

Lagin honetan halako ezaugarriak dituzten pertsona gutxi daudenez, datuek ez dute fidagarritasun estatistikorik, baina, hala ere, esan dezakegu lanaren, praktiken edo ikerketaren arloan atzerrian esperientziaren bat izan duten pertsonen ehunekoak handiagoa dela graduondoko, masterreko edo doktoregoko


ikasketak dituztenen artean, baita arte-ikasketak dituztenen artean ere.

Datuen bilakaerari dagokionez, 2016tik 2020ra, gora egin du atzerrian halako esperientzia izan duten gazteen ehunekoak. Inoiz kanpoan lan egin dutenen ehunekoa % 7,5etik % 9,7ra pasatu da, baina hazkunderik handiena atzerrian ikasketa-praktikak edo ikerketak egin dituztenen ehunekoak izan du, 2016ko % 5,9tik 2020ko % 11,4ra pasatu baita.

2.1 taula. **Euskadiko gazteek lanaren, praktiken edota ikerketaren arloan atzerrian izandako esperientzia, 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%)**

Zu joan al zara inoiz atzerrira ondoko gauzak egitera?									
(galdera bakoitzari dagokion baiezkotza erantzunen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Lan egitera	9,7	9,7	9,7	1,3	9,2	18,8	9,0	9,7	10,1
Ikasketa-praktikak egitera edota ikerketa beka bati esker ikertzera	11,4	10,7	12,1	5,8	10,6	18,5	12,6	10,4	12,6
(n)	1.500	748	752	610	547	343	399	601	500

2.1 grafikoa. **Lana dela-eta, inoiz atzerrira joan diren Euskadiko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

2.2. Gazteen enpleguei buruzko ezaugarriak

Jarraian, 2020an gazteek izan dituzten enpleguei buruzko ezaugarri batzuk aztertuko dira. Horretarako, oinarritzat hartuko dira beren okupazio nagusia lana baino ez dela edo nagusiki lana dela adierazi duten 16 eta 29¹ urte bitarteko pertsonen (gazte guztien % 29,2) enpleguak, inkesta egin denean ABEEEn (aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak) zeuden ala ez aintzat hartu gabe.


Laginean jasotako langileen kopurua (349) kontuan hartuta, ez da komeni desagregaziorik egitea; beraz, datu orokorrak eta haien bilakaera (aurreko urteetako daturik izanez gero) emango dira.

2.2.1. Norbere konturako edo besteren konturako lana

Gazte gehienek (% 90,9) besteren kontura egiten dute lan; % 7,4 baino ez dira ari bere kontura lanera. Edonola ere, norberaren kontura lanean ari diren gazteen ehunekoa aurreko urteetako batezbestekoan mantendu da.

Beste % 1,2 kooperatibistak dira. Eta gainerako % 0,5ak ez dute erantzun.

2.2 grafikoa. Norberaren kontura lanean ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea eta Emantzipazioa seriea

¹ Lan egiteko legezko adina 16 urtetik gorakoa bada ere, laginean ez da jaso lanean ari den 18 urtetik beherako inor okupazio bakar edo nagusi gisa.

2.2.2.


Kontratu mota

Lanean ari diren gazteen % 48,5ek aldi baterako kontratua dute. Haietatik, % 8,0k praktiketako kontratua dute, edo bekadunak dira. % 41,2k kontratu mugagabea dute (multzo honetan sartzen dira aldizkako kontratu finkoa dutenak eta kooperatibistak).

Gazteen beste % 2,5ek diote besteren kontura ari direla lanean, baina kontraturik gabe. Eta, lehen esan dugun bezala, % 7,4k bere kontura egiten dute lan. Gainerako % 0,5ak ez dute erantzun.

Datuen bilakaerak erakusten du 2020an inoiz baino handiagoa izan dela aldi baterako kontratua izan duten gazteen ehunekoa.

2.3 grafikoa. **Lana izan duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen kontratu motaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea eta Emantzipazioa seriea

2.2.3.


Asteko lanorduak

Lana duten hiru gaztetik bik (% 65,3) 35 orduko edo gehiagoko lan-astea dute, hau da, lanaldi osoan ari dira lanean. Pertsona horietatik % 16k astean 40 ordu baino gehiago betetzen dituzte normalean. Beste muturrean dago astean 20 orduz lan egiten duten gazteen multzoa, % 14,0, nahiz eta haien okupazio nagusia lana izan, hau da, ez gara ari ikasketen lan osagarri bat duten ikasleez.

% 19,3k astean 21 eta 34 ordu artean betetzen ditu.

Astean 35 orduz baino gutxiago lan egiten duten emakume gazteen ehunekoa (% 38,1) 35 orduko lan-astea duten gizon gazteen ehunekoa (% 28,6) baino hamar puntu handiagoa da.

2.4 grafikoa. **2020an lana izan duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketa astean bete dituzten orduen arabera (%)**



2.2.4.

Ikasketekin lotutako lana


«Ikasketekin lotutako lana» terminoarekin esan nahi da lanak loturaren bat duela egindako ikasketekin. Enplegua duten gazteen ia erdiak (% 47,6) dio bere lanak lotura estua duela egin dituen ikasketekin edo prestakuntzarekin. % 20,1ek diote nahiko lotuta daudela beren ikasketekin; hortaz, baieztatu ahal dugu, oro har, lan egiten duten hiru gaztetik bik (% 67,7) ikasketekin lotutako lana dutela.

Bestalde, gazteen ia herenak (% 31,3) jaso duen prestakuntzarekin lotura gutxi duen edo inolako loturarik ez duen lana du (% 10,7k, pixka bat lotuta, eta % 20,6k, batere ez).

Lan egiten duten eta haien prestakuntzarekin edo ikasketekin oso lotuta edo nahiko lotuta dagoen lana duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoak gora egin du aurreko urteekin alderatuta, eta 2020an izan du baliorik altuena.

Hazkunde horren azalpen bat izan daiteke gazteek enplegu asko galdu dituztela ostalaritzaren sektorean 2020an, pandemiak kalte handia eragin baitio sektore horri, eta, kasu gehienetan, arlo horretan egindako lanak lotura gutxi izaten du egindako ikasketekin.

2.5 grafikoa. **Lanean ari direnen artean, ikasketekin lotutako lana duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea eta Emantzipazioa seriea.


2.2.5.

Ondo ordaindutako lana

Lana duten gazteen %60k baino gehiagok uste dute bere lana ondo ordainduta dagoela; % 14,5ek uste dute oso ondo ordainduta dagoela, eta % 48,9k uste dute nahiko ondo ordainduta dagoela. Hala ere, lanean ari diren hiru gaztetik batek (% 34,0) uste du bere lana ez dagoela ondo ordainduta. Lanean ari diren eta beren lana ondo ordainduta dagoela uste duten gazteen ehunekoak 2017an erregistratutakoaren antzekoa da, eta aurreko urteetako baino handiagoa.

Edonola ere, zehaztu behar da ondo edo txarto ordainduta egoteari buruzko iritzia sarritan lotuta dagoela inguruko beste pertsona batzuek kobratzen dutenarekin egiten den konparazioarekin, eta gogoratu behar da, krisi ekonomikoaren ondorioz, soldata-murrizketa ugari, soldata-izozteak... izan direla eta inguruabar horrek eragin ahal izan duela 2020an «ondo ordaindutakotzat» jotakoa ez izatea gauza bera sailaren hasieran.

2.6 grafikoa. **Lanean ari diren eta beren lana ondo ordainduta dagoela uste duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea eta Emantzipazioa seriea


2.3. Lanarekiko poztasuna

Lana duten gazte gehienak (% 87,8) pozik daude beren lanarekin; % 49,2k diote duten lana asko gustatzen zaiela, eta % 38,6k, nahiko gustatzen zaiela.

Bestalde, % 11,7k diote ez dutela oso gustuko edo ez dutela batere gustuko.

Ikasketekin lotutako lana izatearen eta lanean pozik egotearen artean dagoen harremana aztertzen badugu, lotura nabarmena da. Izan ere, lanean ari diren gazteen % 64,6k adierazi dute ikasketekin lotura oso handia edo nahiko handia duen lana dutela eta lanean oso pozik edo nahiko pozik daudela.

2.7 grafikoa. 2020an lana izan duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketa beren lana zenbat gustatzen zaien kontuan hartuta (%)



2.2 taula. 2020an lanean ari ziren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketa, lanak ikasketekin duen lotura eta lanarekin duten poztasuna kontuan hartuta (%)

(Taula osoaren gaineko %)		Zein neurritaraino esango zenuke lan hori zuk egindako ikasketekin edo formazioarekin lotuta dagoela?			
		Oso + Nahikoa	Pixka bat + Batere ez	Ed/Ee	Guztira
Oro har, gustuko duzu lan hau?	Oso + Nahikoa	64,6	22,5	0,7	87,8
	Pixka bat + Batere ez	3,1	8,6	0,0	11,7
	Ed/Ee	0,0	0,2	0,3	0,5
	Guztira	67,7	31,3	1,0	100,0

2.4.

**Lanaren bilaketa, eta diskriminazioa
lana eskuratzeko orduan**

Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik hiru lanaren bila ari ziren 2020an, kontuan hartu gabe jada enplegurik zuten ala ez (zehazki, gazteen % 33,5 zegoen egoera horretan).

Adinak gora egin ahala gora egiten du ere lanaren bila ari diren gazteen ehunekoak, baina datu hori lotuta dago adin-talde bakoitzak duen okupazio nagusiarekin batez ere. Hala, 20 urtetik beherako taldean, gazte gehienak ikasleak dira eta lanaren bila ari direnen ehunekoa txikiagoa da 20 eta 24 urte bitarteko taldean baino, eta are txikiagoa 25 eta 29 urte bitarteko taldearekin alderatuta. Izan ere, 20 eta 24 urte bitarteko taldean, oraindik asko dira ikasten ari direnak, baina 25 eta 29 urte bitarteko taldean, aldiz, gutxiengoak dira ikasten ari diren gazteak.

Gainera, langabezian dauden gehienak lanaren bila ari dira, eta, lanean daudenen artean, hirutik bat ari da lan bila.

Lan bila ari diren gazteen ehunekoak gora egin du 2017ko datuekin alderatuta, eta hurbilago dago 2013an edo 2015ean erregistratutako datuetatik.

Elkarriketa egin zen unean lan bila zeuden ala ez kontuan hartu gabe, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiak adierazi zuen inoiz lan-elkarriketaren bat egin dutela edo hautapen-prozesuren batean parte hartu duela (zehazki, % 52,2k esan zuten hori).

Adinean gora egin ahala gero eta gehiago dira lan-elkarriketaren bat egin dutela edo lan baterako hautapen-prozesuren batean parte

hartu dutela dioten gazteak: 16 eta 19 urte bitartekoen artean, % 8,6; 20-24 urtekoen, % 56,8, eta 25-29 urtekoen, % 84,6.

Sexuari dagokionez, ordea, ez dago alderik: gizon gazteen % 52,5k eta emakume gazteen % 51,9k lana lortzeko hautapen-prozesuren batean parte hartu dute.

Hautapen-prozesu horietan parte hartu duten pertsonen artean, bostetik batek (% 18,2) adierazi du diskriminatua sentitu zela edo uste du ez zutela kontratatu gaztea izateagatik.


% 7,9 diskriminatuta sentitu ziren, edo uste dute ez zituztela aukeratu beren itxura fisikoagatik.

Eta % 5,7k sentitu zuten ez zituztela modu egokian tratatu sexua dela-eta. Azken alderdi horri dagokionez, hautapen-prozesuetan parte hartu dutenen artean, gehiago dira emakume izateagatik diskriminatuak sentitu diren edo emakume izateagatik kontratatu ez dituztela uste duten emakume gazteak (% 8,3) gizon izateagatik ez zituztela kontratatu uste duten gizon gazteak baino (% 3,3).


Guztira, gazteen lanpostu baterako hautapen-prozesu batean parte hartu duten gazteen % 24,5ek esan dute diskriminatua sentitu direla gorago azaldutako arrazoietakoren bat dela medio (sexua, adina eta/edo itxura fisikoa).

Hautapen-prozesuetan diskriminazioaren bat sentitu duten gazteen ehunekoa handiagoa da 25 eta 29 urte bitartekoen taldean eta emakumeen artean.

2.8 grafikoa. **Lan bila ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteak, 2020an, adinaren eta okupazio nagusiaren arabera (%)**



2.9 grafikoa. **Lan bila ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera (%)**



Iturria: Emantzipazioa seriea eta Euskadiko Gazteak 2020/2021


2.3 taula. **2020an hautapen-prozesuren batean parte hartu eta edozein arrazoi dela medio diskriminatuak sentitu diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, sexuaren eta adinaren arabera (%)**

Lan-elkarrizketaren batean edo hautaketa prozesu batean baztertuta sentitu zara edo uste duzu ez zintuztela hartu... *						
(galdera bakoitzari dagokion baiezkotza erantzunen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte**	20-24 urte	25-29 urte
Gaztea izateagatik	18,2	19,2	17,2	x	17,4	19,0
Zure itxura fisikoagatik	7,9	8,5	7,3	x	6,9	8,9
Gizonezkoa/emakumezkoa izateagatik	5,7	8,3	3,3	x	2,5	8,4
(n)	656	339	317	49	309	298

* Bakarrik lan-elkarrizketa bat edo lanerako hautaketa prozesu batean parte hartu dutenei egindako galdera (gazte guztien % 52,2).

** 15 eta 19 urte bitartekoei dagozkien datuak ez dira estatistikoki esanguratsuak, adin-talde horretan oso gazte gutxi hartu baitute parte hautaketa prozesuetan.

2.10 grafikoa. **2020an hautapen-prozesuren batean parte hartu eta arrazoi horietako edozein dela medio diskriminatuak sentitu diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, sexuaren eta adinaren arabera (%)**



Beste alde batetik, gai horretan gehiago sakontzeko, 15 eta 29 urte bitarteko gazte guztiei galdetu zaie ea uste duten sexua dela-eta diskriminaziorik dagoen lana lortzeko. Horretarako, hipotesi hau planteatu da: hautapen-prozesu batean parte hartzea haien ikasketekin eta prestakuntzarekin lotutako lanpostu baterako,


prestakuntza eta esperientzia bera duen adin bereko beste sexuko pertsona batekin.

Hiru emakumetik batek (% 33,6) uste du bere lehiakide maskulinoak aukera gehiago izango dituela kontratatua izateko gizona delako. Gizonen artean, zifrak txikiagoak dira,


baina, hala ere, lanpostua lortzeko aukera gehiago dituztela uste dutenen ehunekoa (% 13,8) emakumeak emakume izateagatik aukera gehiago izango dituela uste dutenen ehunekoaren (% 6,7) bikoitza da.

Prestakuntza eta esperientzia berberak izanda, lanpostu bat lortzeko, gizonak emakumeak baino aukera gehiago dituztela uste duten emakumeen ehunekoak gora egin du azken urteetan, eta 2020an balio maximoa lortu da seriearen barruan.

2.11 grafikoa. **2020an, emakume edo gizon izateak lana lortzeko duen eraginaren inguruan 15 eta 29 urte bitarteko gazteek dituzten iritzien arteko ezberdintasunak, sexuaren arabera (%)**



2.12 grafikoa. **Prestakuntza eta esperientzia berberak izanda, lanpostu bat lortzeko, gizonak emakumeak baino aukera gehiago dituztela uste duten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen ehunekoaren bilakaera (%)**



2.5. Lanerako aukerak

Lanarekin lotuta, etorkizuneko hiru aukera planteatu zaizkie gazteei: enplegu propioa sortzea, oposizioak egitea eta emigratzea. Jarraian ikusiko dugu zenbatek planteatu dituzten aukera horiek eta zer lehentasun dituzten.

2.5.1. Autoenplegua

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 3,3k pentsatu dute autoenpleguan aritzea, eta, gainera, gauzatu egin dute: % 2,4 norberaren kontura ari ziren lanean inkesta egin zen unean, eta % 0,9k esan zuten lehenago bere kontura egin dutela lan, baina jada ez.

Beste alde batetik, gazteen % 22,9 serio aztertzen ari ziren beren enplegua sortzea, eta % 9,8k

baztertu egin zuten aukera hori, aztertu ondoren. Hala ere, gazte gehienek (% 63,1) inoiz ez dute pentsatu beren lanpostua sortzea, autonomo edo enpresaburu izatea.

Ez dago alde handirik gai honetan sexua dela-eta, baina adinak, ordea, ezberdintasun handiak markatzen ditu. Izan ere, adinean gora egin ahala gero eta gazte gehiagok pentsatu dute beren kontura lan egitea (nahiz eta gero baztertu), eta gero eta gehiagok gauzatu dute ere.

2011tik 2020ra bitartean iritzi horrek izan duen bilakaera aztertuz gero, ikusten da azken urte horretan gazte gehiago ari direla autoenpleguaren aukera aztertzen, eta gutxiago direla aukera hori baztertu dutenak, aztertu ondoren.

2.4 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek autoenpleguari buruz duten iritzia, sexuaren arabera. 2020 (%)**

Inoiz pentsatu al duzu zure lanpostua sortzea, negozio bat irekitzea, zeure kontura lan egitea, autonomia edo enpresaria izatea?				
(%)	Guztira	Adin-taldeak		
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Ez duzu inoiz pentsatu	63,1	72,7	60,6	55,5
Serio pentsatzen ari zara	22,9	19,1	28,3	21,7
Pentsatu duzu, baina ez egitea erabaki duzu	9,8	6,0	8,8	14,8
Autonomia edo enpresaria zara jada	2,4	0,5	0,9	5,9
Autonomia edo enpresaria zinen, baina orain jada ez	0,9	0,3	0,4	2,0
Beste egoera batean zaude edo ez duzu erantzun nahi	0,9	1,5	0,9	0,2
GUZTIRA	100	100	100	100
(n)	1.500	610	547	343

Edonola ere, gehiago dira besteren kontura lan egin nahi duten gazteak (% 47,8) bere kontura lan egin nahi dutenak baino (% 40,8). Besteren kontura lan egitea nahiago dutenen ehunekoa handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino, eta handiagoa da ere adinean gora egin

ahala. Beste alde batetik, adinak gora egin ahala behera egiten du gai honen inguruan iritzia ematen ez duten gazteen kopuruak.

Azken datu horiek 2017an jasotakoekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu jarrera ez dela ia aldatu.

2.5 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek autoenpleguari buruz duten jarreraren bilakaera (%)**


Inoiz pentsatu al duzu zure lanpostua sortzea, negozio bat irekitzea, zeure kontura lan egitea, autonomia edo enpresaria izatea?					
(%)	2011	2013	2015	2017	2020
Ez duzu inoiz pentsatu	72,5	66,4	71,5	55,9	63,1
Serio pentsatzen ari zara	10,7	11,4	8,4	15,1	22,9
Pentsatu duzu, baina ez egitea erabaki duzu	11,6	16,7	15,7	19,2	9,8
Autonomia edo enpresaria zara jada	3,1	3,4	2,3	3,3	2,4
Autonomia edo enpresaria zinen, baina orain jada ez	1,3	0,9	1,2	1,4	0,9
Ez duzu erantzun nahi	0,8	1,2	0,9	5,3	0,9
GUZTIRA	100	100	100	100	100
(n)	1.400	1.400	1.400	1.400	1.500

Iturria: Emantzipazioa seriea eta Euskadiko Gazteak 2020/2021.

2.6 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen aukera norberaren kontura edo besteren kontura lan egiteko, 2020an, sexuaren eta adinaren arabera (%)**

Edozelan ere, aukera izanez gero, zuk zer nahiago zenuke, zeure kontura lan egin ala besteren kontura lan egin, hau da, autonomia izan ala soldatapekoa izan?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Zeure kontura lan egin, autonomia izan	40,8	38,4	43,1	45,0	40,7	36,4
Besteren kontura lan egin, soldatapekoa izan	47,8	50,6	45,2	39,4	49,0	55,7
Ez dakizu edo ez duzu erantzun nahi	11,4	11,0	11,7	15,6	10,3	7,9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343

2.13 grafikoa. **Norbere kontura edo besteren kontura lan egitea nahiago duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Gazteak eta enplegua Euskadin 2017 eta Euskadiko Gazteak 2020/2021.

2.5.2.

Oposizioak egitea

Lan-merkatuan kontuan hartu beharreko beste aukera bat da oposizioetara aurkezteko funtzionario-plaza bat lortzeko. 2020an, inkesta egin zenean, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen 2,1ek esan zuten oposizioaren batera aurkeztua zirela eta gairitu egin zutela. % 2,0k esan zuten aurkeztu zirela, baina ez zutela gairitu eta ez zutela beste saiakerarik egin. Eta % 4,8 oposizioak prestatzen ari ziren orduan. Esan dezakegu, guztira, Euskadiko gazteen % 8,9 aurkeztu direla oposizioaren batera edo horretarako prestatu direla.

Bestalde, gazteen % 36,1ek adierazi zuten oposizioetara aurkezteko aukera aztertzen ari zirela, eta % 9,1ek esan zuten aukera hori aztertu zutela, baina ez aurkezteko erabaki zutela. Guztira, gazteen % 45,2k gogoeta egin zuten gaiari buruz, nahiz eta ez prestatu edo ez aurkeztu oposizio batera ere ez.

Azkenik, Euskadiko gazteen % 44,5ek onartu zuten ez dutela inoiz pentsatu oposiziorik egitea. Eta gainerako % 1,3ak ez zuten erantzun.

Oposizioak egitea pentsatu duten edo aurkeztu diren emakume gazteen kopurua gauza bera egin duen gizonen kopurua baino handiagoa da, baina aldeak ez dira garrantzitsuak.

Adina da oposizioekiko jarreraren ezberdintasun handiak markatzen dituen: 20 urte bete baino lehen, gazte gehienek ez dute pentsatu funtzionario izatea; 20 eta 24 urte bitarteko gazteen taldean, gehiengoa dira aukera hori pentsatzen ari direnak, eta, 25 eta 29 urte bitartekoen taldean, bostetik bat oposizioaren batera aurkeztu da edo, galdera egin zitzaionean, aurkezteko prestatzen ari zen.

2.7 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek oposizioei buruz duten iritzia, sexuaren arabera. 2020 (%)**

Eta inoiz pentsatu al duzu oposizioetara aurkeztea funtzionarioa izateko?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Ez duzu inoiz pentsatu	44,5	42,2	46,7	60,1	36,4	36,0
Serio pentsatzen ari zara	36,1	38,0	34,4	29,9	46,3	32,6
Pentsatu duzu, baina ez egitea erabaki duzu	9,1	8,3	9,9	6,4	10,0	11,1
Orain oposizioak prestatzen ari zara	4,8	5,1	4,4	0,7	4,4	9,5
Oposizioetara aurkeztu zinen baina ez zenituen gainditu eta ez zara berriz saiatu	2,0	1,7	2,4	0,3	1,1	4,8
Oposizioetara aurkeztu zinen, gainditu zenituen eta orain plaza duzu edo lan-poltsa batean zaude	2,1	2,6	1,6	0,0	1,4	5,0
Ed/Ee	1,3	2,1	0,6	2,5	0,4	0,9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343

2.5.3. Emigratzea

Lanerako hirugarren aukera da lana beste leku batean bilatzea. Kasu horretan, gazteei galdetu zaie ea zein eremu geografikoraino emigratzeko prest egongo liratekeen lan interesgarri bat izanez gero.

Gazteen erdia (% 51,5) prest dago atzerrira emigratzeko: % 10,0, Europar Batasunaren barruan, eta % 41,5, munduko edozein lekutara. Multzo horri Espainiaren barruan bada bizilekuz aldatzeko prest dagoen % 12,0 gehitzen badiogu, guztira Euskadiko gazteen % 63,5 prest daude Euskaditik kanpora emigratzeko, lan interesgarri bat eskaintzen badiete.

% 8,4 prest daude bizilekuz aldatzeko, baina Euskadiren barruan, eta % 3,0 hurbil dauden beste herri batera joango lirateke. Bestalde,

% 8,3 ez daude prest bizilekuz aldatzeko, eta % 16,9k ez dakite, edo ez daude ziur.

Emakume gazteen artean gehiago dira Euskaditik kanpora joateko prest daudenak gizon gazteak baino, lan interesgarri bat lortzeko bada. 20 eta 24 urte bitarteko multzoa da Euskaditik kanpora joateko prestasun handiago dutenak, eta 25 eta 29 urte bitartekoak dira gogo gutxien dutenak. Izan ere, adinak gora egin ahala gehiago dira lan bat lortzeko bizilekuz aldatzeko prest ez daudenak.

Euskaditik kanpora joatearen aldeko jarrerak gora egiten jarraitu du Covid-19aren pandemia eta mugitzeko ekarri dituen murrizketak gorabehera. Are gehiago, 2020an erregistratu da lan on baten truke bizilekua Euskaditik kanpora aldatuko luketen gazteen kopururik handiena.

2.8 taula. **Lan interesgarri bat lortzeko, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek jomuga duten eremu geografikoa, 2020an, sexuaren eta adinaren arabera (%)**

Eta bizilekua aldatuko zenuke lan interesgarri bat eskainiko balizute?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai, munduko edozein lekutara	41,5	43,1	40,0	41,2	47,2	36,1
Bai, Europar Batasuneko edozein lekutara	10,0	10,5	9,6	11,2	9,9	8,9
Bai, Espainia barruan izanez gero	12,0	12,7	11,3	11,2	11,6	13,3
Bai, Euskadi barruan izanez gero	8,4	5,8	10,9	7,2	9,3	8,7
Bai, inguruko udalerri batera bada	3,0	3,8	2,3	2,7	2,8	3,6
Ez, inola ere ez	8,3	8,1	8,5	4,1	5,8	15,2
Ez zaude seguru, lekuaren arabera	15,7	14,5	16,8	20,4	13,1	13,3
Ed / Ee	1,2	1,7	0,7	2,1	0,3	1,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343

2.9 taula. **Lana dela-eta, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen emigratzearen aldeko jarreraren bilakaera (%)**

Eta bizilekua aldatuko zenuke lan interesgarri bat eskainiko balizute?								
(%)	2000	2004	2008	2011	2013	2015	2017	2020
Bai, munduko edozein lekutara	22,5	21,6	21,5	36,9	39,2	39,6	37,9	41,5
Bai, Europar Batasuneko edozein lekutara	6,7	5,2	7,2	7,8	11,3	10,7	9,3	10,0
Bai, Espainia barruan izanez gero	17,0	14,9	11,3	7,9	7,8	8,6	10,4	12,0
EUSKADITIK KANPORA EMIGRATZEKO PRESTASUNA	46,2	41,7	40,0	52,6	58,3	58,9	57,6	63,5
Bai, Euskadi barruan izanez gero	19,9	19,3	17,7	13,3	10,8	9,7	12,9	8,4
Bai, inguruko udalerri batera bada	8,3	7,0	13,4	5,8	5,9	6,1	5,7	3,0
Ez, inola ere ez	12,8	17,5	12,7	14,2	13,6	13,0	5,8	8,3
Ez zaude seguru, lekuaren arabera	11,0	12,7	14,1	12,4	8,7	9,6	16,3	15,7
Ed/Ee	1,8	1,7	2,2	1,7	2,7	2,6	1,8	1,2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.364	1.500	1.500	1.400	1.400	1.400	1.400	1.500

2.6.

Baliabide ekonomikoak

Ikusi dugun moduan, gutxiengoa direnez enplegua duten gazteak, jarraian ikusiko dugu zein den gazteen baliabide ekonomikoen jatorria eta zenbat diru duten hilean, batez beste.

2.6.1.


Gazteen baliabide ekonomikoen jatorria

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 14,6 baino ez dira bizi beren diru-sarreretatik edo beren diru-sarreretatik eta bikotekidearen sarreretatik. Aitzitik, gehiengoa dira beren gurasoen edo senideen diru-sarreretatik eskusiboki bizi direnak (% 59,4), eta % 25,3 bere diru-sarreretatik eta familiaren sarreretatik bizi dira.

Baliabide ekonomikoen jatorria oso lotuta dago adinarekin eta okupazioarekin. Hala, 20 urte bete baino lehen, gazteen okupazio nagusia ikasketak direnean, gazteen % 93,8 familiaren diru-sarreretatik bizi dira eskusiboki. 20 eta 24 urte bitarteko multzoan, ehuneko hori % 61,6 dira eta apur bat gora egiten du familiaren eta beren diru-sarreretatik bizi diren pertsonen ehunekoak. Eta nagusien taldean (25-29 urte), gutxiengoa dira familiaren diru-sareren kontura baino bizi ez direnak, eta gehienek sarrera propioak dituzte; horri esker, guztia ez bada ere, beren gastuen zati bat kudeatu ahal dute.

Nabarmentzekoa da okupazio nagusitzat edo eskusibotzat lana duten pertsonen erdia baino gutxiago (% 40,4) bizi dela bere diru-sarreretatik

2.14 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek duten diruaren jatorria, 2020an (%)**




eta/edo bikotekidearen sarreretatik. Izan ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, lana duten pertsona asko gurasoen etxean bizi dira eta haiek ordaintzen dute etxebizitza eta hari lotutako gastuak (komunitatea, argia, ura, aseguruak, etab.), baita beste gastu batzuk ere, hala nola janaria, garbitasun- eta garbiketa-produktuak, etab.

2020ko egoera aurreko urteetako egoerarekin alderatzen badugu, batez ere beren diru-sarreretatik edo sarrera horietatik eta bikotekidearen sarreretatik bizi diren gazteen ehunekoak nabarmen behera egin du 2009an hasitako krisi ekonomikoaren aurreko garaiarekin alderatuta, bai orokorrean, bai okupazio nagusitzat lana duten gazteen kasuan.

2.10 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen baliabide ekonomikoen jatorria, 2020an, adinaren eta okupazio nagusiaren arabera (%)**

Zure baliabide ekonomikoei buruz hitz egingo dugu. Ondoko egoeretatik, zein da zurearen antzekoena?							
(%)	Guztira	Adin-taldeak			Zeregin nagusia		
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langabezian
Batez ere familiaren diru-sarreretatik bizi zara	59,4	93,8	61,6	20,7	83,0	13,5	37,6
Zeure eta familiaren diru-sarreretatik erdiz erdi bizi zara	25,3	5,2	30,9	41,1	13,6	45,6	47,1
Batez ere zeure diru-sarreretatik edo zeure eta zure bikotekidearenetatik erdiz erdi bizi zara	14,6	0,2	6,7	37,9	2,6	40,4	15,3
Beste egoera batean edo ez duzu erantzun	0,6	0,9	0,8	0,3	0,7	0,6	0,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	610	547	343	1.063	349	70

2.15 grafikoa. **Batez ere beren diru-sarreretatik eta/edo bikotekidearen sarreretatik bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen (orokorrean eta lana duten gazteak) ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea eta Emantzipazioa seriea.

2.6.2.

Hilean eskuragarri duten dirua

Gazte gehienek (% 59,0) 600 euro baino gutxiago dituzte hilean. Egoera nabarmen aldatzen da okupazio nagusiaren arabera. Ikasle gehienek (% 66,5) 300 euro baino gutxiago dituzte hilean; lanean ari direnen kasuan, berriz, gehienek (% 56,8) 900 euro baino gehiago dituzte hilean. Baina lana duten hiru gaztetik soilik batek (% 34,0) ditu 1.200 euro baino gehiago hilean.

Okupazioarekin lotuta, adinaren arabera ere aldeak daude: 15 eta 19 urte bitarteko gazte gehienek (% 76,0) 300 eurotik behera dituzte

hilean; 20 eta 24 urte bitarteko gehienek (% 58,1) 60 eta 600 euro artean dituzte hilean, batez beste, eta 25 eta 29 urte bitarteko gazte gehienek (% 63,5) 600 eurotik gora dituzte hilean.


Hilean 600 eurotik gora dituzten gazteen ehunekoak bariazioak izan ditu azken 20 urteetan, unean uneko egoera ekonomikoaren arabera. Hala, zifrarik altuena (% 35,2) 2008an erregistratu zen, krisi ekonomikoa hasi baino lehen, eta txikiena (% 23,8), 2013an, krisia bete-betean zegoenean.

2.11 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen baliabide ekonomikoak hilean, 2020an, adinaren eta okupazio nagusiaren arabera (%)**

Eta zure diru-sarrerara guztiak kontuan hartuta, normalean zenbat diru izaten duzu hilerro, batez beste?

(%)	Guztira	Adin-taldeak			Zeregin nagusia		
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langabezia
60 euro baino gutxiago	18,5	42,8	9,1	2,0	27,5	0,7	12,1
60 eta 300 euro artean	28,4	33,2	40,4	11,1	39,0	5,9	22,8
301 eta 600 euro artean	12,2	2,9	17,7	16,6	11,3	11,2	28,7
601 eta 900 euro artean	9,4	1,3	10,1	17,3	3,8	18,7	18,4
901 eta 1.200 euro artean	8,9	0,2	6,7	20,2	2,5	22,8	7,3
1.201 eta 1.500 euro artean	4,1	0,1	3,1	9,4	0,5	12,3	3,5
1.501 eta 2.000 euro artean	4,4	0,6	2,3	10,7	0,5	14,1	0,0
2.000 euro baino gehiago	2,3	0,1	1,0	6,0	0,2	7,6	0,0
Ez duzu erantzun nahi	11,8	18,7	9,6	6,7	14,7	6,8	7,2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	610	547	343	1.063	349	70

2.16 grafikoa. **Hilean 600 euro baino gehiago dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea eta Emantzipazioa seriea

03.

Familia- eta bizitegi-egoera

Covid-19aren pandemiak landa-lana normal egiteko eragindako zailtasunen ondorioz eta hasierako etxez etxeko lagin nominala telefonoz bete behar izanaren ondorioz (ezinezkoa izan da lagin horretara iristea kasu guztietan), gazte emantzipatu gutxiagorekin kontaktatu ahal izan da, sarritan ez baitaukate telefono finkorik.

Inguruabar horrek eragina izango du kontaktatutako gazte emantzipatuen kopuruan, baina ez da arrazoi bakarra. Azterketan detektatu dugu gazte emantzipatuen ehunekoa txikia dela, baina, aldi berean, aurrerago ikusiko dugunez, ikusi dugu asko direla gurasoen etxean bizi direnak, aurretik emantzipatuta egon ondoren.

Ikerketa honetan, inkestatutako gazteen % 9,8 emantzipatuta bizi dira, hau da, gazte horiek beren kontura bizi dira, jatorriko familiarena ez den etxebizitza batean. % 2,0 ikasleen pisu edo egoitza batean bizi dira astegunetan, baina familiaren bizilekura itzultzen dira asteburuetan eta/edo oporretan. Edonola ere, gazte gehienak (% 87,6) jarraian bizi dira jatorriko familiarekin (gurasoak, neba-arrebak, etab.).

Emantzipatutako gazteen kopuruak gora egiten du adinarekin: 20 urtetik behera ez dago ia gazte emantzipaturik (% 0,2); 20 eta 24 urte bitartekoen artean, % 5,8 baino ez daude emantzipatuta, eta 25 eta 29 urte bitartekoen multzoan, launik bat (% 24,1) dago emantzipatuta.

Horrez gainera, ohikoa denez, emakume gazte emantzipatuen ehunekoa gizon gazte emantzipatuena baino apur bat handiagoa da (% 10,9 eta % 8,8, hurrenez hurren).

Emantzipatuen artean, bikotekidea dutenen ehunekoa (% 16,4) askoz handiagoa da bikotekiderik ez dutenena baino (% 5,6). Izan ere, aurrerago ikusiko dugunez, gazte emantzipatu gehienak bikotekidearekin bizi dira.

Horrez gainera, kontaktatu diren pertsonen % 3,2k baino ez dituzte seme-alabak; ehunekoa 9,4koa da da 25 eta 29 urte bitartekoen artean, eta % 16,6, gazte emantzipatuen kasuan.

Jarraian, gai hauek aztertuko ditugu: gazte emantzipatuak norekin eta zer baldintzetan bizi diren, emantzipatu gabeko gazteek emantzipatzeko zer aurreikuspen dituzten eta

talde batean zein bestean emantzipatzeko zer zailtasun dituzten edo izan dituzten. Halaber, ahal den neurrian, 2020ko datuak aurreko urteetakoekin alderatuko ditugu.

3.1 taula. **Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipazio-egoera, 2020an, adin-taldearen arabera eta bikotekiderik duten ala ez kontuan hartuta (%)**

Non bizi zara normalean?								
(Hau da, konfinamendu-egoera non pasatzen ari zaren kontuan izan barik)								
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Bikotekidea izatea	
		Emakumeak	Gizonak	15-19	20-24	25-29	Bai	Ez
Emantzipatuta zaude, hau da, zure kontura bizi zara jatorrizko familiarena ez den beste etxebizitza batean	9,8	10,9	8,8	0,2	5,8	24,1	16,4	5,6
Astegunetan ikasle-egoitza batean edo familiarena ez den beste etxebizitza batean bizi zara, eta asteburuetan eta a oporretan familiarekin	2,0	2,0	2,1	2,1	3,7	0,2	2,0	2,0
Zure jatorrizko familiarekin bizi zara bere etxean (gurasoekin, neba-arrebekin...)	87,6	86,5	88,6	97,6	90,0	74,6	80,4	92,3
Beste egoera batean zaude	0,5	0,6	0,5	0,0	0,5	1,1	1,3	0,1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343	531	962

3.1.

Emantzipatutako gazteen egoera

Aurreko atalean ikusi dugun moduan, ez dago 18 urtetik beherako gazte emantzipaturik. Beraz, jarraian aurkezten diren datuak 18 eta 29 urte bitarteko gazteei buruzkoak dira. Gainera, gazte emantzipatuen egoera aztertzean, datu orokorrak baino ez ditugu emango, laginean dauden pertsona emantzipatuen kopurua txikia denez, datuak ezin direlako behar besteko fidagarritasun estatistikoz banakatu.


Gazte emantzipatuen erdia baino apur bat gehiago (% 55,4) bikotekidearekin bizi da. Zehazki, % 37,4 bikotekidearekin baino ez dira bizi; % 14,9, bikotekidearekin eta seme-alabekin, eta gainerako % 3,1a, bikotekidearekin eta beste senide batekin edo batzuekin.

Laurden bat (% 24,9) lagunekin edo pisukideekin bizi da. % 15,4 bakarrik bizi dira. % 4,3 beste pertsona batzuekin emantzipatu dira (neba-arrebekin, seme-alabekin baina bikotekiderik gabe, etab.).

Datu hauek aurreko urteetan erregistratutakoekin alderatzen baditugu, ikusten dugu bikotekidearekin bizitzea dela aukera nagusia kasu guztietan, baina 2020an apur bat behera egin du aurreko urteekin alderatuta. Bakarrik bizi diren gazteen ehunekoa 2011n erregistratutakoa baino apur bat txikiagoa izan da ere, eta pisua lagunekin edo senide ez diren beste pertsona batzuekin partekatzeak aukera sendotu da, seguruenik aukera ona delako gastuak ere partekatzeak.

Gazte emantzipatu gehienak (% 56,1) alokairuan bizi dira. Bestalde, emantzipatutako hamar gaztetik hiruk (% 31,0) erosi egin dute bizi diren etxea; haietatik % 24,6 hipoteka ordaintzen ari dira, eta gainerako % 6,4ak guztiz ordaindu dute etxea. % 6,8 senideek edo lagunek doan eta prezio baxuan utzitako etxe batean bizi dira, eta % 2,4k oinordetzan edo dohaintzan jaso dute. Gainerako % 3,9ak beste erregimen batean dute etxea edo ez dute erantzun.

3.1 grafikoa. **18 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen bizikidetza-egoera 2020an (%)**



3.2 taula. 18 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen bizikidetza-egoeraren bilakaera (%)

Norekin bizi zara normalean? (Hau da, konfinamendu-egoera berezi hau norekin pasatzen ari zaren kontuan izan barik)					
(%)	2011	2013	2015	2017	2020
Bikotekidearekin (eta, agian, pertsona gehiagorekin)	59,9	63,9	64,6	58,7	55,4
Lagunekin edo pisukideekin	13,8	14,2	14,3	24,9	24,9
Bakarrik	18,0	15,8	11,1	12,3	15,4
Beste egoera batean	8,3	6,1	10,1	4,1	4,3
GUZTIRA	100	100	100	100	100
(n)	349	370	373	354	106

Iturria: Emantzipazioa seriea eta Euskadiko Gazteak 2020/2021

3.3 taula. 18 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen etxebizitzaren jabetza-erregimenaren bilakaera (%)

Normalean bizi zaren etxebizitza...?					
(%)	2011	2013	2015	2017	2020
Alokairuan duzu/duzue	61,2	63,1	73,7	69,1	56,1
Jabetzan duzu/duzue (erosita eta guztiz ordainduta)	3,9	2,6	4,4	5,6	6,4
Jabetzan duzu/duzue (erosita baina oraindik ez dago guztiz ordainduta, hipoteka duzu/duzue)	26,5	24,1	13,4	14,4	24,6
Jabetzan duzu/duzue, baina erosi barik, oinordetza edo dohaintza hartuta	2,8	2,8	3,7	2,1	2,4
Senideren edo lagunaren batek edo enpresak doan edo oso merke utzi dizute/dizuete	2,4	3,0	2,6	6,5	6,8
Beste modu batean duzu/duzue	2,9	3,8	2,1	1,6	3,0
Ez duzu erantzun nahi	0,2	0,6	0,0	0,6	0,9
GUZTIRA	100	100	100	100	100
(n)	349	370	373	354	106

Iturria: Emantzipazioa seriea eta Euskadiko Gazteak 2020/2021

Alokairuan bizi diren gazte emantzipatuen ehunekoa nagusia da oraindik, baina nabarmen behera egin du aurreko urteekin alderatuta. Etxebizitza erosi dutenen ehunekoak, berriz, gora egin du eta ia 2011ko mailetan kokatu da.

Alokairuen garestitasunak eta interes-tasa baxuak izan daitezke etxea izateko erosteko aukera

berreskuratzearen arrazoi zentzuzkoenetako bat, baita, aurreko urteekin alderatuta, banku-erakundeek hipoteka-maileguak kontratatzeak erraztasunak ematen dituztela ere.

Beste alde batetik, doan utzitako etxe batean bizi diren ehunekoa txikiena da oraindik ere, baina 2017an eta 2020an aurreko erregistroak


bikoiztu ditu, goranzko etengabeko joera baten barruan.

Emantzipatutako bost gaztetik batek (% 18,4) baieztatu du arazoak dituela etxebizitzaren gastuak ordaintzeko (gastu horietan ez da sartzen soilik hipotekaren kuota edo alokairuaren errenta; hor

sartzen dira beste gastu arrunt batzuk ere: argia, ura, gasa, komunitatea, etab.).

Hala ere, etxebizitzaren gastuei aurre egiteko arazoak dituzten gazte emantzipatuen ehunekoak behera egin du aurreko urteekin alderatuta.

3.2 grafikoa. **Etxebizitzaren gastuei aurre egiteko zailtasunak dituzten 18 eta 29 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Emantzipazioa seriea eta Euskadiko Gazteak 2020/2021

3.2. Emantzipatu gabeko gazteak

Inkesta egin zenean emantzipatu gabe zeuden hamar gaztetik hiruk adierazi zuten noizbait beren kontura bizi izan direla: % 21,1ek esan zuten ikasketengatik bizi izan zirela emantzipatuta; % 4,0k, lanagatik edo laneko praktikak egiteko; % 1,5ek, bikote-harreman bat dela-eta; eta gainerako % 3,3ak, zehaztu gabeko beste arrazoi batzuegatik.

Adinean gora egin ahala gero eta handiagoa da noizbait beren kontura bizi izan direla dioten ehunekoa (% 7,9, 15 eta 19 urte bitartekoen artean; % 36,7, 20 eta 24 urte bitartekoen artean, eta % 52,3, 25 eta 29 urte bitartekoen artean). Izan ere, 2020an familiaren etxean bizi ziren 25 eta 29 urte bitarteko gazteen multzoan, erdiak baino apur bat gehiagok esan zuten noizbait emantzipatuta egon zirela.

3.4 taula. **Emantzipatu gabeko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipazioaren arloko esperientzia, 2020an, adin-taldearen arabera (%)**

Zure kontura bizi izan al zara inoiz?				
(%)	Guztira	Adin-taldeak		
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai, ikasketak zirela eta	21,1	5,4	30,8	31,2
Bai, lana eta lan-praktikak zirela eta	4,0	0,4	2,1	11,3
Bai, harreman sentimentala zela eta	1,5	0,1	0,7	4,6
Bai, beste arrazoi batzuegatik	3,3	2,0	3,1	5,2
Ez	70,1	92,1	63,3	47,7
GUZTIRA	100	100	100	100
(n)	1.348	592	490	266

Emantzipatu gabeko gazteen artean noizbait beren kontura bizi izan direnen ehunekoak nabarmen gora egin du aurreko urteekin alderatuta. Datu horrek erakusten du zer eragin izan duen pandemiak gazteek etxera itzultzeko, eten egin direlako aurrez aurreko eskolak, beste hiri batzuetan egiten ari ziren ikasketa-proiektuak (Erasmus programa, etab.) eta nazioarteko boluntario- edo lankidetzak-proiektuak, edo telelana ezarri delako, lana eta erosahalmena galdu dutelako, besteak beste.

Gurasoen etxean bizi arren, emantzipatu gabeko gazteen erdiak baino gehiagok nahiago zuen bere kontura bizi 2020an (% 55,0).


Familiaren etxean bizi diren gazteen emantzipatzeko gogoia areagotu egiten da adinarekin. Hala, 20 urte bete baino lehen, gehienek nahiago dute gurasoekin bizitzen

jarraitu (% 66,0), baina 25 eta 29 urte bitartekoen artean, hamarretik zortzik nahiago zuten emantzipatuta bizi (% 82,1).

Horrez gainera, 25 urte bete aurretik, emantzipatuta bizi nahi dutenen gehienak lagunekin biziko lirateke; emantzipatu nahi duten 25 eta 29 urte bitarteko gazte gehienek, berriz, bikotekidearekin bizi nahiko lukete. Eta, azkenik, bakarrik bizi nahi dutenen multzoa dago.

Emantzipatzeko gogoia (bakarrik, bikotekidearekin, lagunekin edo beste pertsona batzuekin) handiagoa da ikasketak amaitu eta lanean edo langabezia daudenen artean (% 78,5 eta % 80,3 da, hurrenez hurren, familiaren etxetik kanpo bizi nahi duena), baita noizbait beren kontura bizi izan direnen artean ere (pertsona horietatik, % 71,4k bere kontura bizi nahi dute berriro).

3.3 grafikoa. **Edozein arrazoi dela-eta noizbait beren kontura bizi izan direla esan duten emantzipatu gabeko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Emantzipazioa seriea eta Euskadiko Gazteak 2020/2021

3.5 taula. **Emantzipatu gabeko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipatzeko gogoia, 2020an, adin-taldearen, okupazio nagusiaren eta emantzipazioaren arloan aurretiaz izandako esperientziaren arabera (%)**

Nola nahiago zenuke bizi?

Guztira	Adin-taldeak			Zeregin nagusia			Aurretik emantzipatuta	
	(%)	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langabezia	Bai Ez
Jatorrizko familiarekin (gurasoekin, neba-arrebekin...)	42,3	66,0	37,6	15,1	52,8	20,0	16,9	26,3 49,2
Zure kontura, zu bakarrik	17,9	7,8	16,5	33,7	12,9	30,0	26,3	24,4 15,1
Zure kontura, zure bikotekidearekin	19,0	5,0	19,7	37,7	10,8	37,0	32,5	25,4 16,2
Zure kontura, lagunekin	17,4	16,9	23,6	10,7	19,7	11,3	21,5	21,1 15,9
Zure kontura, senideekin (neba- arrebekin, lehengusu-lehengusinekin...)	0,7	1,4	0,4	0,0	0,9	0,2	0,0	0,5 0,8
Ez dakizu edo ez erantzutea nahiago duzu	2,7	3,0	2,2	2,7	2,9	1,5	2,8	2,3 2,8
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100 100
(n)	1.348	592	490	266	994	276	65	370 978

Hala ere, emantzipatu gabeko gazteek beren kontura bizitzeko duten gogoak nabarmen behera egin du aurreko urteekin alderatuta. Lehenago, gurasoekin bizi zirenen hiru laurdenak edo gehiagok familiaren etxetik kanpo bizi nahi zuten aukeratu ahal izanez gero. 2020an erdia baino apur bat gehiago dira (% 55,0) beren kontura bizi nahi duten emantzipatu gabeko gazteak.

Gogo hori gauzatzeko aurreikuspenari dagokionez, modu jarraituan beren gurasoekin bizi diren hiru gaztetatik ia bik (% 63,2) diote beren kontura bizitzera joateko asmoa dutela hiru urteko epearen barruan.

Emantzipatzeko gogoarekin ez bezala, hiru urteko epearen barruan emantzipatzeko aurreikuspenak etengabe gora egin du azken hamar urteetan: 2011ko % 43,0tik 2020ko % 63,2ra.


2020ko datuetan zentratzen bagara, ikusten dugu emantzipatzeko aurreikuspenak gora egiten duela adinarekin, eta 25 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik bederatzik beren kontura bizitzera joan nahi dutela hiru urte pasatu baino lehen.

Aurreikuspen hori handiagoa da ere lanean ari diren eta, ondorioz, diru-sarrerak dituztenen artean, baita aurretiaz beren kontura bizi izan direnen artean eta emantzipatzeko gogoia adierazi dutenen artean ere.

Hiru urteko epean emantzipatzeko aurreikuspena duten ala ez aintzat hartu gabe, gazte hauei galdetu zaie ea zer nahiago duten, etorkizuneko etxea erosi ala alokatu.


Emantzipatu gabeko gazteen erdiak baino gehiagok baieztatu zuten nahiago dutela erosi (% 56,7). Erostearen aldeko hautuak gora egiten du adinarekin, eta 25 eta 29 urte bitarteko artean % 72,0 dira horren aldekoak.

3.4 grafikoa. **Beren kontura bizi nahiko luketen emantzipatu gabeko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Emantzipazioa seriea eta Euskadiko Gazteak 2020/2021

3.5 grafikoa. **Emantzipatu gabeko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, hiru urteko epean emantzipatzeko asmoa dutenen bilakaera (%)**



Iturria: Emantzipazioa seriea eta Euskadiko Gazteak 2020/2021

3.6 taula. **Emantzipatu gabeko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, hiru urteko epean emantzipatzeko asmoa dutenen aurreikuspena, 2020an, adin-taldearen, okupazio nagusiaren, emantzipazioaren arloan aurretiaz izandako esperientziaren eta emantzipatzeko gogoaren arabera (%)**

Datozen hiru urteetan baduzu zure kontura bizitzera joateko asmorik?

(%)	Guztira	Adin-taldeak			Zeregin nagusia			Aurretik emantzipatuta		Emantzipatzeko nahia	
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langabezian	Bai	Ez	Bai	Ez
Bai	63,2	41,7	65,8	90,2	52,4	86,9	81,6	78,8	56,6	79,6	42,2
Ez	30,3	49,7	28,2	5,9	40,0	9,7	13,6	17,1	36,0	17,0	48,3
Ed/Ee	6,4	8,6	6,0	3,8	7,5	3,4	4,7	4,1	7,5	3,4	9,5
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.348	592	490	266	994	276	65	370	978	701	612

Etorkizuneko etxea erostearen alde egiten dutenen gehiengoa lanean ari diren gazteak dira (% 75,9). Aurretiaz bizimodu independentea izateak edo halako bizimodua izan nahi izateak ez du eragin nabarmenik etxebizitza erostearen edo alokatzearen aldeko aukeran.

Emantzipatu gabeko pertsonen artean, alokairuaren aldeko aukerak gora egin zuen 2011. eta 2015. urteen artean, baina behera egiten hasi zen urte horretatik aurrera. Dirudienez, alokairuak garestiak izatea eta interes-tasak txikiak izatea dira lehentasunen bilakaera horren arrazoiak.


3.7 taula. **Emantzipatu gabeko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek etxebizitza izateko lehenesten duten erregimena, 2020an, adin-taldearen, okupazio nagusiaren, emantzipazioaren arloan aurretiaz izandako esperientziaren eta emantzipatzeko gogoaren arabera (%)**

Edozelan ere, etorkizuneko etxebizitza bati begira, zuk zer nahiago zenuke: erosi ala alokatu?

(%)	Guztira	Adin-taldeak			Zeregin nagusia			Aurretik emantzipatuta		Emantzipatzeko nahia	
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langabezia	Bai	Ez	Bai	Ez
Erosi	56,7	47,4	54,7	72,0	49,1	75,9	61,2	59,3	55,5	58,0	55,1
Alokatu	38,3	46,6	40,2	24,4	44,9	21,3	33,5	36,3	39,1	38,3	38,4
Beste aukera bat*	1,1	0,8	1,5	1,2	1,4	0,5	1,5	1,2	1,1	1,1	1,3
Ed/Ee	3,9	5,3	3,7	2,4	4,6	2,3	3,8	3,2	4,2	2,6	5,3
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.348	592	490	266	994	276	65	370	978	701	612

* Uste dute oinordetzan edo dohaintzan emango dietela eta, orduan, ez dutela erosi edo alokatu behar izango.

3.6 grafikoa. **Etorkizunean etxebizitza erosteari edo alokatzeari dagokionez, emantzipatu gabeko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek lehenesten duten aukeraren bilakaera (%)**



Iturria: Emantzipazioa seriea eta Euskadiko Gazteak 2020/2021

3.3 . Gazteek emantzipatzeko dituzten arazoak


Euskadiko gazteek emantzipatzeko dituzten arazoak aztertzean, kontuan hartuko ditugu, batetik, jada emantzipatuta dauden pertsonen erantzunak, eta, bestetik, gurasoekin bizi diren baina beren kontura bizi nahi duten pertsonenak. Hala, dagoeneko familiaren etxetik irten direnek izan dituzten arazoak eta, nahi izan arren (baliteke lehenago inoiz egin izana), oraindik urrats hori eman ez dutenak gainditu behar izango dituzten arazoak bereizi ahal ditugu.

Gazte emantzipatuen esperientziaren arabera, zein emantzipatu nahi duten baina oraindik egin ez dutenen esperientziaren arabera, emantzipatzeko arazo nagusia da etxebizitzaren

garestitasuna, erosteko zein alokatzeko. Beren kontura bizi direnen % 71,2k eta gurasoekin bizi diren eta emantzipatu nahi dutenen % 74,7k esan dute arazo hori dutela edo izan dutela.

Etxebizitzaren garestitasuna eta gero, lanarekin lotutako arazoak aipatzen dira: batetik, emantzipatzeko aukera ematen duen soldata duen lana aurkitzeko arazoak, eta, bestetik, lanean egonkortasunik ez izateak eragindakoak. Pertsona gutxiagok aipatzen dute lanik ez izateagatik diru-sarrerarik ez izatea edo bankuko kreditu bat lortzeko zailtasuna arazo gisa. Zailtasun horiek gutxiago aipatzea ulertzekoa da, batetik, emantzipatutako pertsona

3.7 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek emantzipatzeko dituzten arazo nagusiak, 2020an. Gazte emantzipatuen eta emantzipatu nahi duten gazteen arteko alderaketa (%)**



gehienek eta emantzipatu nahi duten gehienek lana dutelako (baldintza hobetoetan edo okerragoetan), eta, bestetik, emantzipatutako gazte guztiek eta emantzipatu nahi duten guztiek ez dutelako aukeratu etxea erostea, eta, beraz, ez dutelako behar hipoteka-krediturik lortzea.

Edonola ere, aurreko grafikoan ikus daitekeenez, emantzipatu nahi duten baina oraindik egin ez duten pertsonak gehiagotan adierazi dute deskribatutako arazoei aurre egin behar dietela jada emantzipatuta daudenean baino.


Eroste edo alokatzeko etxebizitzaren garestitasuna da, gazteen esperientzia pertsonalaren arabera, gazteek emantzipatzeko duten arazo nagusia orain arte egin diren neurketa guztietan. Baina, etxebizitzaren garestitasuna emantzipatzeko

arazo bat izan dela dioten gazteen ehunekoaren bilakaera aztertzen badugu, ikusten da ehuneko horrek behera egin zuela 2011tik 2017ra bitartean, eta gero gora egin duela 2020an.

Etxebizitzaren garestitasuna emantzipatzeko arazo gisa aipatzen dutenen ehunekoaren bilakaera errazago ulertzen da aintzat hartzen badugu merkatu librean etxebizitza erosteko edo alokatzeko prezioek izan duten bilakaera. Alokatzeko prezio baxuenak 2013an izan ziren, eta salerosketa-preziorik baxuenak, 2015ean. Hori dela eta, 2015ean eta 2017an gazte emantzipatu gutxiagok aipatu zuten etxebizitzaren garestitasunaren arazoari aurre egin behar izan ziotela beren kontura bizi ahal izateko (hala ere, gehiengoak izan ziren).

Beste alde batetik, bankuko kredituak lortzeko zailtasunak aipatu dituztenen

3.8 grafikoa. **Etxebizitzaren garestitasuna emantzipatzeko arazoa izan zela edo izaten ari dela esan duten gazte emantzipatuen eta emantzipatu nahi duten gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



ehunekoen bilakaerak beheranzko etengabeko joera izan du 2013tik aurrera, banku-erakundeen hipoteka-maileguak emateko politikarekin bat etorrira².


Edonola ere, galdera hau egin den guztietan, emantzipatu nahi duten gazteek gehiagotan aipatu dute arazo hori jada emantzipatuta dauden gazteek baino.

3.8 taula. **Euskadin etxebizitza librearen salmentaren eta alokairuaren batez besteko prezioen bilakaera (€)**

Etxebizitza libreen batezbesteko prezioa Euskadin						
(€)	2008	2011	2013	2015	2017	2020
Saltzen diren etxebizitzaren batezbesteko salneurria	266.429	250.341	206.579	196.046	202.483	223.404
Alokatzen diren etxebizitzaren batezbesteko alokairu-errenta	969	896	825	872	944	1.041

Iturria: Notariotzaren Elkargo Orokorra (salerosketa-prezioetarako) eta Higiezinaren Eskaintzari buruzko Inkesta, Etxebizitzaren Euskal Behatokiarena (alokairu-prezioetarako)

3.9 grafikoa. **Bankuko kredituak lortzeko zailtasuna emantzipatzeko arazoa izan zela esan duten gazte emantzipatuen eta emantzipatu nahi duten gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Emantzipazioa seriea eta Euskadiko Gazteak 2020/2021

² Baieztapen hori argitzeko, esan dezakegu, Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, Euskadin 2008an 21.382 etxebizitza eskrituratu zirela, eta 2013an, aldiz, eskrituratutako etxebizitzaren kopururik txikiena jaso zela (11.081 baino ez). Geroago, eskrituratutako etxebizitzaren kopurua pixkanaka igotzen joan da, 16.829ra igo zen 2015ean, 21.047ra 2017an eta 23.777ra 2019an. 2020an, ordea, atzerapauso bat izan da (Euskadin, urte horretan 20.738 etxebizitza eskrituratu ziren). Horrek zerikusia izan dezake pandemiarekin eta etxeko konfinamenduekin, lehenik, eta udal-konfinamenduekin, gero, bai eta 2019ko hipoteka-lege berriarekin ere (5/2019 Legea, martxoaren 15ekoa, Higiezinaren kreditu-kontratuak arautzen dituen), zeinak gastu handiagoak egozten baitizkie bankuei, eta, ondorioz, hauek bezeroen kaudimena sakonago aztertzen baitute. Pentsatzekoa da lan-behin-behinekotasunaren tasa handiagoak dituzten gazteek hipoteka-kredituak eskuratzeko aukera gutxiago izango dituztela.

3.4 . Emantzipatzeko adin egokiena


Duten egoera edozein dela ere, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen iritziz, emantzipatzeko adin egokiena 24 urte eta erdi da (batezbestekoa). Hau da, ikasketak amaitu ondoren eta lanean hasi eta beren kontura bizitzeko nolabaiteko kaudimen ekonomikoa izateko aukera ematen dieten diru-sarrerak –eta zerbait aurreztuta– izaten hasi ondoren planteatzen dute emantzipazioa.

Ez da aldaketa handirik izan emantzipatzeko adin egokienari buruzko iritzian. 2011. eta 2020. urteen artean egindako neurketa guztietan, batez besteko balioak 23 urte eta erdi eta 24 urte eta erdiren artean egon dira. Hala ere, 2020an erregistratu da baliorik altuena.

Halaber, aldaketarik gabe mantendu da emantzipatzeko adin egokienaren eta gazteak, batez beste, beren kontura bizitzen hasten diren benetako adinaren arteko aldea. Alde hori sei urte ingurukoa da, eta gazteek bizimodu independenteko proiektuei ekiteko dituzten zailtasunak islatzen ditu.

Emantzipatzeko adin egokienari dagokionez, ez dago alde nabarmenik sexuaren arabera edo emantzipazio-egoeraren arabera, baina badaude aldeak adinaren arabera: 20 urtetik behera, adin egokiena 23 urte da; 20 eta 29 urte bitartekoen artean, ordea, adin egokiena 25 urte da.

3.10 grafikoa. **Euskadiko gazteak emantzipatzeko adin egokienaren eta benetako adinaren bilakaera (urteak)**



* 2020ko emantzipatzeko benetako adinaren datua (30,2 urte) 2019koa da.

Iturria: Emantzipazioa seriea eta Euskadiko Gazteak 2020/2021

04.

Egoeraren balorazioa

Kapitulu honetan aztertuko dugu nola baloratzen duten gazteek beren egoera pertsonala, gazteriaren egoera orokorra eta erakundeek gazteriaren arloan egiten duten lana. Horrez gainera, aztertuko dugu zein diren gazteen arazo

nagusiak, haiek aipatutakoaren arabera. Halaber, ikuspegi horien bilakaera aztertuko dugu eta 2020an pandemiak eragindako salbuespen-egoerak haien balorazioei eragin dien eta nola eragin dien neurtuko dugu.

4.1.

Egoera pertsonalaren balorazioa

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik zazpi (% 69,4) pozik agertu ziren beren egoera pertsonalarekin 2020an.

Gazte gehienak beren egoera pertsonalarekin pozik egon arren, balorazio positibo horrek apur bat behera egin du 2012ko eta 2016ko datuekin alderatuta, eta ordura arte izandako goranzko joera eten da.

Egoera pertsonalarekiko poztasunaren ehunekoak gora egiten du adinean behera egin ahala, eta 20 urtetik beherakoen multzoan % 75,6

pozik daude; 25 eta 29 urte bitartekoen artean, berriz, beren egoerarekin pozik daudenen ehunekoa % 60,8 da. Azken talde horretan, hamar gaztetik batek (% 9,2) dio ez dagoela pozik.

Beste alde batetik, antzekoak dira emakume eta gizon gazteen balorazioak.


Horrez gainera, hiru gaztetik bik (% 63,6) uste dute egoera hobean daudela beren aitak edo amak adin berean zuten egoerarekin alderatuta.

Iritzi horren bilakaera oso lotuta dago testuinguru sozioekonomikoarekin, eta, zehazkiago, gazteen enplegu- eta langabezia-tasekin: 2008an, gazteen % 76,8k uste zuten beren egoera hobe zela beren gurasoek adin berean zutena baino; 2011n, krisi ekonomikoa hor zegoela, ehuneko horrek % 62,8ra egin zuen behera, eta 2013an, gazteen langabezia-tasak altuagoak izan zirenean, % 51,1era. Geroago, beren egoera beren gurasoak gazte zirenean zutena baino hobe dela uste dutenen ehunekoak gora egin du astiro-astiro.

Hala ere, beren gurasoek beren adinean izan zuten egoeran baino hobean daudela pentsatzen dutenen kopurua aldatu egiten da adinaren arabera. 20 urtetik beherakoen % 79,8k uste dute beren gurasoek beren adinean izandako egoeran baino hobean daudela. Ehuneko horrek, ordea, behera egiten du adinak gora egin ahala, eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean, erdia baino gutxiago dira (% 41,4) hala pentsatzen dutenak.

Ezberdintasun horren azalpena bat eman dezakegu. Izan ere, kontuan hartu beharreko beste faktore batzuez gainera, 2020an, konfinamenduaren ondorioz, 20 urtetik beherako gazte asko lagunekin konektatuta egoteko, eskolak etxetik jarraitzeko eta bestelakoetarako dituzten baliabide guztiez (sakelakoak, tabletak, ordenagailuak...) ohartu dira, eta halakoak beren gurasoek haien adina zutenean pentsaezinak zirela ikusi dute. Aitzitik, 25 eta 29 urte bitartekoen artean, asko lanaren bila ari dira eta emantzipatu egin nahi dute, eta haien artean nahiko zabalduta dago beren gurasoak gazteak zirenean lan-egoera hobe zela eta etxebizitzaren prezioak eskuragarriagoak zirela (horrek ez du esan nahi ideia hori egia denik inola ere). Hori dela eta, azken pertsona horiek egungo egoeraz egiten duten balorazioa txarragoa da, eta gazteena, hobe.

4.1 grafikoa. **Gazteek beren egoera pertsonalaren aurrean duten poztasunaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

4.1 taula. **Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen egoera pertsonalarekiko poztasuna, 2020an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Zuk, oro har, nola ikusten duzu zure egoera pertsonala gaur egun?

(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Pozik zaude	69,4	69,1	69,8	75,6	71,4	60,8
Ez zaude pozik, ezta gaizki ere	24,6	24,6	24,7	20,9	23,5	29,8
Ez zaude pozik	5,6	6,2	5,1	3,5	4,5	9,2
Ez dakizu edo ez duzu erantzun nahi	0,3	0,1	0,4	0,0	0,6	0,2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343

4.2 grafikoa. **16 eta 29 urte bitarteko gazteen enplegu- eta langabezia-tasen eta beren gurasoek beren adinean izan zutena baino egoera hobean daudela uste duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



4.2 taula. **Beren gurasoek beren adina zutenean zeuden egoeraz 15 eta 29 urte bitarteko gazteek egiten duten balorazioa, 2020an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Zure egoera pertsonalean pentsa ezazu eta esadazu ondoko baieztapenarekin ados ala kontra zauden: «Zure gurasoek zure adinean zuten egoerarekin konparatuta, zu hobeto zaude»

(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Ados	63,6	61,1	65,9	79,8	68,6	41,4
Kontra	24,4	24,8	24,0	7,9	20,4	45,9
Ez dakizu edo ez erantzutea nahiago duzu	12,1	14,1	10,1	12,3	11,0	12,7
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1. 500	748	752	610	547	343

4.2. Arazo pertsonalak

2020an, gazteen kezka nagusiak ziren, haien erantzun espontaneoaren arabera, lana (gazteen % 39,6k aipatu dute), genero-berdintasuna eta matxismoa (% 37,7k) eta etorkizuna (% 34,3k). Bigarren mailan, osasuna (% 27,1) eta ingurumena eta klima-aldaketa (% 26,1) aipatu dituzte. Hirugarren mailan, ekonomia eta egoera ekonomiko orokorra (% 18,1) eta politika (% 14,5) daude.

Bestalde, % 10,1ek gizartea orokorrean aipatu dute; % 9,4k, familia eta/edo bikotekidea; % 7,7k, etxebizitza; % 7,0k, lagunak; % 3,9k, emantzipazioa; % 3,7k, hezkuntza; % 3,4k, tolerantzia eta errespetua; % 2,8k, ustelkeria; % 2,5ek, segurtasuna, eta % 1,3k, pobrezia. Gainerako aukerak gazteen %1ek baino gutxiagok aipatu dituzte, kasu bakoitzean. Gogoratu behar da pertsona bakoitzak 3 arazo aipatu ahal zituela.

Etorkizunari, osasunari, ekonomiari edo gizartearen egoera orokorrari buruzko aipamenen

ehuneko altuak lotuta daude, ziur aski, pandemiak sortutako egoerarekin eta ondorengo hilabete eta urteetan gerta zitekeenaren inguruko ziurgabetasunarekin.

Emakume eta gizon gazteen arazoen arteko ezberdintasun nagusia da emakumeentzat genero-berdintasuna eta matxismoa direla arazorik handiena, eta emakumeen % 49,9k aipatu dute. Eta, ehuneko txikia izan arren, emakumeek gizonek baino gehiago aipatu dute segurtasuna. Gizonek, ordea, gehiagotan aipatu dituzte ekonomiarekin, politikarekin eta gizartearen egoera orokorrarekin lotutako gaiak.

Adinaren arabera, alde garrantzitsuak daude. Adinean gora egin ahala gora egiten dute lana, etxebizitza, politika eta hezkuntzari buruzko aipamenen ehunekoek, eta behera egiten dute, berriz, genero-berdintasunari, etorkizunari, lagunei eta familiari edota bikotekideari buruzko aipamenen ehunekoek. Gai batzuetan, ezberdintasuna 20


urtetik beherakoen eta gorakoen artean ematen da. Adibidez, 20 eta 29 urte bitarteko gazteek gehiago aipatzen dituzte ekonomia eta emantzipazioa 15 eta 19 urte bitartekoek baino.

Gazteen okupazioak ere alde nabarmenak ditu adinaren arabera (izan ere, 20 urtetik beherako gehienak ikasten ari dira, eta 25 eta 29 urte bitarteko gehienak, aldiz, lanean ari dira). Ikasleek batezbestekoak baino gehiagotan aipatzen dituzte etorkizuna (multzo horrek gehien aipatutako kezka da), genero-berdintasuna, familia edota bikotekidea eta lagunak. Lanean ari direnek ikasleek

baino gehiagotan aipatzen dituzte lana, egoera ekonomikoa, gizartearen egoera orokorra, etxebizitza eta emantzipazioa.

Beste alde batetik, oso edo nahiko feminista direla diotenek gehiagotan aipatzen dituzte genero-berdintasuna eta matxismoa hain feminista edo batere feminista ez direla diotenek baino (% 42,0 vs % 18,6). Eta oso edo nahiko ekologista direla diotenek gehiagotan aipatzen dituzte ingurumena eta klima-aldaketa oso ekologista ez direla edo ez direla batere ekologista diotenek baino (% 30,5 eta % 11,6, hurrenez hurren).

4.3 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen kezka nagusiak 2020an (%)**



* Gazteek hiru arazo planteatu ahal zituzten gehienez espontaneoki. Gazteen % 3k baino gehiagok aipatutako arazoak baino ez dira aurkeztu.

4.3 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen kezka nagusiak 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta okupazio nagusiaren arabera (%)****Zeintzun dira zu zeu gehien kezkatzen zaituzten hiru arazoak?***

(Arazo bakoitza aipatu duten gazteen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Zeregin nagusia		
		Emakumeak	Gizonak	15-19	20-24	25-29	Ikasten	Lanean	Langabezian**
Lana	39,6	38,1	41,1	17,8	48,0	54,5	30,8	49,9	76,1
Berdintasuna, matxismoa	37,7	49,9	26,1	46,4	38,2	27,9	40,5	34,6	25,4
Etorkizuna	34,3	34,7	34,0	52,7	30,6	18,5	42,8	18,7	24,8
Osasuna	27,1	26,2	28,0	25,4	28,0	28,1	26,6	29,0	22,7
Klima-aldaketa, ingurumena	26,1	26,7	25,5	27,1	25,9	25,2	26,6	26,8	18,1
Ekonomia	18,1	14,7	21,3	11,7	21,3	21,7	16,2	22,9	12,7
Politika	14,5	12,0	16,9	11,5	14,5	17,6	14,4	15,4	12,0
Gizartea, oro har	10,1	7,9	12,3	8,2	11,0	11,4	9,0	13,2	6,5
Familia eta/edo bikotekidea	9,4	10,5	8,4	12,5	8,1	7,6	10,3	7,9	9,4
Etxebizitza	7,7	7,2	8,1	1,7	7,1	14,6	5,0	12,0	14,7
Lagunak	7,0	6,3	7,7	10,8	5,1	4,9	8,5	4,6	1,9
Emantzipazioa	3,9	4,9	3,0	1,5	5,6	4,8	3,3	5,0	5,5
Hezkuntza	3,7	4,1	3,4	2,5	3,7	5,0	3,8	3,7	3,6
Tolerantzia eta errespetua	3,4	3,3	3,4	3,0	2,0	5,0	2,8	4,0	5,6
Ustelkeria	2,8	3,4	2,1	1,3	3,6	3,5	2,9	2,3	5,1
Segurtasuna	2,5	4,0	1,2	3,7	2,0	1,9	2,9	1,6	4,3
Pobrezia	1,3	1,0	1,5	1,6	1,8	0,5	1,2	1,4	1,3
(n)	1.500	748	752	610	547	343	1.063	349	70

* Bat-bateko erantzunak, inolako aukerarik iradoki gabe. Taulan gazteen %1ek baino gehiagok aipatutako arazoak agertzen dira.

** Langabezian dauden gazteen erantzunak kontu handiz irakurri behar dira, oso langabe gutxi daudelako laginean eta bere erantzunak ez direlako estatistikoki adierazgarriak.

4.3.

Gazteen egoeraren balorazioa, oro har

15 eta 29 urte bitarteko pertsona gehienek ustez (% 64,2), gazteen egoera, oro har, hala moduzkoa zen 2020an, hau da, ona alderdi batzuetan eta txarra beste batzuetan. Gainerakoen artean, gehiago dira egoera txarra dela uste dutenak (% 21,0) ona dela uste dutenak baino (% 13,6).

Gazteriaren egoera orokorra ona dela uste dutenen ehunekoak behera egin du eta 2013ko mailetan kokatu da, baina, hala ere, 2020an gutxiago izan dira egoera txarra dela pentsatzen dutenak.


Aztertutako urteetan zehar, ikus daiteke gazteek balorazio hobea egiten dutela beren egoera pertsonalari buruz gazteen egoera orokorrari buruz baino. Beren egoera pertsonalarekin pozik

dauden ehunekoak gazteriaren egoera ona dela uste dutenen ehunekoekin alderatzen baditugu, alde oso handia dago.

Adinean gora egin ahala kritika gehiago egiten dira Euskadiko gazteen egoera orokorraren inguruan, hau da, behera egiten du egoera orokorra ona dela uste dutenen ehunekoak eta gora egiten du, aldiz, txarra dela uste dutenen ehunekoak.


Gizon gazteen jarrerak emakume gazteenak baino muturrekoagoak dira gazteriaren egoera baloratzen dutenean: gehiago dira egoera, oro har, ona dela uste dutenak, baina gehiago dira ere txarra dela uste dutenak.

4.4 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek gazteriaren egoera orokorrari buruz egindako balorazioaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

4.5 grafikoa. **Beren egoera pertsonalarekin pozik dauden eta gazteriaren egoera, oro har, ona dela uste dutenen ehunekoen bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

4.4 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek Euskadiko gazteriaren egoera orokorrari buruz egiten duten balorazioa, 2020an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Nolakoa da, zure ustez, gaur egungo gazteen egoera, oro har?

Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Ona	10,4	16,6	21,1	13,2	6,1
Hala moduzkoa, alde batzuetan ona eta besteetan txarra	70,2	58,6	68,5	62,3	61,4
Txarra	18,2	23,5	8,4	23,4	31,8
Ez dakizu edo ez duzu erantzun nahi	1,1	1,3	1,9	1,0	0,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547

4.4.

Erakundeak gazteriaren alorrean egiten ari diren lanaren balorazioa


Gazteek egindako balorazioetan arreta deitzen duen lehen datua da gazte gehienek uste dutela erakundeek ez dituztela aintzat hartzen gazteriaren iritziak. 15 eta 29 urte bitarteko hiru gaztetik batek (% 24,0) baino ez du uste erakundeek gazteen iritziak aintzat hartzen dituztela.

Erakundeek, oro har, gazteen iritziak aintzat hartzen ez dituztela uste duten

gazteak 2012ko eta 2016ko neurketetan ere agertu zen.

Adinean gora egin ahala areagotu egiten du ere eszeptizismoak, erakundeek gazteen iritziak kontuan hartzeari dagokionez. Gizon gazteak emakume gazteak baino eszeptikoagoak dira gai horretan.

4.6 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek erakundeek gazteriaren iritziak kontuan hartzeari dagokionez egiten duten balorazioaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

4.5 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek erakundeek gazteen iritziak kontuan hartzeari dagokionez egiten duten balorazioa, 2020an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Uste duzu instituzioek kontuan hartzen dituztela gazteen iritziak?

(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai	24,0	18,8	29,0	30,0	22,4	19,4
Ez	64,3	69,2	59,7	55,8	67,0	70,8
Ez dakizu edo ez duzu erantzun nahi	11,7	12,1	11,3	14,2	10,6	9,8
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1. 500	748	752	610	547	343

Hala ere, erakundeek gazteriaren arloan egiten duten lanari puntuazioa ematean, gazteek ontzat eman dute (hau da, 5etik gorako puntuazioa eman diete, 0-10 eskalan) udalek, aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak egindako lana. Zehazki, udalek 6,0 puntu lortu dituzte; aldundiek, 5,9, eta Eusko Jaurlaritzak, 6,0.

Zehaztu behar da gazte guztiek ez dutela iritzia eman arlo honetan. % 12,9k ez dute baloratu bere udalaren lana; % 28,8k ez dute iritzirik eman aldundiari buruz, eta % 21,8k ez dute inolako baloraziorik egin nahi izan Eusko Jaurlaritzak gazteriaren arloan egindako lanari buruz. Baina

balorazioa eman dutenek, batez beste, 6 punturen inguruan dauden kalifikazioak eman dituzte (gehieneko puntuazioa 10 zen). Kasu guztietan, kalifikaziorik onenak 20 urtetik beherako gazteek emandakoak izan dira. Beste alde batetik, Bizkaiko gazteak dira udalen, aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren lanari buruzko baloraziorik onena egin dutenak.


Balorazioen bilakaera aztertzen badugu, ikusten da erakunde publikoek gazteriaren arloan egindako lanak gero eta kalifikazio hobeak lortzen dituztela gazteen balorazioetan.

4.6 taula. **2020an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek udalek, aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak egindako lanari emandako kalifikazioak, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (0-10)**

Otik 10erako eskala batean, zeinean 0a oso txarra eta 10a oso ona baitiren, nola baloratzen duzu zure udalak gazteriaren arloan egiten duen lana? Eta zure Aldundiak gazteria arloan egiten duena? Eta Eusko Jaurlaritzak gai honetan egiten duena?

(Instituzio bakoitzari emandako 0 eta 10 arteko balorazioa)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Udalak	6,0	6,1	5,9	6,4	6,0	5,5	5,7	6,1	5,9
Foru aldundiak	5,9	6,0	5,7	6,4	5,9	5,4	5,7	6,0	5,7
Eusko Jaurlaritzak	6,0	6,2	5,9	6,6	6,0	5,5	5,8	6,2	5,9
(n)	1.500	748	752	610	547	343	399	601	500

4.7 grafikoa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteek erakundeek gazteriaren arloan egindako lanari buruz egindako balorazioaren bilakaera (0-10)



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

05.

Politika eta parte-hartze soziala

Politika kontzeptu zabala da, eta haren barruan sartzen da arlo publikoan eta komunitarioan egin den guztia, sozietateen antolaketa, botere-harremanak eta pertsonen eragiten dizkieten erabakiak hartzeko prozesuak.

Kapitulu honetan, batetik, politikarekiko interesa, aukera politikoak eta hauteskundeetako parte-hartzea aztertuko

ditugu, politika zentzurik klasikoenean hartuta, eta, bestetik, aldaketa sozialerako gogoia eta gai publikoetan parte hartzeko nahia, baita beste arlo batzuetako parte-hartze soziala ere: manifestazio edo mobilizazioetan, sare sozialetan, elkarteetan edo boluntario-lanetan. Gainera, kasu askotan, aurreko urteetako datuak ditugu eta jarretan izandako bilakaera aztertu ahal izango dugu.

5.1.

Politikarekiko jarrera

Gazteek politikarekiko duten jarrera aztertzeko, kontuan hartuko ditugu alderdi hauek: politikarekiko interesa, politikan duten oinarri-oinarrizko parte-hartzea (botoa ematea, adibidez) eta alderdi politikoekiko gertutasuna.

% 51,4k esan dute hori. 2020an gazteek aitortutako politikarekiko interesa handiena da serie osoaren barruan. Are gehiago; lehen aldiz, gehiago dira interesa duten gazteak interesik ez dutenak baino.

5.1.1.

Politikarekiko interesa


Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiak dio politikan interesa duela; zehazki,

Hazkunde horren arrazoietakoa bat izan daiteke Covid-19aren pandemiaren inguruan gobernuek hartu dituzten erabaki politikoekiko interesa, erabaki horiek gazteen eta ez hain gazteen bizitza publikoaren eta harreman sozialen arloko alderdi guztiei eragin baitiete.

Gainera, gazteek politikarekiko interes handiagoa dute 18 urtetik gorako biztanleen batezbestekoak baino. Alde hau 2016an ere aipatu zen. Orduan, eten egin zen aurreko joera, eta 2020an, sendotzeaz gainera, gazteen eta biztanle helduen batezbestekoaren arteko aldea handitu egin da. Biztanleria orokorraren datuak 2021ekoak dira.


Gazteek 2020an emandako erantzunetan zentratzen bagara, ikusten da gizon gazteek gai politikoekiko duten interesa emakume gazteena baino apur bat handiagoa dela. Halaber, 20 eta 29 urte bitarteko gazteek interes handiagoa dute 20 urtetik beherako gazteek baino.

5.1 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen politikarekiko interesaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko gazteak eta Gazteen argazkiak serieak.

5.2 grafikoa. **Politikan interes handia edo nahikoa duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren eta 18 urtetik gorako biztanleen batezbestekoaren bilakaera (%)**



* Biztanleria orokorraren datuak 2021ekoak dira.

Iturria: Euskadiko gazteak seriea eta Gazteen argazkiak seriea, gazteen datuetarako eta Lehendakariaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen ikerketetarako 18 urte eta gehiagoko biztanleriaren datuetarako.

5.1 taula. **15 eta 29 urteko gazteen politikarekiko interesa, 2020an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Oro har, zenbateko interesa duzu politikan?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Interes handia	15,5	12,8	18,2	10,2	16,5	20,2
Nahikoa interes	35,9	35,9	35,8	31,3	42,2	34,5
Interes gutxi	35,4	38,7	32,2	41,3	31,8	32,7
Batere interesik ez	12,1	11,2	12,9	15,9	8,8	11,4
Ez dakizu edo ez duzu erantzun nahi	1,1	1,4	0,9	1,3	0,8	1,2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343

5.1.2.

Hauteskundeetako parte-hartzea

Gazteek politikarekiko duten interes handi horrek hauteskundeetan parte-hartze handia izatea dakar. Botoa emateko legezko adina (hau da, 18 urte edo gehiago) duten gazteen % 85,7k esan dute gutxienez hauteskunde batzuetan botoa eman dutela azken hiru urteetan. % 6,7k baino ez dute aitortu abstenitu egin direla hala erabaki dutelako. Gainerakoek esan dute ezin izan zutela botorik eman (edozein arrazoi dela medio: adingabeak zirelako, gaixorik zeudelako, ez zeudelako erroldatuta...).

Azken hiru urteetan gutxienez behin botoa eman dutela baieztatu duten 18 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa handiagoa izan da 2020an (% 85,7) 2016an baino (% 70), baina gogoratu behar da, 2020an, inkestak egin ziren garaia bat egin zuela, zati batean, uztailan egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskondeekin³.

Logikoa denez, parte-hartze hori handiagoa izan da 20 eta 29 urte bitartekoen artean

³ 2020ko uztailako Eusko Legebiltzarrerako hauteskondeez gain, aurreko hiru urteetan 2019ko apirilko eta azaroko Diputatuen Kongresurako hauteskundeak eta 2019ko maiatzeko udal, foru eta Europako Parlamenturako hauteskundeak egin ziren (2017an eta 2018an ez zen inolako hauteskunde-deialdirik egin).

2016ko inkestaren kasuan, aipatzen ziren hauteskundeak (hau da, aurreko hiru urteetan egin zirenak) 2014ko maiatzeko Europako Parlamenturako hauteskundeak, 2015eko maiatzeko udal eta foru hauteskundeak eta 2015eko abenduako Diputatuen Kongresurako hauteskundeak ziren (2013an ez zen hauteskunderik izan eta 2016an hauteskundeak inkestaren ondorengoak izan ziren).


18 eta 19 urteko gazteen artean baino, hauteskunde batzuetan parte hartzeko aukera gutxiago izan baitute (hain zuzen ere, % 19,9k adierazi dute ez dutela inoiz botorik eman ezin izan dutelako).

Beste alde batetik, hauteskunderen batean botoa eman duten emakume gazteen

ehunekoa gizon gazteena baino apur bat handiagoa da.

Azkenik, politikan interes handia dutela edo nahiko interesatuta daudela esan dutenek gehiagotan parte hartu dute hauteskundeetan interes gutxi edo interesik ez dutela esan dutenek baino.

5.3 grafikoa. **18 eta 29 urte bitarteko gazteen hauteskundeetako parte-hartzearen bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

5.2 taula. **2020an, 18 eta 29 urte bitarteko gazteek azken hiru urteetan izandako hauteskundeetako parte-hartzea, sexuaren, adin-taldearen eta politikarekiko interesaren arabera (%)**

Azken hiru urteetan, eman al duzu zure botoa hauteskunderen batean?

(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Politikan interesa	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Handia + nahikoa	Gutxi + batere ez
Bai	85,7	87,2	84,3	71,6	90,4	86,9	91,2	79,0
Ez, ezin zenuelako	7,5	8,7	6,4	19,9	2,7	7,1	5,0	10,6
Ez, nahi ez zenuelako	6,6	4,0	9,1	8,5	6,5	5,9	3,8	10,0
Ed/Ee	0,2	0,2	0,2	0,0	0,4	0,0	0,0	0,4
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.142	594	548	252	547	343	631	499

5.1.3.

Norberaren ideietatik hurbilen dagoen alderdi politikoa

Botoa ematen duten ala ez eta botoa nori eman dioten alde batera utzita, gazteei galdetu zaie ea zein den, haien iritziz, haien ideietatik edo pentsamoldetik hurbilen dagoen alderdi politikoa.

Gazteen ustez beren ideietatik hurbilen dagoen alderdia Bildu da % 26,7ren kasuan. EAJ edo Podemos askoz gutxiago aipatu dira; zehazki, gazteen % 13,8k eta % 11,7k esan dute, hurrenez hurren, alderdi horien ideologia dela beren ideietatik hurbilen dagoena. Gainerako alderdiak aipatzen dituztenen ehunekoak oso txikiak dira.


Beste alde batetik, % 10,8k esan dute alderdi politiko batek ere ez dituela jasotzen beren ideiak

edo pentsamoldea, eta % 28,7k ez dakite edo ez dute erantzun.

Aurreko urteekin alderatuta, ikusten dugu bai Bilduren bai EAJren kasuan gora egin dutela ehunekoek; Podemos aipatzen dutenen ehunekoak, berriz, behera egin du, erdira, 2016ko neurketarekin alderatuta.

Nabarmenezkoa da ere, 2016a baino lehen erregistratutako datuen arabera haien ideietatik hurbil zegoen alderdirik ez zegoela ziotenen ehuneko handiekin alderatuta (2008an eta 2012an, gazteen erdiak esan zuen alderdi bat ere ez zegoela beren ideietatik gertu), 2016an eta 2020an hamar gaztetik batek baino ez duela hori esaten.

5.4 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketa, 2020an, beren iritziz haien ideietatik gertuen dagoen alderdi politikoaren arabera (%)**



5.3 taula. **15 eta 29 urteko gazteen ustez, haien pentsamoldetik gertuen dauden alderdi politikoen inguruko aipamenen bilakaera (%)**

Botoa eman duzun edota nori eman diozun albo batera utzita, zein alderdi politiko dago zure pentsaeratik gertuen?						
(%)	2000	2004	2008	2012	2016	2020
Bildu*	14,1	13,4	11,9	16,2	17,6	26,7
EAJ/PNV	11,8	8,2	5,4	4,8	3,9	13,8
Elkarrekin Podemos					19,9	11,7
PSE-EE	3,9	5,7	7,2	4,1	4,4	4,1
Ezker Batua	4,3	6,4	2,7	1,3	3,2	1,2
PP	2,3	0,8	1,2	1,0	1,3	0,8
Equo				0,7	0,0	0,7
Ciudadanos					0,8	0,2
Vox						0,1
Beste alderdi bat	0,8	1,4	1,9	1,3	1,2	1,3
Inolako alderdirik ez	37,8	42,6	50,3	53,1	10,6	10,8
Ed/Ee	25,1	21,4	19,3	17,4	37,2	28,7
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1.364	1.500	1.500	1.500	1.500	1.500

* Bilduren siglen barruan, Bildu sortu aurretik ezker abertzaleari lotuta egindako aipamenak jaso dira: HB, EH, Amaiur, Aralar, EA, Alternatiba, Batasuna edo Sortu.

Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

Bildu da talde guztietan gehien aipatutako alderdi politikoa, eta, bereziki, 20 eta 24 urte bitartekoen multzoan eta Gipuzkoan.

Gizonen artean, 25 urtetik behera duten eta Bizkaian edo Gipuzkoan bizi diren gazteen artean, gehien aipatutako bigarren alderdia EAJ da; emakumeen eta Araban bizi direnen artean, berriz, Podemos aipatu da EAJ baino

gehiago. 25 eta 29 urte bitarteko gazteei dagokienez, ehuneko berdinak dituzte EAJk eta Podemosek.

Beste alde batetik, 20 urtetik beherako gazteak dira galdera hau gehiagotan erantzun gabe utzi dutenak (% 37,7k erantzun dute ez dakitela, edo ez dute erantzun nahi izan), baita Araban bizi direnak ere (% 33,3).

5.4 taula. **2020an 15 eta 29 urte bitarteko gazteek beren pentsamoldetik gertukoagotzat jo duten alderdi politikoa, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%)**

Botoa eman duzun edota nori eman diozun albo batera utzita, zein alderdi politiko dago zure pentsaeratik gertuen?									
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Bildu	26,7	26,4	26,7	22,7	30,5	26,9	26,1	23,8	30,7
EAJ/PNV	13,8	12,1	15,4	11,9	16,6	13,1	6,3	17,1	12,2
Elkarrekin Podemos	11,7	14,0	9,6	10,4	11,7	13,1	14,9	11,7	10,2
PSE-EE / PSOE	4,1	4,8	3,4	3,3	4,3	4,7	2,3	3,4	5,8
Ezker Batua	1,2	1,6	0,9	0,8	0,6	2,2	1,3	1,3	1,0
PP	0,8	0,5	0,9	1,2	0,6	0,4	0,5	0,8	0,8
Equo	0,7	0,8	0,4	0,4	0,6	1,0	1,3	0,4	0,8
Ciudadanos	0,2	0,3	0,3	0,0	0,6	0,0	0,5	0,1	0,2
Vox	0,1	0,1	0,1	0,0	0,4	0,0	0,5	0,1	0,2
Beste alderdi bat	1,3	1,4	1,3	1,2	1,4	1,2	1,3	1,8	0,4
Inolako alderdirik ez	10,8	7,8	13,6	10,6	10,0	11,8	11,7	9,5	12,4
Ed/Ee	28,7	30,1	27,4	37,7	22,5	25,5	33,3	29,8	25,3
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343	399	601	500

5.2.

Partaidetza eta aldaketa soziala

Partaidetza soziala era askotan gauza daiteke eta lotuta egon daiteke (edo ez) gizarte-eredua aldatzeko nahiarekin. Horregatik, atal honetan gizartea aldatzeko gogoia eta gai publikoetan

parte hartzeko gogoia aztertuko ditugu, baita bide ezberdinetatik gauzatutako partaidetza soziala ere: grebak eta mobilizazioak, ziberaktibismoa, asoziazionismoa eta boluntariotza.

5.2.1.

Gizartea aldatzeko nahia

Gazteen erdiak baino gehiagok (% 57,8) uste du gure gizarteak aldaketa sakonak behar dituela. % 23,8k uste dute aldaketa txikiak eginda alda daitekeela, eta % 16,2k, ordea, uste dute aldaketa erradikala egin behar dela. % 0,9k baino ez dute uste gure gizartea ondo dagoela dagoen bezala.


Aurreko urteekin alderatuta, gora egin du gure gizarteak aldaketa sakonak behar dituela uste duten gazteen ehunekoak, eta behera egin du, berriz, dagoen bezala ondo dagoela uste dutenen ehunekoak.

Gizartean aldaketa sakonak eskatzen dituzten emakume gazteen ehunekoa handiagoa da gizon gazteena baino (% 61,6 vs % 54,2).

Adinak gora egin ahala gora egiten du gizarte-aldaketa sakonaren alde dauden gazteen kopuruak ere, eta gehiago dira gizartean aldaketa sozialak eskatzen dituzten eta gizartea errotik aldatu behar dela uste dutenak.

Politikan oso edo nahiko interesatuta daudela dioten gazteek politikan interes gutxi edo batere interesik ez dutenak baino gehiago eskatzen dituzte aldaketa sakonak, edo gizartea errotik aldatzeko.

5.5 grafikoa. **15-29 urteko gazteen gizarte-aldaketarako nahiaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

5.5 taula. **2020an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen gizarte-aldaketarako nahia, sexuaren, adin-taldearen eta politikarekiko interesaren arabera (%)**

Bizi garen gizarteari buruzko ondoko lau iritzietatik, zeinekin zatoz bat?								
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Politikarekiko interesa	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Handia + nahikoa	Gutxi + batere ez
Dagoen moduan ondo dago	0,9	0,5	1,3	1,2	0,4	1,2	0,5	1,5
Hobetu daiteke aldaketa txikiak eginez	23,8	20,0	27,4	30,2	24,7	16,1	15,9	32,3
Aldaketa edo erreforma sakonak behar ditu	57,8	61,6	54,2	54,6	58,2	61,0	62,2	53,2
Zeharo aldatu behar da	16,2	17,1	15,3	12,3	15,7	20,6	20,9	11,1
Ed/Ee	1,3	0,7	1,8	1,7	1,0	1,0	0,5	1,8
GUZTIAK	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343	766	718

5.2.2.

Gai publikoetan gehiago parte hartzeko nahia


Gazteen erdiak baino apur bat gehiagok (% 55,1) esan du modu aktiboagoan parte hartu nahi duela gai publikoetan. % 10,5ek uste dute nahiko parte hartzen dutela. Bestalde, lau gaztetik batek (% 26,4) aitortu du ez duela gai publikoetan parte hartu nahi.

Gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahiak gora egin du aurreko urteekin alderatuta, eta serieko baliorik altuena lortu du 2020an.

Emakumeek, 20 eta 24 urte bitarteko gazteek eta politikan interes handia edo nahikoa dutela diotenek gogo gehiago dute gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko.

Horrez gainera, aldaketa sozial sakonak edo erradikalak eskatzen dituztenek interes handiagoa dute gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko. Eta, gizarterako eskatzen den aldaketa-mailak gora egin ahala, areagotu egiten da gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahiak: gizartea aldaketa txikien bidez aldatu ahal dela uste dutenen % 42,4k modu aktiboagoan parte hartu nahi dute; ehuneko hori % 58,7 da gizarteak aldaketa sakonak behar dituztenen artean, eta % 63,9, gizarteak aldaketa erradikalak behar dituela uste dutenen artean.

5.6 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek gai publikoetan parte-hartze aktiboagoa izateko duten nahiaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

5.6 taula. **2020an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek gai publikoetan parte-hartze aktiboagoa izateko duten nahia, sexuaren, adin-taldearen eta politikarekiko interesaren arabera (%)**

Gustatuko litzaizuke gai publikoetan gehiago edo modu aktiboagoan parte hartzea?								
Guztira (%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Politikarekiko interesa	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Handia + nahikoa	Gutxi + batere ez
Bai, nahiko zenuke	55,1	60,3	50,2	50,5	62,4	52,7	69,6	39,8
Uste duzu nahikoa parte hartzen duzula	10,5	10,0	11,0	11,9	8,2	11,2	10,5	10,1
Ez litzaizuke gustatuko	26,4	21,8	30,7	26,3	22,4	30,5	14,9	39,3
Ed/Ee	8,0	7,9	8,0	11,3	6,9	5,5	5,0	10,8
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343	766	718

5.2.3.

Greben eta mobilizazioen arloko parte-hartzea

Aldaketa sozialen eskaera eta parte-hartzea neurtzeko moduetako bat da kuantifikatzea ea zenbatek parte hartu duten halako gaiak erreklamatzeko edo defendatzeko mobilizazioetan (grebak, mobilizazioak, etab.). Galdera inkestaren aurreko urteari buruzkoa da eta gai garrantzitsua da, inkesta egin aurreko hilabeteetan etxeko konfinamendua ezarri baitzen.

Gazte gehienek baieztatu dute mobilizatu egin direla, greba eginez edo manifestazio edo mobilizazioen batean parte hartuz, 2019ko eta 2020 uden artean (zehazki, % 68,1ek esan dute).

Gehiago zehazteko, gazteen % 58,4k esan dute mobilizazio feministaren batean, emakumearen egunekoan edo genero-indarkeriaren aurkako batean parte hartu dutela. % 29,3k mobilizazio ekologistaren batean, klimaren aldeko batean edo klima-aldaketaren kontrako batean parte hartu dute. % 26,9k arrazismoaren kontrako edo immigranteen edo errefuxiatuen aldeko manifestazio edo mobilizazioetan parte hartu dute, eta % 26,8k greba egin dute edo manifestazio edo mobilizazioetan parte hartu dute enpleguaren alde eta laneko ezegonkortasunaren kontra. Gainera, hiru gaztetik batek (% 34,9) beste era bateko greba edo mobilizazioetan parte hartu du, hala nola politikoetan, ikasleenetan, etab.

Oro har, emakume gazteek gizon gazteek baino modu aktiboagoan parte hartu dute greba eta mobilizazioetan. Ez dago ia alderik enpleguaren


aldeko mobilizazioen edo zehaztu gabeko beste batzuen (politikoak, ikasleenak...) kasuan, baina badaude aldeak mobilizazio ekologisten, arrazismoaren kontrako eta, bereziki, mobilizazio feministen edo genero-indarkeriaren kontrako mobilizazioen kasuan, zeinetan lau emakume gaztetik hiruk parte hartu baitute.

25 urtetik beherako gazteek mobilizazioetan izan duten parte-hartze orokorraren ehunekoak ere handiagoa da. Alde horren azalpena da multzo horrek gehiago parte hartu duela mobilizazio feministetan eta ikasleen mobilizazioei dagokien multzoan. Bestalde, 15 eta 19 urte bitarteko multzoa da gehien mobilizatu dena klimaren alde, eta gutxien mobilizatu dena enpleguaren alde.

Politikarekiko interes handia edo nahiko interesa duten gazteek gehiago parte hartu dute mobilizazio mota guztietan politikarekiko interes gutxi edo batere interesik ez dutenek baino.

Aldaketa sozial handiagoa izateko nahiak gora egin ahala, gora egiten du, halaber, mobilizazioetan parte hartu dutela dioten gazteen ehunekoak.

Horrez gainera, gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi dutela diotenek eta parte-hartze nahikoa dutela uste dutenek mobilizazioetan duten parte-hartzearen ehunekoak handiagoak dira gai publikoetan parte hartzeko gogorik ez dutela diotenek ehunekoak baino.

5.7 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen parte-hartzea mobilizazioetan, azken urtean, 2020ko datuen arabera (%)**5.7 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek azken urtean mobilizazioetan izandako parte-hartzea, sexuaren, adin-taldearen eta politikarekiko interesaren arabera. 2020 (%)**

Azken urtean egin duzu grebarik edo parte hartu duzu ondoko aldarrikapenak zituzten manifestazioetan edo mobilizazioetan?

(Mobilizazio mota bakoitzean parte hartu dutenen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Politikarekiko interesa	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Handia + nahikoa	Gutxi + batere ez
Feminista? Emakumeen eguna dela eta? Edo emakumeen kontrako biolentziaren aurka?	58,4	73,4	44,2	63,1	61,4	50,1	69,3	46,6
Ekologia edo klimaren alde edo klima-aldaketaren kontrako neurriak hartzearen alde?	29,3	35,3	23,5	40,8	25,3	21,2	36,2	21,7
Arrazismoaren kontra edota etorkin edo errefuxiatuen alde?	26,9	31,8	22,2	27,3	28,2	25,2	37,3	15,5
Lanaren alde eta lan-prekarietatearen kontra?	26,8	26,5	27,1	18,3	29,9	32,9	37,6	15,0
Beste motatako greba edo manifestazioetan, hala nola, politikoak, ikasleak eta abar?	34,9	35,1	34,8	41,3	40,7	22,2	46,5	22,0
EDOZEIN MOBILIZAZIOTAN PARTE HARTU DUTE	68,1	78,3	58,4	72,5	70,7	60,7	79,2	55,9
(n)	1.500	748	752	610	547	343	766	718

5.8 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek azken urtean mobilizazioetan izandako parte-hartzea, gizartea aldatzeko nahiaren eta gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahiaren arabera. 2020 (%)**

Azken urtean egin duzu grebarik edo parte hartu duzu ondoko aldarrikapenak zituzten manifestazioetan edo mobilizazioetan?

(Mobilizazio mota bakoitzean parte hartu dutenen %)	Guztira	Gizartearentzat nahi den aldaketa mota*			Gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahia		
		Aldaketa txikiak	Erreforma sakonak	Aldaketa erradikalak	Bai	Nahikoa parte hartzen du jada	Ez
Feminista? Emakumeen eguna dela eta? Edo emakumeen kontrako biolentziaren aurka?	58,4	43,4	62,3	70,7	68,3	68,6	37,3
Ekologia edo klimaren alde edo klima-aldaketaren kontrako neurriak hartzearen alde?	29,3	20,6	29,3	44,3	35,0	36,2	16,7
Arazismoaren kontra edota etorkin edo errefuxiatuen alde?	26,9	15,2	29,3	38,6	33,7	37,8	11,6
Lanaren alde eta lan-prekarietatearen kontra?	26,8	13,2	29,2	41,4	32,2	37,7	14,9
Beste motatako greba edo manifestazioetan, hala nola, politikoak, ikasleenak eta abar?	34,9	24,7	36,7	46,3	41,8	39,6	20,8
EDOZEIN MOBILIZAZIOTAN PARTE HARTU DUTE	68,1	55,6	71,1	80,9	77,2	76,4	49,7
(n)	1.500	350	881	235	844	156	375

* Gizartea dagoen moduan ondo dagoela uste dutenen datuak ez dira aurkezten, oso lagun gutxiak uste dutelako hori eta, ondorioz, beren iritzia ez dira estatistikoki esanguratsuak.

5.2.4. Ziberaktibismoa

«Ziberaktibismoa» esaten diogu Interneten edo sare sozialetan eztabaida edo salaketa sozialetan parte hartzeari, eztabaida horiei hasiera emanez edo sustatuz.

Euskadiko 30 urtetik beherako gazteen % 38,3k esan dute eztabaida edo salaketa sozialen bat hasi edo sustatu duela Interneten, sare sozialen edo WhatsApp bidez, bai testuren bat idatziz bai irudi edo bideo bat zabalduz.

Emakumeek gizonak baino eztabaida edo salaketa sozial gehiago sustatzen dituzte Interneten edo sare sozialen bidez. 20 eta 24 urte bitartekoen multzoa beste adin-taldeak baino «ziberaktibistagoa» da. Datu hori ez da berria, 2018an jada detektatu baitzen ziberaktibismo gehiago emakumeen eta 20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, baina 2020an parte-hartze eta salaketa sozialerako aukera horrek nabarmen gora egin du multzo guztietan.


Horrez gainera, politikarekiko interesa duten pertsonen ziberaktibitate gehiago dute politikan interesik ez dutenek baino.

Gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi dutela diotenek eta parte-hartze nahikoa dutela uste dutenek ere

ziberaktibismo gehiago dute gai publikoetan parte hartzeko interesik ez dutenek baino.


Azkenik, gizartean nahi den aldaketaren graduak gora egin ahala, gora egiten du ziberaktibismoaren bidezko parte-hartze sozialaren mailak ere.

5.8 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen ziberaktibismoaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**



2018ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak eta sare sozialak)

5.9 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen ziberaktibismoa azken urtean, politikarekiko interesaren, nahi duten gizarte-aldaketaren eta gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahiaren arabera. 2020 (%)**



5.2.5.

Asoziazionismoa

Asoziazionismoa eremu plurala da, helburu oso ezberdinak dituzten errealitate ugari hartzen ditu, zeinak ezinbestekoak baitira gizarte demokratikoetan.

2021ean, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 43,9 elkarteren batean parte hartzen zuten. Asoziazionismo-tasa deritzoguna da. Ehuneko hori serieko handienetako bat da, baina apur bat behera egin du 2016ko neurketetatik.

Euskadiko gazteak kirol-klubetako edo menditaldeetako kide dira batez ere. % 21,9 halako elkarteren batean daude gaur egun. % 25,3 halako elkarteren batean izan dira lehenago, baina orain ez dira kide, eta gainerako % 52,8a ez dira inoiz izan kirol- edo mendi-elkarte bateko kide.

Horrez gainera, gazteen % 10,9 aisialdiko elkarteren bateko (lagunarteak, konpartsak, blusak...) edo elkarte gastronomiko bateko (txokoak edo sozietateak) kide dira; % 10,7 gazte-elkarteren edo aisialdiko elkarteren bateko kide dira; % 10,4 elkarte kultural edo artistikoren batean daude edo musika-talderen bateko kide dira, eta % 11,4 beste elkarteren batean daude (politikoa, sindikala, profesionala, ikasleena, ekologista, feminista, giza eskubideena, etab.), hau da, gizarte zibilarekin, profesionalarekin eta aldaketa sozialarekin lotutako elkarteetan daude.

Gizonen asoziazionismoa emakumeena baino handiagoa da. Alde horren azalpena da gazteek gehien aukeratutako elkarteak kirolarekin edo mendiarekin lotutakoak direla, eta elkarte horietan ohikoagoa da gizonen parte-hartzea.

Adin-taldeen arabera, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen ia erdia (% 48,9, zehazki)


elkarteren bateko kide zen 2021ean, baina asoziazionismoaren ehunekoak behera egiten du adinak gora egin ahala, eta % 41,5ekoa da 20 eta 24 bitartekoen artean, eta % 40,9koa, 25 eta 29 urte bitartekoen artean. 15 eta 19 urte bitartekoen multzoan elkarteetako kide direnen ehunekoa handiagoa izatea azaldu ahal da adin horretan ohikoago delako kirol-elkarte eta -klubetako kide izatea, baita multzo gazteenak gehiago parte hartzen duelako gazte-elkarteetan edo aisialdiko elkarteetan. Aitzitik, 15 eta 19 urte bitartekoen multzoan txikiagoa da dibertimenduzko talde edo elkarte profesional edo ideologikoetan daudenen ehunekoa.

Aisialdiko elkartetzat jotzen ez baditugu ere eta asoziazionismo-tasa deritzogun indizearen sorreran parte hartzen ez badute ere, merezi du aztertzea zer mailatan diren gazteak lonja edo gazte-lokaletako kide.

2021ean, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 5,7k adierazi zuten halako lokal bateko kide zirela, eta % 23,9k esan zuten lehenago kide izandakoak zirela baina jada ez zirela. Izan ere, pandemiak eragin handia izan du halako lokaletan, itxita egon baitira urte luze batez. Datu horiek aurreko urteetan erregistratutakoekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu pandemiak eragindako itxierak kidetzaren ehunekoak nabarmen behera egitea ekarri duela. 2012an eta 2016an, gazteen % 20 inguruk esan zuten lonja edo lokal bateko kide zirela; 2021ean, berriz, % 5,7k baino ez.


Lonja bateko kide izatea ohikoagoa da gizonen artean emakumeen artean baino, eta 25 urtetik beherakoen artean adin horretatik gorakoen artean baino.

5.10 grafikoa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen asoziazionismo-tasaren bilakaera (%)



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

5.11 grafikoa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteek 2021ean elkarte mota ezberdinetan zuten kide-tza-maila (%)



5.9 taula. **2021ean elkarteren bateko kide ziren 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Orain adierazi ondoko elkarte edo erakunderen bateko kide edo partaide zaren						
(Gaur egun, elkarte mota bakoitzeko kide direnen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Kirol-elkarteak edo mendi taldeak	21,9	17,3	26,4	30,7	18,1	16,2
Dibertimenduzko taldeak (peñak, konpartsak, blusak, txokoak edo elkarte gastronomikoak...)	10,9	10,4	11,4	9,2	11,9	11,6
Gazteen elkarteak edo aisialdiko taldeak	10,7	11,3	10,1	14,9	11,0	5,8
Elkarte kultural edo artistikoak edo musika taldeak	10,4	10,3	10,6	10,9	10,2	10,2
Beste motatako elkarteak (politikoak, sindikalak, profesionalak, ikasleenak, ekologistak, feministak, giza-eskubideen ingurukoak eta abar)	11,4	11,9	10,9	10,1	10,5	13,7
ASOZIAZIONISMO-TASA	43,9	40,9	46,8	48,9	41,5	40,9
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

5.10 taula. **Gazteen lonja edo lokaletako kide diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kopuruaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Gaur egun lonja edo lokal bateko kide zara?						
(Baiezko erantzunen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
2021	5,7	4,3	7,2	5,7	7,3	4,2
2016	20,3	11,9	28,3	28,0	23,9	10,9
2012	19,5	14,7	23,9	24,9	25,8	10,7

Iturria: Euskadiko gazteak seriea eta Gazteen lonjak eta lokalak EAEn (Gazteen Euskal Behatokia, 2012)

5.2.6.

Boluntarioria


Boluntarioria gizarte zibiletik modu egituratuan edo ez hain egituratuan sortutako ekimen altruista da. Ez da fenomeno berria, baina errealitatearen gainean jarduteko duen ahalmena herritarren inplikazioaren eta parte-hartzearen eredu izugarria izan zen konfinatuta egondako hilabeteetan. Itxialdiaren lehenengo asteetan, etxetik irteteko murrizketa zorrotzenak ezarri zirenean, ekimen ugari sortu ziren, antolatuak eta/edo espontaneoak, zailtasun gehiago zituztenei laguntza emateko, eta ekimen horietako askotan gazteak egon ziren inplikaturia.

Konfinamendua pasatuta, gazteei galdetu zaie ea zer parte-hartze izan duten boluntario-lanetan. % 11,5ek erantzun dute gaur egun boluntario-lanak egiten dituztela. 2016ko ia ehuneko bera da. Baina lehenago egin dutela esan dutenen ehunekoa aztertzen badugu, 2021eko ehunekoa aurreko urteetakoa baino nabarmen handiagoa da. Ondorioztatu ahal dugu, beraz, boluntario-lanen arloko bilakaera oso positiboa izan dela.

Gaur egun boluntario-lanak egiten dituztela diotenen ehunekoa aztertuz gero, ikusten dugu ehunekoa apur bat handiagoa dela emakumeen artean (% 12,3) gizonen artean baino (% 10,7). 20 eta 24 urte bitarteko gazteak dira ehuneko handiena dutena (% 14,9). 15 eta 19 urte bitarteko gazteen multzoan, gaur egun % 10,2k egiten dituzte boluntario-lanak; 25 eta 29 urte bitarteko gazteek, berriz, ehuneko txikiena dute (% 9,5) bost urteko hiru taldeen barruan.


Boluntario-lanak egiten dituztenen artean, jardun-eremu nagusia hurrekin eta gazteekin lotutakoa da, gaur egun boluntario-lanetan dihardutenen % 39,0 arlo horretan ari baitira. % 15,5ek pobretasuna desagerrarazteko lotutako jardueretan, garapenerako lankidetzan edo immigrantei edo errefuxiatuei laguntza emateko jardueretan garatzen ditu boluntario-lanak. Gaur egun boluntario-lanak egiten dituztenen % 10 baino ez dira boluntario lanak beste arlo batzuetan egiten dituztenak.

5.12 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek boluntario-lanetan izan duten parte-hartzearen bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

5.13 grafikoa. **Gaur egun boluntario-lanak egiten dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, sexuaren eta adin-taldearen arabera. 2021 (%)**



5.14 grafikoa. **2021ean, proposatutako arlo bakoitzean boluntario-lanak egiten dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, gaur egun boluntario-lanak egiten dituzten gazte guztiekin alderatuta (%)**



Beste boluntario-lan bat da fisikoki lekuz aldatzea dakarrena da, hau da, atzerrian garapenerako boluntario- edo kooperazio-lanak egitea edo auzolandegietan parte hartzea.

Hamar gaztetik batek (% 10,2) adierazi du bere bizitzan gutxienez behin izan dela atzerrian boluntario-lanak eta garapenerako kooperazio-lanak egiten edo auzolandegietan parte hartzen. Ehuneko hori duela lau urte erregistratutakoaren (% 4,6) bikoitza da.

Adinak gora egin ahala gora egiten du ere atzerrian boluntario-lanetan izandako

esperientziak, eta logikoa da, adinak gora egin ahala gora egiten baitu bizi-esperientziarako aukerak.

Politikarekiko interesa duten eta gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi duten gazteek, manifestazio edo mobilizazioen parte hartu dutenek eta ziberaktibistek gehiagotan egin dituzte boluntario-lanak atzerrian gainerakoek baino.

Aitzitik, ez dago alde garrantzitsurik sexuaren edo gizartean egin nahi den aldaketa motaren arabera.

5.11 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen parte-hartzea atzerriko boluntario-lanetan, 2021ean, sexuaren, adin-taldearen, politikarekiko interesaren, gizarte-aldaketarako nahiaren, gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahiaren, mobilizazioetako parte-hartzearen eta ziberaktibismoaren arabera (%)**

Zu joan al zara inoiz atzerrira boluntario edo garapenerako lankide gisa lan egiteko edo auzolandegietan parte hartzeko? (talde bakoitzean baiezko erantzuna eman dutenen %)		
Guztira		10,2
Sexua	Emakumeak	10,5
	Gizonak	9,9
Adin-taldeak	15-19 urte	6,3
	20-24 urte	10,8
	25-29 urte	13,7
Politikan interesa	Handia + nahikoa	12,8
	Gutxi + batere ez	7,6
Nahi izandako gizarte-aldaketa*	Aldaketa txikiak	8,6
	Erreforma sakonak	11,1
	Aldaketa erradikalak	10,3
Gai publikoetan gehiago parte hartzeko nahia	Bai	13,6
	Nahikoa parte hartzen dute jada	9,6
	Ez	5,5
Mobilizazioetan parte hartzea	Bai	12,1
	Ez	6,2
Ziberaktibismoa	Bai	14,4
	Ez	7,7

* Gizartea dagoen moduan ondo dagoela uste dutenen datuak ez dira aurkezten, oso lagun gutxiak uste dutelako hori eta, ondorioz, beren iritzia ez dira estatistikoki esanguratsuak.

06.

Balio eta jarrera sozialak

Gazteen sinesmen, balio eta jarrera sozialei buruzko gai ugari jasotzen dituen kapitulu zabala da hau. Zehazki, Euskadiko gazteek feminismoari, ekologismoari, erlijioari, immigrazioari, tolerantziari, sexualitateari,

indarkeria matxistari... buruz pentsatzen dutena aztertuko da.

Kasu askotan, aurreko urteetako datuak ditugu eta jarreretan izandako bilakaera aztertu ahal izango dugu.

6.1.

Feminismoa eta genero-berdintasuna

Euskadiko hamar gaztetik lauk (% 42,3) feministatzat dute euren burua, eta, emakumeen kasuan, erdia baino gehiagok (% 52,3) dio oso feministak direla. Nahiko feministak direla diotenak kontuan hartzen baditugu, gazte gehienak, emakumeak zein gizonak, feminista sentitzen dira. Hala ere, ehunekoa handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (emakume gazteen % 90,5 eta gizonen % 76,8).

Horrez gainera, 20 eta 24 urte bitarteko gazteen multzoan handiagoa da feministatzat jotzen direnen ehunekoa. Emakumeak eta gizonak adin-

taldeen arabera banakatzen baditugu, kasu bietan 20 eta 24 urte bitarteko multzoa da feministena.

Politikan oso edo nahiko interesatuta dauden pertsonen, aldaketa sozial sakonak edo gizartearen aldaketa erradikala nahi dutenen, gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi dutenen edo parte-hartze nahiko dutela uste dutenen eta eztabaida sozial bat hasi edo sustatu dutenen artean, euren burua feministatzat dutenen ehunekoa batezbestekoaren gainetik dago.

6.1 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen feminismo-maila, 2020an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Zein neurritan esango zenuke feminista zarela?									
(%)	Guztira	Emakumeak				Gizonak			
		Emakumeak, guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Gizonak, guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Oso feminista	42,3	53,2	50,7	58,3	50,5	32,1	25,0	40,1	31,6
Nahiko feminista	41,1	37,3	38,8	32,8	40,2	44,7	47,4	42,0	44,7
Ez oso feminista	8,0	6,1	7,0	7,1	4,1	9,7	14,2	6,9	7,8
Batere feminista ez	3,7	1,5	0,7	0,7	3,2	5,8	5,8	3,8	8,0
Ed/Ee	4,9	1,9	2,8	1,1	2,0	7,7	7,6	7,3	7,9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	295	284	169	752	315	263	174

6.2 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen feminismo-maila, 2020an, politikarekiko interesaren, gizartea aldatzeko nahiaren, gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahiaren eta ziberaktibismoaren arabera (%)**

Zein neurritan esango zenuke feminista zarela?											
(%)	Guztira	Politikan interesa		Nahi izandako gizarte-aldaketa*			Gai publikoetan gehiago parte hartzeko nahia			Ziberaktibismoa	
		Handia + nahikoa	Gutxi + batere ez	Aldaketa txikiak	Erreforma sakonak	Aldaketa erradikalak	Bai	Nahikoa jada	Ez	Bai	Ez
Oso	42,3	54,0	29,8	25,5	45,4	59,8	49,0	47,3	27,2	55,0	34,4
Nahiko	41,1	38,9	43,3	47,3	42,8	27,7	40,4	38,4	43,8	36,7	44,0
Ez oso	8,0	3,5	13,0	13,9	6,2	4,6	6,0	5,5	12,4	4,2	10,2
Batere ez	3,8	1,7	6,1	6,8	1,6	5,7	2,2	4,0	6,6	2,3	4,7
Ed/Ee	4,9	1,9	7,8	6,4	4,0	2,2	2,3	4,9	10,0	1,8	6,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	766	718	350	881	235	844	156	375	569	917

* Gizartea dagoen moduan ondo dagoela uste dutenen datuak ez dira aurkezten, oso lagun gutxik uste dutelako hori eta, ondorioz, beren iritzia ez dira estatistikoki esanguratsuak..

Emakumeak baino ez baditugu kontuan hartzen, lotura nabarmena dago parte-hartze sozialaren eta sentimendu feministaren artean. Izan ere, politikarekiko interesa duten, gizartean aldaketa sakonak edo erradikalak eskatzen dituzten, gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi duten eta Interneten edo sare sozialetan eztabaida sozialak sustatzen dituzten emakumeek sentimendu feminista gehiago dute politikarekiko interes gutxi duten, gizartean aldaketa txikiak nahi dituzten, parte hartu nahi ez duten eta ziberaktiboak ez diren emakumeek baino.

5.2.3 apartatua adierazi dugun moduan, gazteen % 58,4k diote mobilizazio feministaren batean, emakumearen egunekoan edo genero-indarkeriaren aurkako batean parte hartu dutela. Emakumeen kasuan ehuneko hori % 73,4 da, eta gizon gazteen artean, berriz, % 44,2.

Emakumeek mobilizazio feministetan (grebak, manifestazioak, etab.), emakumeen aldeko mobilizazioetan, Emakumearen Egunean (martxoaren

8a) mobilizazioetan edo genero-indarkeriaren aurkakoetan izan duten parte-hartzea ez da berdina kasu guztietan. Adinak behera egin ahala, gero eta gehiago dira halako mobilizazioetan parte hartu dutenak. Hala, 15 eta 19 urte bitarteko emakumeen artean, % 80,8 da partaidetza-ehunekoa.

Mobilizazio feministetan izandako parte-hartzeari dagokionez, gehiago parte hartu dute politikarekiko interesa duten, gizartean aldaketa sakonak edo erradikalak nahi dituzten, gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi duten eta Interneten edo sare sozialetan eztabaida edo salaketa sozialak sustatzen dituzten emakumeek.

Politikarekiko interes oso handia edo handia duten, gizartean aldaketa erradikalak nahi dituzten, gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi duten eta Interneten edo sare sozialetan eztabaida sozialak sustatu dituzten gizon gazteen erdiak baino gehiagok parte hartu du mobilizazio feministaren batean azken urtean.

6.3 taula. 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen feminismo-maila, 2020an, politikarekiko interesaren, gizartea aldatzeko nahiaren, gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahiaren eta ziberaktibismoaren arabera (%)

Zein neurritan esango zenuke feminista zarela?

(%)	Emakumeak, guztira	Politikan interesa		Nahi izandako gizarte-aldaketa*			Gai publikoetan gehiago parte hartzeko nahia*		Ziberaktibismoa	
		Handia + nahikoa	Gutxi + batere ez	Aldaketa txikiak	Erreforma sakonak	Aldaketa erradikalak	Sí	No	Sí	No
Oso + nahikoa feminista	90,5	97,3	83,7	81,6	92,5	94,4	93,6	78,0	95,6	86,4
Ez oso + batere feminista ez	7,6	2,2	13,0	15,9	5,3	5,6	5,2	16,8	3,2	11,0
Ed/Ee	1,9	0,5	3,2	2,5	2,3	0,0	1,1	5,3	1,2	2,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	748	370	368	139	476	122	461	151	330	414

* Gizartea dagoen moduan ondo dagoela uste duten emakumeen datuak, ezta gai publikoetan jada nahikoa parte hartzen dutela uste dutenenak ere, ez dira aurkeztzen, oso lagun gutxiak uste dutelako hori eta, ondorioz, beren iritziak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

6.4 taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen parte-hartzea mobilizazio feministetan, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Azken urtean egin duzu grebarik edo parte hartu duzu manifestazio edo mobilizazio feministetan? Edo Emakumeen Eguna dela eta? Edo emakumeen kontrako indarkeriaren aurka?									
Guztira	Emakumeak	Emakumeak				Gizonak			
		Emakumeak, guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Gizonak, guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai	58,4	73,5	80,8	75,0	64,2	44,2	47,0	48,7	36,5
Ez	40,8	26,4	19,2	24,4	35,8	54,4	52,0	50,6	60,9
Ed/Ee	0,8	0,2	0,0	0,5	0,0	1,4	1,0	0,7	2,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	295	284	169	752	315	263	174

6.5 taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteek azken urtean mobilizazio feministetan izandako parte-hartzea, sexuaren aldagaia politikarekiko interesaren, gizartea aldatzeko nahiaren, gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahiaren eta ziberaktibismoaren aldagaiekin gurutzatuta (%)

Azken urtean egin duzu grebarik edo parte hartu duzu manifestazio edo mobilizazio feministetan? Edo Emakumeen Eguna dela eta? Edo emakumeen kontrako indarkeriaren aurka?										
(baiezko erantzunen %)	Guztira	Politikan interesa		Nahi izandako gizarte-aldaketa*			Gai publikoetan gehiago parte hartzeko nahia		Ziberaktibismoa	
		Handia + nahikoa	Gutxi + batere ez	Aldaketa txikiak	Erreforma sakonak	Aldaketa erradikalak	Bai	Ez	Bai	Ez
Emakumeak	73,5	86,0	61,3	59,4	75,1	84,6	81,2	49,9	84,2	65,3
(n)	748	370	368	139	476	122	461	151	330	414
Gizonak	44,2	55,0	31,0	32,2	48,5	56,0	53,5	28,9	67,1	32,3
(n)	752	396	350	211	405	113	383	224	239	503

* Gizartea dagoen moduan ondo dagoela uste duten emakumeen datuak, ezta gai publikoetan jada nahikoa parte hartzen dutela uste dutenenak ere, ez dira aurkezten, oso lagun gutxiak uste dutelako hori eta, ondorioz, beren iritziak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Bestalde, gehien eragiten dizkieten arazoei buruz galdetuta, gazteen % 37,7k, modu espontaneoan, genero-indarkeria eta matxismoa aipatu dituzte⁴. Emakumeen kasuan, % 49,9k aipatu zituzten (gizonen kasuan, berriz, % 26,1ek), eta 2020an emakume gazteek gehien aipatutako arazoa da.

25 urtetik beherako emakumeak dira gehien aipatu dutenak desberdintasunaren arazoa. Gizon gazteek gehiagotan aipatu dute arazo hori adinak behera egin ahala. Datu horrek argi uzten du belaunaldi gazteek kezka handiagoa dutela gai honen inguruan.

Egunerokoan genero-berdintasunaren (edo desberdintasunaren) inguruan dagoen ikuspegia aztertzeko, gazteei galdetu zaie ea uste duten, prestakuntza eta esperientzia berbera izanda, emakumeek eta gizonak lanerako aukera berdinak dituzten⁵. Zehazki, hipotesi hau planteatu da: hautapen-prozesu batean parte hartzea haien ikasketekin eta prestakuntzarekin lotutako lanpostu baterako, prestakuntza eta esperientzia bera duen adin bereko beste sexuko pertsona batekin.

Emakume gehienek (% 55,3) uste dute sexuak ez lukeela eraginik izango kontratatu beharreko pertsonaren aukeran, baina hiru emakumetik batek (% 33,6) uste du bere lehiakide maskulinoak aukera gehiago izango

lituzkeela kontratatua izateko gizona izateagatik. Eta % 5,5ek uste dute lanpostua lortzeko aukera gehiago izango lituzketela emakumea izateagatik.

Gizonen artean, lanpostua lortzeko aukera gehiago dituztela uste dutenen ehunekoa (% 13,8) emakumeak emakume izateagatik aukera gehiago izango lituzkeela uste dutenen ehunekoaren (% 6,7) bikoitza da.

Sexua dela-eta lana lortzeko desberdintasunak daudela eta desberdintasun horiek emakumeen kalterako direla uste dutenen ehunekoa handiagoa da 25 urtetik beherako emakumeen artean.

Gizonen kasuan, adinak gora egin ahala gora egiten du ere desberdintasunak daudela ikusten dutenen kopuruak; desberdintasun hori kasu batzuetan emakumeen kalterako dela uste dute, eta beste batzuetan, emakumeen onerako.

Prestakuntza eta esperientzia berberak izanda, lanpostu bat lortzeko, gizonak emakumeak baino aukera gehiago dituztela uste duten emakumeen ehunekoak gora egin du azken urteetan, eta 2020an balio maximoa lortu da seriearen barruan.

Gizon gazteen kasuan, aldiz, behera egin du eurek aukera gehiago dituztela uste dutenen ehunekoak eta gora egin du hautagaien lanerako aukeretan sexuak eraginik ez duela uste dutenen ehunekoak.

6.6 taula. **Genero-berdintasuna eta matxismoa arazo nagusi gisa aipatu duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, sexuaren eta adin-taldearen aldagaiak gurutzatuta (%)**

Zeintzuk dira zu zeu gehien kezkatzen zaituzten hiru arazoak? *									
Guztira	Emakumeak	Emakumeak, 15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Gizonak, guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	(n)
Berdintasuna, matxismoa	37,7	49,9	59,3	52,5	37,5	26,1	34,2	24,8	18,5
(n)	1.500	748	295	284	169	752	315	263	174

* Bat-bateko erantzunak.

⁴ Arazo aipatuena, oro har, lana izan zen (gazteen % 39,6k adierazi zuen), eta genero-berdintasuna eta matxismoa bigarren postuan kokatu ziren gazteen kezken zerrendan.

⁵ Alderdi hori 2. kapituluaz aztertu da hedadura handiagoarekin, baina egokia da puntu honetan gogoratzea.

6.7 taula. **15 eta 29 urte bitarteko emakumeek eta gizonak lanerako aukera-berdintasunaren inguruan duten ikuspegia, 2020an, sexuaren eta adin-taldearen aldagaiak gurutzatuta (%)**

Zure ikasketa eta prestakuntzari dagokion lan baterako hautaketa prozesu batean bazeunde, eta zure adin, prestakuntza eta esperientzia berbera dituen lehiakidea mutila/neska baltiz, uste duzu lanpostua lortzeko berak aukera gehiago lituzkeela mutila/neska delako, zuk aukera gehiago zenituzkeela mutila/neska zarelako edo neska ala mutila izateak ez lukeela inolako eraginik?*

(%)	Emakumeak				Gizonak			
	Emakumeak, guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Gizonak, guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Mutilak lituzke aukera gehiago	33,6	33,3	38,6	28,8	13,8	9,8	15,0	17,2
Neskak lituzke aukera gehiago	5,5	3,6	5,6	7,5	6,7	4,6	6,5	9,2
Neska edo mutila izateak ez luke inolako eraginik	55,3	54,3	51,5	60,1	72,4	78,7	70,7	67,9
Ed/Ee	5,6	8,8	4,2	3,6	7,0	6,9	7,8	5,8
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	748	295	284	169	752	315	263	174

* Pertsona bakoitzari planteatu zitzaion bere aurkaria kontrako sexukoa zela.

6.8 taula. **15 eta 29 urte bitarteko emakumeek eta gizonak lanerako aukera-berdintasunaren inguruan duten ikuspegiaren bilakaera (%)**

Zure ikasketa eta prestakuntzari dagokion lan baterako hautaketa prozesu batean bazeunde, eta zure adin, prestakuntza eta esperientzia berbera dituen lehiakidea mutila/neska baltiz, uste duzu lanpostua lortzeko berak aukera gehiago lituzkeela mutila/neska delako, zuk aukera gehiago zenituzkeela mutila/neska zarelako edo neska ala mutila izateak ez lukeela inolako eraginik? *

(%)	Emakumeak				Gizonak			
	2008	2012	2016	2020	2008	2012	2016	2020
Mutilak lituzke aukera gehiago	23,3	28,1	27,6	33,6	23,2	19,1	21,2	13,8
Neskak lituzke aukera gehiago	9,3	8,9	8,3	5,5	5,9	8,5	9,7	6,7
Neska edo mutila izateak ez luke inolako eraginik	60,3	57,0	58,4	55,3	63,5	64,4	63,0	72,4
Ed/Ee	7,1	6,0	5,7	5,6	7,5	8,0	6,1	7,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	750	750	750	748	750	750	750	752

* Pertsona bakoitzari planteatu zitzaion bere aurkaria kontrako sexukoa zela.


6.2.

Ekologismoa eta jasangarritasuna

Euskadiko lau gaztetik batek (% 76,9) uste du oso edo nahiko ekologista dela. Beren burua ekologistatzat duten emakume gazteen kopurua apur bat handiagoa da gizon gazteena baino,

baina aldea txikia da. Beste alde batetik, euren burua ekologistatzat duten 20 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa handiagoa da 15 eta 19 urte bitarteko gazteena baino.

6.1 grafikoa. 2020an euren burua oso edo nahiko ekologistatzat duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



6.9 taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ekologismo-maila, 2020an, politikarekiko interesaren, gizartea aldatzeko nahiaren, gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahiaren eta ziberaktibismoaren arabera (%)

Zein neurritan uste duzu ekologista zarela?

(%)	Guztira	Politikan interesa		Nahi izandako gizarte-aldaketa*			Gai publikoetan gehiago parte hartzeko nahia			Ziberaktibismoa	
		Handia + nahikoa	Gutxi + batere ez	Aldaketa txikiak	Erreforma sakonak	Aldaketa erradikalak	Bai	Nahikoa jada	Ez	Bai	Ez
Oso ekologista	26,9	34,7	18,3	18,6	27,7	38,8	29,7	35,0	20,0	35,6	21,5
Nahiko ekologista	50,0	53,7	45,8	48,9	53,7	40,1	52,6	45,9	45,9	48,1	51,0
Ez oso ekologista	17,0	9,2	25,7	22,9	15,0	14,5	13,7	13,8	23,7	13,3	19,4
Batere ekologista ez	3,4	1,4	5,6	5,6	1,8	4,7	2,4	2,9	5,6	1,5	4,7
Ed/Ee	2,7	0,9	4,6	4,0	1,8	2,0	1,6	2,4	4,9	1,5	3,3
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	766	718	350	881	235	844	156	375	569	917

* Gizartea dagoen moduan ondo dagoela uste dutenen datuak ez dira aurkezten, oso lagun gutxiak uste dutelako hori eta, ondorioz, beren iritziak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Horrez gainera, gizartearekiko konpromiso handiagoa duten gazteek, hau da, politikarekiko interesa dutenek, gure gizartean aldaketa sakonak edo erradikalak nahi dituztenek, gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi dutenek edo parte-hartze nahikoa dutela uste dutenek eta azken urtean Interneten edo sare sozialetan eztabaida edo salaketa sozialen bat hasi edo sustatu dutenek gehiagotan jotzen dute beren burua ekologizatzen konpromiso sozial hori ez dutenek baino.

Hala ere, gutxiengoa dira (% 29,3) aurreko urtean mobilizazio ekologistaren batean, klimaren aldeko edo klima-aldaketaren kontrako mobilizazioen batean parte hartu dutenak. Aipatu behar da erreferentziako urtean, zehazki 2019ko irailaren 27an, klimaren aldeko greba bat egin zela, eta, «Fridays for Future» plataformak klima-aldaketari aurre egiteko neurriak aldarrikatzeko mundu mailan antolatutako mobilizazioen barruan, manifestazioak egin zirela hiri askotan.


Emakume gazteek gizon gazteek baino gehiagotan parte hartu dute aurreko urtean greba, manifestazio edo bestelako mobilizazio ekologistetan edo klimaren aldekoetan (% 35,3 eta % 23,5, hurrenez

hurren). 15 eta 19 urte bitarteko gazteak dira mobilizazio ekologistetan edo klima-aldaketaren kontrakoetan gehien parte hartu dutenak (% 40,8; 20 eta 24 urte bitartekoen kasuan, % 25,3, eta 25 eta 29 urte bitartekoen kasuan, % 21,2).

Berriro egiaztatzen da halako mobilizazioetan gehiagotan parte hartu dutela gizartean parte hartzeko konpromiso eta gogo handiagoa duten gazteek, hau da, politikarekiko interesa dutenek, gure gizartean aldaketa sakonak edo erradikalak nahi dituztenek, gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi dutenek edo parte-hartze nahikoa dutela uste dutenek eta azken urtean Interneten edo sare sozialetan eztabaida edo salaketa sozialen bat hasi edo sustatu dutenak.

Gainera, zenbat eta atxikimendu handiagoa izan ekologismoarekin, handiagoa da parte-hartzea mobilizazio ekologistetan edo klimaren aldekoetan: oso ekologista direla uste dutenen % 41,6k halako mobilizazioen batean parte hartu dute; ehunekoak % 28,6ra egiten du behera nahiko ekologista direla uste dutenen artean, eta % 16,5era, oso ekologistak ez direnen edo batere ekologistak ez direnen artean.

6.2 grafikoa. 2020an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek azken urtean mobilizazio ekologistetan izandako parte-hartzea, politikarekiko interesaren, gizartea aldatzeko nahiaren, gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahiaren eta ziberaktibismoaren arabera (%)



Jasangarritasuna aztertzeko orduan, gazteen ohituretan eragina duten bi alderdi hartuko ditugu kontuan: kontsumoa eta mugikortasuna. Hau da, aztertuko dugu ea gazteek modu jasangarrian kontsumitzeko eta mugitzeko ohitura duten.


«Kontsumo jasangarria» terminoak garapen jasangarria terminoa du jatorri. Rio de Janeiron egindako Lurraren Goi-bileraren (1992) emaitza den Nazio Batuen Konferentziaren Txosteneko 8. printzipioak garapen eta kontsumo jasangarriaren arteko lotura jasotzen du: «Garapen jasangarria lortzeko eta pertsona guztien bizi-kalitate hobetzeko, estatuak jasangarriak ez diren ekoizpen eta kontsumoan oinarrituriko ereduak murriztu eta desagerrarazi behar dituzte, baita politika demografiko egokiak sustatu ere»⁶.

Argi dago banakako kontsumitzaileek funtsezko zeregina dutela eta, horregatik, ikerketak kontsumo jasangarrian, erabaki indibidualekin

lotutako horretan zentratzeko ahalegina egin du. Gero eta pertsona gehiago dira kontsumoaren arloan hartzen dituzten erabakien garrantziaz jabetzen direnak, eta gero eta gehiago dira ingurumenari lotutako gaiekin kezkatuta daudenak. Gazteei dagokienez, agerikoa dirudi gazteek sustatu eta lideratutako Fridays for Future⁷ bezalako mugimenduek onarpen handia dutela eta horrek erakusten du zenbaterainokoa den jasangarritasunarekin lotutako gaiekiko sentsibiltatea.

Kontsumo jasangarria aztertzeko, ikerketa honetan bost ohitura hauek hartu dira kontuan: erosketak egiteko, norberaren poltsa edo orga eramatea; gutxi ontziratutako edo paketatutako produktuak erosten saiatzea; etxeko zarama hondakin motaren arabera bereiztea; uraren kontsumoa murrizten saiatzea, eta, azkenik, garraio publikoa edo kolektiboa erabiltzea edo autoa partekatzea.

6.3 grafikoa. **2021ean, kontsumo jasangarriarekin lotutako bost portaeren maiztasuna, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kasuan (%)**



⁶ Nazio Batuen Erakundea (1992): Rioko Adierazpena Ingurumenari eta Garapenari buruz (8. printzipioa) [linean] Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/garapen_iraunkorra/eu_def/adjuntos/Rio.pdf

⁷ Fridays for future: <https://fridaysforfuture.org/>

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 82,5ek birziklatzen dute, hau da, etxeko zarama hondakin motaren arabera bereizten dute, eta ehuneko horrek islatzen du ikertutako bost ohituretatik gehien zabaldutakoa dela. Norberaren poltsa edo orga eramatea da kontsumo jasangarriaren arloko bigarren ohiturarik ohikoena Euskadiko gazteen artean: elkarriketatuta direnen % 70,0k baieztatu dute normalean hala egiten dutela. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 65,7k garraio publiko kolektiboa erabiltzen dute edo autoa partekatzen dute normalean. % 59,0 uraren kontsumoa murrizten ahalegintzen dira. Azkenik, bosgarren postuan dago gutxi ontziratutako edo paketatutako produktuak erosteko ohitura. Egia esan, asmoetatik harago joanda, nahikoa da edozein supermerkatutara joatea ikusteko zein zaila den ohitura hori gauzatzea. Beraz, normala da jokabide horretarako ohitura dutenen ehunekoa (% 36,2) aztertutako beste itemetan baino txikiagoa izatea.

Hurrengo taulan agerikoa denez, alde esanguratsuak daude elkarriketatuta diren pertsonen sexuaren eta adinaren arabera. Sexuaren araberako alderik handienak erosketekin eta garraio publiko kolektiboaren erabilerarekin lotutakoak dira: ohitura horiek zabalduago daude emakumeen artean. Adinak gora egin ahala gora egiten dute ere ikerketa honetan neurtutako kontsumo jasangarriaren arloko portaerak (erosteko bestelako ohiturak, birziklatzea, uraren kontsumoa edo autoen erabilera) egiteko ohitura dutenen ehunekoak. Inguruabar hori lotuta egon daiteke, adinak gora egitearekin batera, familiaren etxearekiko emantzipazioak gora egitearekin. Eta, egoera horretan, gehiagotan hartzen da etxeko erosketen ardura; seguruena areagotu egiten

da uraren inguruko sentsibilizazioa, eta ulertzen da ez dela xahutu ahal den baliabide mugagabea eta, gainera, kostu bat duela, eta, halaber, ohikoagoa da ibilgailu pribatu bat izatea jabetzan.

Euskadiko gazteek kontsumo jasangarriaren arloko jardunbide horiek egiteko maiztasuna bizi diren lurralde historikoaren arabera aztertzen badugu, deigarriak dira ezberdintasun batzuk.

Lehenik eta behin, hondakin mota ezberdinak bereizita jasotzeko edukiontzien sare oso homogeneoa izan arren Euskadiko hiru lurralde historikoetan, ohitura hori ohikoagoa da Gipuzkoan bizi diren gazteen % 92,1ean, baina Bizkaian % 76,0 baino ez da ohitura hori duten gazteen ehunekoa. Tarteko balioan kokatzen dira Arabako gazteak: % 82,2. Egiturazko arrazoirik ez dagoenez, alde horien azalpen bakarra izan daiteke gai horren inguruko sentsibilizazioa ezberdina dela.

Bigarren alde nagusiaren azalpena, ordea, badira egiturazko arrazoiak, eta garraio publiko kolektiboa erabiltzeko eta autoa partekatzeko ohituran ematen da alde hori. Bizkaiko gazteak dira ohitura hori gehien dutenak, % 70,2k baieztatu baitute normalean hala egiten dutela, Euskadiko biztanle-nukleo handiena (Bilboaldea) duen lurraldea duelako, baita Euskadin biztanle gehien dituzten lekuak lotzen dituen Bilboko metro-zerbitzua duelako ere. Arabarekiko eta Gipuzkoarekiko aldea esanguratsua bada ere, ohitura hori ohikoa da beste bi lurralde historikoetan ere: % 61,4, Araban, eta % 60,9, Gipuzkoan.

Beste hiru itemetan dauden aldeak ez dira esanguratsuak.

6.10 taula. **2021ean, kontsumo jasangarriarekin lotutako bost portaeren maiztasuna, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren, adin-taldearen eta bizi diren lurralde historikoaren arabera (%)**

Kontsumo ohiturei dagokienez, zenbatetan egiten duzu ondoko bakoitza?									
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Etxeko zaborrak hondakin-motaren arabera banatzen dituzu, hau da, organikoa, plastikoa, papera eta abar?									
Sarritan	82,5	84,4	80,6	78,7	84,9	84,0	82,2	76,0	92,1
Batzuetan bakarrik	11,5	10,3	12,4	13,0	10,9	10,3	11,9	14,7	6,5
Inoiz ez edo ia inoiz ez	6,1	5,3	7,0	8,3	4,2	5,6	5,9	9,3	1,5
Zure poltsa edo orga eramaten duzu erosketak egiterakoan?									
Sarritan	70,0	76,6	63,5	57,0	74,2	79,7	68,2	68,9	72,6
Batzuetan bakarrik	19,2	16,3	22,1	22,4	18,5	16,3	18,8	20,4	17,5
Inoiz ez edo ia inoiz ez	10,8	7,1	14,4	20,5	7,2	4,0	13,0	10,7	9,9
Garraio publiko edo kolektiboa erabiltzen duzu, edota kotxea beste batzuekin batera erabiltzen duzu, partekatzen duzu?									
Sarritan	65,7	71,3	60,3	74,9	68,6	53,1	61,4	70,2	60,9
Batzuetan bakarrik	24,8	21,1	28,5	20,1	22,3	32,3	25,9	21,9	28,6
Inoiz ez edo ia inoiz ez	9,5	7,6	11,2	5,0	9,1	14,6	12,7	7,8	10,5
Uraren kontsumoa murrizten saiatzen zara?									
Sarritan	59,0	60,4	57,6	51,7	59,1	66,8	57,1	59,0	59,8
Batzuetan bakarrik	34,1	3,5	34,7	40,7	34,2	27,0	36,6	33,7	33,6
Inoiz ez edo ia inoiz ez	6,9	6,2	7,7	7,6	6,8	6,3	6,3	7,3	6,6
Gutxi paketatutako produktuak erosten saiatzen zara?									
Sarritan	36,2	40,0	32,2	30,2	36,7	42,0	36,3	34,5	38,6
Batzuetan bakarrik	48,8	48,9	48,9	50,9	49,7	45,7	44,4	50,8	47,8
Inoiz ez edo ia inoiz ez	15,0	11,1	18,9	18,9	13,6	12,3	19,3	14,7	13,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893	420	1.199	781

Beste alde batetik, 2012. eta 2021. urteen arteko bilakaera positiboa izan da aztertu ditugun bost itemetan, baina ez da berdina izan guztietan.

Bilakaerarik positiboenak 2021ean baliorik altuenak izan dituzten bi itemek izan dituzte, hau da, etxeko zarama hondakin motaren arabera bereizteko

ohiturak eta erosketetara norberaren poltsa edo orga eramatearenak. 2012tik 2021era bitartean, etxeko zarama bereiztea % 63,7k egindako ohitura izatetik 2021ean % 82,5ek egindako izatera pasatu da. Erosketak eramateko, norberaren poltsa edo orga erabiltzeko ohitura, berriz, % 41,9tik 2021eko % 70,0era pasatu da. Askok areagotu da ere

gutxi ontziratutako edo paketatutako produktuak erosteko ahalegina, eta bikoiztu egin da 2012an ohitura hori zutela ziotenen ehunekoa (% 18,7), eta 2021ean % 36,2ra iritsi da.

Garraio publiko kolektiboa erabiltzeko eta/edo autoa partekatzeke eta uraren kontsumoa murrizteko ohiturak ere ohikoagoak bihurtu dira Euskadiko

gazteen artean, baina aldea txikiagoa da. Ikerketa honetan aztertutako bost portaeretatik lau normalean egiten dituztenen kopuruak kontuan hartuta, kontsumo jasangarriaren indizea kalkulatu dugu. Metodologia hori aplikatuta, esan dezakegu Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 41,8k kontsumo jasangarriaren arloko jardunbideak dituztela normalean.

6.11 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen kasuan, kontsumo jasangarriarekin lotutako bost portaeren maiztasunaren bilakaera (%)**

Kontsumo ohiturei dagokienez, zenbatetan egiten duzu ondoko bakoitza?			
	2012	2016	2021
Etxeke zaborrak hondakin-motaren arabera banatzen dituzu, hau da, organikoa, plastikoa, papera eta abar?			
Sarritan (%)	63,7	63,5	82,5
Batzuetan bakarrik	14,6	14,3	11,5
Inoiz ez edo ia inoiz ez	20,5	21,6	6,1
Zure poltsa edo orga eramaten duzu erosketak egiterakoan?			
Sarritan	41,9	53,8	70,0
Batzuetan bakarrik	25,2	17,0	19,2
Inoiz ez edo ia inoiz ez	30,8	27,1	10,8
Garraio publiko edo kolektiboa erabiltzen duzu, edota kotxea beste batzuekin batera erabiltzen duzu, partekatzen duzu?			
Sarritan	57,2	58,9	65,7
Batzuetan bakarrik	21,2	17,5	24,8
Inoiz ez edo ia inoiz ez	20,2	22,5	9,5
Uraren kontsumoa murrizten saiatzen zara?			
Sarritan	54,1	60,7	59,0
Batzuetan bakarrik	24,0	18,2	34,1
Inoiz ez edo ia inoiz ez	20,3	20,4	6,9
Gutxi paketatutako produktuak erosten saiatzen zara?			
Sarritan	18,7	23,4	36,2
Batzuetan bakarrik	28,1	20,7	48,8
Inoiz ez edo ia inoiz ez	47,4	52,3	15,0
GUZTIRA	100	100	100
(n)	1.500	1.500	2.495

Iturria: Euskadiko Gazteak seriea


Itemak banan-banan aztertu ditugunean ikusi dugunez, esan dezakegu ohitura jasangarriak ohikoagoak direla emakume gazteen artean gizon gazteen artean baino, eta ohikoagoak direla elkarriketatutako pertsonen adinak gora egin ahala. Kontsumo jasangarriaren indizeari dagokionez, emakumeen artean % 47,8 da; gizon gazteen artean, berriz, % 35,7. Alde oso esanguratsua da, zalantzarik gabe.

Adinari dagokionez, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean, kontsumo jasangarriaren indizea % 35,6 da; 20 eta 24 urte bitartekoen artean, % 44,4, eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean, % 45,7. Dirudienez, adinez nagusiagoak direnen artean erosteko ohiturak ohikoagoak izatea dago alde horien atzean.


Lurralde historikoei dagokionez, kontsumo jasangarriaren indizearik altuena Gipuzkoan erregistratu da (% 43,4); gero, Araban (% 41,9), eta, azkenik, Bizkaian (% 40,7).

Gazteen Euskal Behatokiak kalkulaturako kontsumo jasangarriaren indizearen bilakaera oso nabarmena izan da indize hori aztertu zen lehen urtean (2012) erregistratutako baliotik (% 21,4) 2021ean kalkulaturakora (% 41,8). Bilakaera positiboa izan da aztertutako bost ohituretan, baina bereziki nabarmendu da birziklatzeko ohituran, erosketetarako norberaren poltsa edo orga erabiltzeko ohituran eta dendetan erositako produktuen gehiegizko paketatzearen inguruko sentsibilizazioan.


6.4 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketa, 2021ean izan duten kontsumo jasangarriaren arabera (%)**



6.5 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen kontsumo jasangarriaren indizea, 2021ean, sexuaren, adin-taldearen eta bizi diren lurralde historikoaren arabera (%)**



6.6 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen kontsumo jasangarriaren indizearen bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

Mugikortasun jasangarriari dagokionez, halakotzat jotzen da erregai fosilak erabiltzen dituzten eta atmosferara CO₂ isurtzen duten ibilgailu pribatu motordunen erabilera ahalik eta gehien murriztea.

Ikerketa honetan, ohiko joan-etorrietan, oinez, bizikletaz edo garraio publiko kolektiboa erabilita egiten diren joan-etorriak aztertu dira.

2021ean, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 71,9k esan dute oinez egiten dituztela ohiko joan-etorriak; % 23,8k esan dute egunero edo ia egunero bizikletaz egiten dituztela, eta % 59,3k baieztatu dute egunero edo ia egunero erabiltzen dutela garraio publiko kolektiboa (autobusa, trena, metroa, tranbia...). Garraio-bide horiek ez dira baztertzailak, gazteek mugitzeko aukera bat baino gehiago baliatzen baitituzte egunero. Guztira, Euskadiko gazteen % 86,9k esan dute modu jasangarriaren batean mugitzen direla egunero edo ia egunero.

Egunero edo ia egunero modu jasangarriaren batean (oinetz, bizikletaz edo garraio publikoan) mugitzen direla diotenak kontuan hartuta, ikusten dugu modu jasangarriagoan mugitzen direla emakumeak eta 20 urtetik beherakoak. Are gehiago; adinak gora egin ahala behera egiten du egunero modu jasangarrian mugitzen diren gazteen ehunekoak, nahiz eta oraindik gehiengoak izaten jarraitu.

Hala ere, erabilitako bitartekoen arabera, aldeak daude talde horien artean. Nahiz eta emakume gazteak modu jasangarriagoan mugitu, hala da gizon gazteek baino gehiago erabiltzen dutelako garraio publikoa eta gehiago mugitzen direlako oinez. Bizikleta, berriz, gizonek baino gutxiago erabiltzen dute.

Lurralde historikoen arteko aldeei dagokienaz, nabarmentzekoa da oinezko joan-etorriak antzeko mailetan daudela Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Hala ere, kontsumo jasangarria aztertu dugunean esan dugun bezala, Bizkaian erabiltzen da gehien garraio publikoa: lurralde horretan elkarriketatutako pertsonen % 66,8k adierazi dute ia egunero erabiltzen dutela garraio publikoa. Gipuzkoan, berriz, % 52,8 dira; eta Araban, % 48,9.

Bizikletaz egindako joan-etorrietan, berriz, Araba nabarmentzen da bereziki, lurralde horretako 15 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiak (% 51,1) baitio egunero edo ia egunero bizikletaz mugitzen dela. Ehuneko hori Gipuzkoan erregistratutakoaren (% 25,5) bikoitza da, eta Bizkaian erregistratutakoaren (% 14,6) hirukoitza baino gehiago.

Egunero edo ia egunero bizikleta erabiltzen duten gazteen ehunekoak nabarmen gora egin du aurreko urteekin alderatuta. Hazkunde hori lotuta egon daiteke udalerri askotan maileguan utzitako bizikleten (elektrikoak batzuk) parkea handitu izanarekin, baita bidegorrien edo bizikletak erabiltzeko egokitutako erreien luzera handitu izanarekin.

Halaber, nabarmen gora egin du garraio publiko kolektiboa egunero edo ia egunero erabiltzen dutenen ehunekoak. Hazkunde hori lotuta egon daiteke zeharka ibilgailu pribatua gutxiago erabiltzea eragiten duten egoerekin: erregaien

prezioen garestitzea, aparkatzeko arazoak eta aparkalekuen kostua, eta udalerri batzuetan ezarritako abiadura-mugak.

Baina behera egin du oinez egindako joan-etorrien kopuruak. Hala ere, aztertu egin beharko litzateke oinezko mugikortasunaren beherakada hori mugikortasun jasangarriaren beste modalitate batzuekin (bizikleta, patinetea edo garraio publikoa) ordezkatu delako gertatu den ala ez.


Oro har, oinezko mugikortasunean izandako beherakada kenduta, agerikoa da mugikortasun jasangarriaren aukerak erabiltzeko goranzko joera.

6.12 taula. **Egunero edo ia egunero modu jasangarriaren batean mugitzen diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, 2021ean, sexuaren, adin-taldearen eta bizi diren lurralde historikoaren arabera (%)**

Zure ohiko joan-etorrietan (ikastera, lanera...) zenbateraino mugitzen zara...

(aukera bakoitzari dagokion baiezeko erantzunen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oinez	71,9	75,5	68,3	76,7	73,0	65,8	74,5	72,5	70,0
Garraio publiko kolektiboz (autobusez, trenez, metroz, tranbiaz)	59,3	61,7	56,9	62,7	64,8	50,3	48,9	66,8	52,8
Bizikletaz	23,8	17,1	30,3	25,3	21,1	24,9	51,1	14,6	25,5
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893	420	1.199	781

6.7 grafikoa. **Egunero edo ia egunero proposatutako aukera jasangarrietako batean mugitzen diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

6.3. Erlijiozaletasuna

Gero eta agerikoagoa da Euskadiko gazteak fede katolikotik urruntzen ari direla, *Euskadiko gazteak* bildumaren edizio ezberdinek erakutsi duten moduan. Baina ez da soilik gazteengan ematen ari den kontu bat. Orokorrean, Euskadiko gizartea gero eta sinesgabeagoa da, eta kasu askotan belaunaldi berriak ez dira hezten erlijio-sinesmen edo -errituetan. Horren adibide bat da eskola publikoetan erlijioa irakastea ez izatea derrigorrezkoa, eta gero eta guraso gutxiagok hautatzea aukera hori beren seme-alabentzako. Mezara joateko ohiturak ere behera egin du, eta elizak erlijio-ospakizun jakin batzuetan (ezkontzak, hiletak...) baino ez dira betetzen; katekesi-eskoletan gero eta ume gutxiago daude; jaunartze-sakramentu ez da hain orokortua, etab. Aurreko guztia gazteen erlijioarekiko atxikimenduan islatzen da. Edonola ere, ezin da nahastu gazteek balio etikorik ez izatearekin.


2020an, gazteen erdiak baino gehiagok (% 54,7) adierazi du ez dela fededuna edo atea dela. Talde horri gehitzen badizkiogu gaiak ez diela axola edo

agnostikoak direla dioten gazteak (% 14,9), ikusten dugu Euskadiko hamar gaztetik zazpi (% 69,6) ez direla inolako erlijioaren jarraitzaile.

Bestalde, katoliko praktikante direla (% 2,9) eta ez-praktikante direla (% 18,0) dioten gazteen ehunekoa serieko txikiena da, eta argi uzten du gazteen erlijio-atxikimenduak izandako beherakada nabarmena.

Datu horiek Euskadiko 30 urteko eta hortik gorako biztanleen datuekin alderatzen baditugu, ikusten da fededunak ez direla edo erlijioak ez diela axola dioten gazteen ehunekoa beste adin-talde batzuetan erregistratutakoa baino handiagoa dela; beren burua katolikotzat —praktikante edo ez— dutenen kopurua, berriz, askoz txikiagoa da gazteen artean Euskadiko gainerako biztanleen artean baino. Izan ere, adinak behera egin ahala behera egiten du ere beren burua katolikotzat duten pertsonen ehunekoak, eta gora egiten du fededunak ez direla dioten ehunekoak.

6.8 grafikoa. **Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen erlijio-atxikimendua 2020an (%)**




Fededunak ez diren edo erlijioak axola ez dien gazteen ehunekoak goranzko joera etengabea izan du azken 20 urteetan, baina nabarmena da 2016. eta 2020. urteen artean izan duen gorakada. Beren burua katolikotzat duten gazteen kasuan, ordea, joera kontrakoa izan da, eta duela 20 urte gazteek erlijio-atxikimenduaren arabera zuten banaketa erabat aldatu da.

2020an, aurreko urteetan bezala, emakume gazteek gizon gazteek baino ehuneko apur bat handiagoak izan dituzte katolikotzat (praktikanteak edo ez) jotzen direnei dagokienez, eta ehuneko apur bat txikiagoak dituzte ateismoan edo agnostizismoan.


Adinaren arabera desberdintasun handiena 20 urtetik gorako eta beheko gazteen artean

6.9 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen eta Euskadiko 30 urtetik gorako biztanleen erlijio-atxikimenduaren alderaketa, 2020an, adin-talde handien arabera (%)**



30 urteko eta gehiagoko biztanleen datu-iturria:
Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2021)

6.10 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen erlijio-atxikimenduaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

dago. 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean, gutxiago dira agnostiko direla edo erlijioak ez diela axola diotenak, eta gehiago dira ateo direla diotenak.

Eskoletan erlijioa irakastearen inguruan gazteek duten iritzari dagokionez, apur bat gehiago dira kontra dauden gazteak (% 46,4) alde daudenak baino (% 38,0). Gainerako % 15,6ak ez du bere jarrera zehaztu, edo berdin zaio.

Ez dago alde handirik gizon eta emakume gazteen artean, eta, kasu bietan, gehiago dira eskoletan erlijioa irakastearen kontra daudenak irakasgai horren alde daudenak baino. Badaude aldeak, berriz, adinaren arabera. 15 eta 19 urte bitarteko pertsonen artean, apur bat

gehiago dira eskoletan erlijioa irakastearen alde daudenak kontra daudenak baino; eta, adinak gora egin ahala, gora egiten du eskoletan erlijioa irakastearen kontra dauden pertsonen ehunekoak. Erlijiozaletasun-mailaren arabera jarrerari dagokionez, beren burua katolikotzat (praktikante edo ez) duten gazteen artean, gehienak eskolan erlijioa irakastearen alde daude; ateo edo agnostiko direnen artean, berriz, gehiengoa dira aukera horren aurka daudenak.

Eskoletan erlijioa irakastearen alde dauden gazteen ehunekoa gutxiengoa bada ere, kopuru horrek gora egin du 2016ko datuekin alderatuta, eta 2012ko mailetara itzuli da.

6.13 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen erlijio-atxikipena, 2020an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**


Erlijio gaietan nola definitzen duzu zeure burua?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Katoliko praktikantea	2,9	3,3	2,5	2,7	3,9	2,0
Katoliko ez praktikantea	18,0	19,2	16,9	18,1	15,1	20,8
Beste erlijio batekoa	1,2	2,1	0,4	0,6	1,4	1,6
Jainkoarengan sinestuna, ez erlijioetan	4,1	4,8	3,4	4,0	4,1	4,1
Interesik gabea, agnostikoa	14,9	12,3	17,3	9,8	18,0	17,3
Ez sinestuna, atea	54,8	53,4	56,1	60,0	53,7	50,2
Ed/Ee	4,2	4,9	3,5	4,8	3,9	3,9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343

6.14 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek eskoletan erlijioa irakasteari dagokionez duten jarrera, 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta erlijio-atxikimenduaren arabera (%)**

Zu zeu ikastetxeetan erlijioa irakastearen alde ala kontra zaude?								
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Erlijio gaietan nola definitzen duten beraien burua*	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Katolikoak	Ateoak edo agnostikoak
Alde	38,0	37,4	38,6	45,3	39,5	28,8	59,9	30,2
Kontra	46,4	44,5	48,2	38,0	45,8	55,9	25,9	54,9
Ed/Ee	15,6	18,1	13,2	16,7	14,7	15,3	14,2	14,9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343	299	1.060

* Laginean pertsona gutxi daudenez, ez dira sartzen beste erlijio batzuetan edo Jainkoan baina ez erlijioetan sinesten dutela dioten pertsonak.

6.11 grafikoa. **Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek eskoletan erlijioa irakasteari buruz duten iritzia bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

6.4. Tolerantzia ideologikoa

Ikerketa honetan, pertsona batek bereak ez diren iritzia, ideiak edo balioak dituzten beste pertsona batzuekin egotean sentitzen duen deserosotasuna hartu dugu oinarritzat tolerantzia ideologikoa neurtzeko.

Postulatu hori kontuan hartuta, gazteen % 4,7k adierazi dute oso deseroso daudela bestelako ideiak, sinesmenak edo ideiak dituzten pertsonekin daudenean. % 20,2k baieztatu dute nahiko deseroso daudela, eta, beraz, esan dezakegu, oro har, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen laurdena deseroso dagoela beste ideologia bateko pertsonekin (zehazki, % 24,9).

Emakume gazteak gizon gazteak baino deserosoago sentitzen dira bestelako sinesmen edo balio batzuk dituztenekin (% 30,3 eta % 19,8, hurrenez hurren). Hipotesi hau bota genezake: emakumeak intoleranteak dira jarrera matxisten aurrean, eta, beraz,

intolerantzia ulertzeko modukoa izango litzateke, baita desiragarria ere, emakumeen ahalduntzearen ikuspegitik.


Adinak, berriz, ez du ezberdintasun handirik ezartzen, eta aztertutako hiru adin-taldeetan laurden batek dio deseroso dagoela beste ideologia bat duten pertsonekin.

Jarrera horien bilakaera aztertzen badugu, ikusten dugu bestelako ideologiak dituzten pertsonekin daudenean deseroso daudela dioten gazteen ehunekoak nabarmen gora egin duela aurreko urteekin alderatuta. Gorakada hori nabarmena da emakumeen artean, baina ez gizonen artean. Horrek islatzen du egia izan daitekeela gorago aipatutako hipotesia, emakumeek jarrera eta ideiak matxistak gehiago gaitzesten dituztela dioena, hain zuzen.

6.15 taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen deserosotasun-maila bestelako sinesmenak edo balioak dituzten pertsonekin daudenean, 2020an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Zenbateraino sentitzen zara deseroso zureak ez bezalako ideiak, sinesmenak edo baloreak dituzten pertsonekin?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Oso deseroso	4,7	4,9	4,4	5,2	3,9	4,7
Nahiko deseroso	20,2	25,4	15,4	20,2	20,9	19,8
DESEROSO	24,9	30,3	19,8	25,4	24,8	24,5
Ez oso deseroso	33,4	33,3	33,6	31,0	35,4	34,1
Batere deseroso ez	37,1	31,4	42,5	36,3	35,2	39,8
Ed/Ee	4,6	5,1	4,2	7,3	4,7	1,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343

6.12 grafikoa. **Norberarenak ez bezalako sinesmenak edo balioak dituzten pertsonekin oso edo nahiko deseroso daudela dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

6.5. Atzerriko immigrazioarekiko jarrerak

2020ko urtarrilaren 1ean, atzerriko herritartasuna zuten 184.916 pertsona bizi ziren Euskadin, hau da, Euskadin bizi ziren biztanleen % 8,4 atzerritarrak ziren. Ehuneko hori apur bat handiagoa zen Araban (% 9,9) eta apur bat txikiagoa Bizkaian (% 7,9). Gipuzkoan, berriz, batezbestekoaren antzekoa zen (% 8,5)⁸.

Euskadin bizi diren atzerritarren % 40,5 Amerikakoak dira; % 27,3, Afrikakoak; % 23,7,

Europakoak, eta gainerako % 8,4a, Asia eta Ozeaniakoak.

Euskadin dauden immigranteen kopurua handitzat edo txikitat jotzea kontu oso subjektiboa da; horregatik, gazteei galdetu diegu ea zer iritzi duten Euskadin bizi diren atzeritarren kopuruaren inguruan, eta, haien iritziz, zein den immigrazio-politikarik egokiena.

⁸ Iturria: Eustat: biztanleen udal estatistika. 2020/12/14ko prentsa-oharra [linean]. Hemen eskuragarri: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0017900/ti_euskal-aen-bizi-den-biztanleria-osoaren-84-atzerriko-biztanleria-da-185000-bizilagun-alegia/not0017941_e.html [Kontsulta: 2021/09/15]

6.5.1.

Euskadin dauden atzerritarren kopuruari buruzko iritzia

Hamar gaztetik batek (% 9,1) uste du atzerritar gehiegi bizi direla Euskadin. Gehienek (% 65,6) uste dute, gehiegi ez badira ere, atzerritar dezente daudela. Bestalde, % 12,4k uste dute gutxi direla, eta gainerako % 12,8ak ez dute erantzun.

Euskadin atzerritar gehiegi bizi direla uste duten gazteen ehunekoa beherakada gogorra izan du. Atzerritar dezente daudela baina ez gehiegi diotenen ehunekoa, berriz, gora egin du.


Atzerriko herritartasuna duten pertsonen ehuneko txikiena duen lurraldea izan arren, Bizkaian atzerritar gehiegi daudela edo, gehiegi izan gabe, dezente daudela uste duten gazte gehiago daude.

Bitxiki, bestelako sinesmenak dituzten pertsonekin oso edo nahiko deseroso daudela diotenen % 5,9k

esan dute Euskadin atzerritar gehiegi daudela, eta, bestela pentsatzen duten pertsonekin batere deseroso edo ez oso deseroso daudela diotenen kasuan, berriz, Euskadin atzerritar gehiegi daudela uste dutenen ehunekoa % 10,0 da. Datu horrek adierazten du intolerantzia ideologikoak ez dakarrela nahitaez immigranteekiko intolerantzia.

Beste alde batetik, Euskadin dauden atzerritarren kopuruari buruzko benetako datuen bilakaera gazteen iritziarekin alderatzen badugu, ikusten da iritzi hori oso baldintzatuta dagoela lan-egoeraren arabera. 2012an, krisi-ekonomikoa bete-betean zegoenean, gazte gehiagok uste zuten Euskadin atzerritar gehiegi zeudela. 2021ean, berriz, benetan atzerritar gehiago egon direnean (% 8,4), 2012an baino gazte gutxiagok uste du atzerritar gehiegi daudela.

6.13 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek Euskadin bizi diren atzerritarren kopuruaren inguruan duten iritzia bilakaera (%)**




Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

6.16 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek Euskadin dauden atzerriarren kopuruari buruz duten iritzia, 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta bizi diren lurralde historikoaren arabera (%)**

Ondoren, Euskadin bizi diren beste herrialde batzuetako jendeari buruz hitz egingo dugu. Zuk zer esango zenuke: horrelako pertsona gehiegi daudela, dezente daudela baina ez gehiegi, edo gutxi daudela?

(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Gehiegi daude	9,1	8,9	9,3	8,1	8,4	11,0	8,5	10,3	7,5
Dezente daude, baina ez gehiegi	65,6	65,4	65,9	69,2	67,1	60,3	58,5	69,7	63,1
Gutxi daude	12,4	12,6	12,2	13,1	11,8	12,2	10,3	10,1	16,4
Ed/Ee	12,8	13,1	12,6	9,6	12,7	16,5	22,8	9,9	13,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343	399	601	500

6.14 grafikoa. **Euskadin atzerriar gehiegi daudela uste duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren eta Euskadin bizi diren atzerriarren ehunekoaren bilakaera eta alderaketa⁹ (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea eta Eustat (Biztanleen Udak Estatistika).

⁹ Euskadiko biztanle guztien artean atzerriko nazionalitatea duten pertsonen ehunekoari buruzko datuak Eustatetik datoz (Biztanleen udak estatistika).

6.5.2.

Atzerriko immigrazioaren arloko politikarik egokiena

Gai hau aztertzeko, gazteei agertoki erabat ezberdinak planteatu zaizkie: beste herrialde batzuetako pertsonen sartzeko aukera ematea, mugarik gabe; inolako aukerarik ez ematea, edo, tarteko bide gisa, lan-kontratua dutenei baino ez uztea sartzen.


Euskadiko gazte gehienak (% 63,7) immigrantei sarrera ahalik eta gehien erraztearen alde daude. % 28,2k lan-kontratua dutenei baino ez liekete utziko sartzen. Eta langile immigrantei sarrera debekatuko lieketenen ehunekoa gazteen % 0,5 baino ez da. Gainerako % 7,7k ez dakite zer esan, edo ez dute iritzirik eman nahi izan.

Immigrantei sarrera ahalik eta gehien erraztearen alde dauden gazteen ehunekoa izugarri igo da aurreko urteekin alderatuta (aldi berean, behera egin du gehiegi daudela uste dutenen kopuruak), eta immigrantei sarrera debekatu behar zaiela uste dutenen ehunekoa, berriz, hutsaren hurrengo izatera iritsi da.

Norberarenak ez bezalako ideiak eta balioak dituzten pertsonekin oso edo nahiko deseroso daudela dioten pertsonen artean immigrantei sarrera ahalik eta gehien erraztearen aldeko jarrera zabalduago dago bestelako ideiak dituztenekin batere edo ez oso deseroso sentitzen diren artean baino (% 79,4 eta 58,4, hurrenez hurren). Beraz, badirudi aipatutako intolerantzia ideologikoa ez dela beste erlijio edo kulturekiko intolerantzia, beste ideia politiko edo balioekiko intolerantzia baizik.

Beste alde batetik, emakume gazteen artean zabalduago dago immigrantei sarrera ahalik eta gehien erraztearen aldeko jarrera gizon gazteen artean baino. 25 urtetik beherakoen jarrera ere beste herrialde batzuetako pertsonen sarrera ahalik eta gehien erraztearen aldekoagoa da 25 eta 29 urte bitarteko gazteena baino. Baina ez dago alderik gazteak bizi diren lurralde historikoaren arabera.

6.15 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek immigrazio-politika egokienaren inguruan duten iritzia bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

6.17 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek immigrazio-politika egokienaren inguruan duten iritzia, 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta bizi diren lurralde historikoaren arabera (%)**

Atzerriko langile etorkinei dagokienez, ondokoetatik zein uste duzu dela neurririk egokiena?									
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Etorkinen sarrera ahalik eta gehien erraztea	63,7	70,4	57,3	66,2	68,8	55,9	64,6	62,9	64,6
Sarrera lan kontratua dutenei bakarrik erraztea	28,2	22,6	33,5	25,6	25,3	33,9	27,4	29,1	27,1
Langile etorkinen sarrera debekatzea	0,5	0,0	0,9	0,4	0,0	1,0	0,9	0,3	0,8
Ed/Ee	7,7	7,0	8,3	7,9	5,9	9,2	7,2	7,8	7,5
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343	399	601	500

6.5.3.


Immigranteen edo errefuxiatuen aldeko mobilizazioetan izandako parte-hartzea

Immigrante atzerritarren aldeko parte-hartze aktiboari dagokionez, gazteen % 26,9k esan dute inoiz parte hartu dutela arrazakeriaren aurkako edo immigranteen edo errefuxiatuen aldeko mobilizazioen batean (greba, manifestazioa...), kontsulta egin aurreko urtean.

Emakumeek gehiago parte hartu dute halako mobilizazioetan gizon gazteek baino. Ez dago alderik adinaren edo bizileku duten lurralde historikoaren arabera, baina aldeak daude

politikarekiko interesaren edo immigrazioaren aurrean duten jarreraren arabera. Politikarekiko interes handia duten gazteek gehiago parte hartu dute halako mobilizazioetan (% 37,3). Immigranteen sarrera ahalik eta gehien erraztearen alde daudenen artean, arrazakeriaren aurkako edo immigranteen edo errefuxiatuen aldeko mobilizazioetan parte hartu dutenen ehunekoa bikoitza da sartzeko aukera lan-kontratua dutenei baino emango ez lieketenen ehunekoa baino (% 33,7 eta % 15,0, hurrenez hurren).

6.16 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek arrazakeriaren aurkako edo immigranteen edo errefuxiatuen aldeko mobilizazioetan azken urtean izandako parte-hartzea, sexuaren, politikarekiko interesaren eta immigrazioaren arloko politika egokienaren inguruko iritzia (%)**



* Ez dira aintzat hartu immigranteen sarrera debekatu beharko litzatekeela uste dutenen erantzunak, oso gutxi direlako. Beraz, erantzun horiek ez dira adierazgarriak estatistikoki.

6.6.

Gauzez bakarrik ibiltzeko beldurra

15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik lauk (% 42,2) adierazi du beldur dela herrian edo auzoan gauzez bakarrik ibiltzen direnean. Hala ere, beldurraren ikuspegia ez da berdina gizonen artean edo emakumeen artean. Emakumeei dagokionez, beren udalerrian gauzez bakarrik ibiltzen direnean beldur direla dioten ehunekoa % 74,1 da; gizonena, berriz, % 11,9.

Emakumeek beldurra gehiagotan sentitzea edo gehiagotan aitortzea lotuta dago zenbait faktoreekin: emakumeek sexu-eraso gehiago jasaten dituzte; oro har, gizonak baino indar fisiko txikiagoa dute edozein erasori aurre egiteko; emakumeei etxetik bertatik irakasten zaie beldurra izaten eta arretaz ibiltzen, hain zuzen ere erasoak saihesteko; gizonak gutxiagotan aitortzen edo adierazten dute beldurra sentitzen dutela, maskulinitatearekin lotutako estereotipo


batzuen ondorioz..., beste faktore batzuen artean. Emakumeek beldur-sentsazio handiagoa izatearen ondorioetako bat da beren mugimenduak mugatzen dituztela, baita espazio publikoen eta aisialdirako denboraren erabilera ere. Hori dela eta, areagotu egiten dira emakume eta gizonen arteko desberdintasunak zenbait eremutan; ez dira lan-eremukoak bezainbeste ikusten, baina ez dira garrantzi gutxiagokoak.

Horrez gainera, kaletik gauzez bakarrik ibiltzeko beldurra nabarmen areagotu da aurreko neurketekin alderatuta. Emakumeen kasuan, bikoiztu egin da, eta gizonen kasuan, maila berdinetara iritsi ez bada ere –lehen ikusi dugunez–, ehunekoak nabarmen gora egin du aurreko urteekin alderatuta. «Manada» deritzen taldeko erasoen ondorio izan daiteke beldurraren areagotze hori.

Adin-taldeen arabera aztertuta, ikusten dugu beldurrak behera egiten duela nagusiagoen taldean, hau da, 25 eta 29 urte bitartekoenean, talde horretan % 37,3k baitiote beldur direla, eta 15 eta 19 urte bitartekoen artean, berriz, % 44,2k; 20 eta 24 urte bitartekoen artean, % 45,0k.

Sexua eta adina gurutzatzen baditugu, talde guztietan emakume gehienek diote beldur direla gauez bakarrik ibiltzen direnean; gizonen kasuan, berriz, ehunekoa % 15etik behera dago beti.

6.17 grafikoa. **Herrian edo auzoan gauez bakarrik ibiltzen direnean beldur direla dioten 15 eta 29 urte bitarteko gizonen eta emakumeen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

6.18 taula. **Herrian edo auzoan gauez bakarrik ibiltzen direnean beldur direla dioten 15 eta 29 urte bitarteko gizonen eta emakumeen ehunekoa, 2020an, sexuaren eta adinaren aldagaiak gurutzatuta (%)**

Zuri beldur ematen dizu gauez zure herritik edo auzotik bakarrik ibiltzeak?								
(%)	Emakumeak				Gizonak			
	Emakumeak, guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Gizonak, guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai	74,1	75,8	77,7	69,2	11,9	14,9	14,4	6,3
Ez	25,4	23,8	22,3	30,1	87,4	83,4	85,4	93,7
Ed/Ee	0,4	0,4	0,0	0,7	0,7	1,7	0,2	0,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	748	295	284	169	752	315	263	174

6.7.

Indarkeria bikotearen barruan

Atal honetan, Euskadiko gazteek bikote batean egikaritu ahal diren indarkerien larritasunaz egiten duten balorazioa ezagutu nahi da. Indarkeria horretan sartzen dira ikusten dena eta ikusezina dena, esplizitua edo ezkutukoa, hitzekoa edo ez-hitzekoa, indarkeriaren piramidean deritzonean definitutako kontzeptuak kontuan hartuta.


Piramide horrek lau maila ditu, eta azterketa 2. eta 3. mailetan zentratu da. 2. mailan sartzen dira umiliatzea, izena kentzea, jaramonik ez egitea, gutxiestea, xantaia emozionala egitea eta errudun sentiaraztea; 3. mailan, berriz, eraso fisikoak,

bortxaketa, sexu-abusua, mehatxuak, oihuak eta irainak.

Zehazki, gazteei eskatu zaie indarkeria egikaritzeko mota hauen larritasuna baloratzeko: iraintzea, erabakirik hartzen ez uztea, sare sozialetan kontrolatzea, gutxiestea, mehatxatzea, etxetik irtetea debekatzea, sexu-harremanak borondatearen aurka izatera behartzea.

Azken indarkeria hori, hots, sexu-harremanak izatera behartzea da planteatutakoetatik larriena gazteen iritziz: % 95,3k oso larritzat jotzen dute.

6.18 grafikoa. **Emakumeenganako indarkeriaren piramidea**



Bikotekidearen mugimenduak mugatzea, etxetik irtetea debekatuta, oso larria da % 89,9ren ustez. Mehatxatzea oso larritzat jotzen dute gazteen % 74,6k. Asko dira ere sare sozialetan bikotekidea kontrolatzea jarrera oso larritzat jotzen dutenak: % 70,7. Erabakirik hartzen ez uztea oso larria da % 65,6ren ustez, eta gutxiestea oso larria da %59,4ren ustez.

Aipatutako tratu txar guztiak oso larriak dira gazte gehienek ustez; soilik iraintzea dago % 50eko atalasearen azpitik, % 40,7 baita oso larritzat jotzen duena.

Edonola ere, batera aztertzen baditugu indarkeriaren adierazpen horiek oso edo nahiko larriak direla uste dutenak, ikusten da kasu guztietan ehunekoak % 80tik gorakoak direla.


Gizonekin alderatuta, emakumeek gehiagotan diote proposatutako tratu txarrak oso larriak direla. Adinak gora egin ahala gora egiten du ere indarkeria horiei egotzitako larritasunak.

Beste alde batetik, gazteen % 13,5ek aitortzen dute tratu txar horietakoren bat jasan dutela bikote-harremanean, oraingoan edo iraganekoan. Emakumeek gizonen baino gehiagotan bizi izan dituzte halako egoerak (% 18,9 eta % 8,4, hurrenez hurren).

Zenbat eta nagusiago izan, esperientzia gehiago izan dituzte bikote-harremanetan, on eta txarretan, eta halako egoeraren bat bizi izan dutenen ehunekoak gora egiten du: 20 urtetik beherakoen taldean, % 7,7; 20 eta 24 urte bitarteko taldean, % 13,9, eta 25 eta 29 urte bitarteko taldean, % 19,4.

Sexuaren eta adinaren aldagaiak gurutzatzen baditugu, ikusten dugu, adinak gora egin ahala, bai gizonengan bai emakumeengan gora egiten duela bikote-harremanean halako egoeraren bat bizi izan dutenen kopuruak. Hala ere, adin-talde guztietan, emakumeek gizonen baino gehiagotan bizi izan dute esperientzia hori. Gainera, deigarria da 25 eta 29 urte bitarteko lau emakumetik batek esaten duela proposatutako tratu txarrak (mota bat edo batzuk) jasan dituela bikote-harremanen batean.

6.19 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen arabera, proposatutako tratu txarren mota bakoitzak duen larritasuna, 2020an (%)**




6.19 taula. **Proposatutako tratu txarren mota bakoitza oso larritzat jotzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, 2020an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Ondoko aukera bakoitzean esadazu, mesedez, zure ustez tratu txarra den ala ez, eta baiezkoetan, zure iritziz, oso larria den, nahiko larria den, edo ez den oso larria

(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bere borondatearen kontra sexu harremanak izatera behartzea	95,3	94,4	96,2	93,9	95,1	97,1
Etiketarik irteera debekatzea	89,9	89,9	89,9	86,7	90,6	92,4
Mehatxatzea	74,6	80,1	69,3	65,8	78,8	79,6
Sare sozialetan kontrolatzea	70,7	75,5	66,2	65,0	73,3	74,3
Gauzak erabakitzen ez uztea	65,7	70,8	60,8	60,3	68,6	68,4
Mespretxuak egitea	59,4	64,2	54,7	55,9	59,7	62,7
Iraintzea	40,5	45,3	36,0	25,6	44,6	52,4
(n)	1.500	748	752	610	547	343

6.20 grafikoa. **Bikote-harremanen batean planteatutako tratu txarren bat bizi izan duten gazteak, 2020an, sexuaren eta adinaren aldagaiak gurutzatuta (%)**



6.8.

Sexualitatea

Atal honetan kontuan hartu dugu, batetik, gazteek harreman sexualen inguruan izandako bizipen pertsonala, nahi ez diren ondorioak izateko arriskua dakarten harreman sexualak nabarmenduta, eta, bestetik, gazteek sexu-aniztasunaren eta sexu-hezkuntzaren inguruan dituzten iritziak.

6.8.1.

Harreman sexual pertsonalak

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 73,9k adierazi dute harreman sexualak izan dituztela inoiz. Ehunekoa antzekoa da gizon eta emakume gazteen artean (% 72,9 eta % 74,9, hurrenez hurren), baina asko aldatzen da adin batetik bestera. 20 urtetik behera, gutxiengoa dira harreman sexualak izan dituztela dioten gazteak (% 39,3), baina adin horretatik gora nabarmen gora egiten du ehunekoak: % 88,2 da 20 eta 24 urte bitartekoen artean, eta % 96,3, 25 eta 29 urte bitartekoen artean.

Dirudienez, pandemia eta konfinamendua harreman sexualen hasiera atzeratzea eragiten ari dira. 2016an, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen % 48,8k esan zuten harreman sexualak izan zituztela inoiz; ehuneko hori % 39,3ra murriztu da 2020an, hots, ia hamar puntu egin du behera. 20 eta 24 urte bitartean, beherakada txikiagoa izan da, % 92,3tik % 88,2ra. Eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean, ez dago ia alderik: % 97,0, 2016an, eta % 96,3, 2020an.

Azken urtean (hau da, 2019ko udaberri/udatik 2020ko udaberri/udara bitartean) izandako harreman sexualak aztertzen baditugu, harreman sexualak izan dituzten gazteen % 17,5ek diote sexu-transmisiozko gaixotasun bat hartzeko eta/edo nahi gabe haurdun geratzeko arriskua zekarten harreman sexualak izan dituztela.


Kalkulua gazte guztiak (harreman sexualak izan dituztenak eta izan ez dituztenak) kontuan hartuta egiten badugu, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 12,9k (hamar gaztetik batek, gutxi gorabehera) harreman sexual arriskutsuren bat izan zuen inkesta egin aurreko hamabi hilabeteetan.

Emakumeen % 13,9k eta gizonen % 12,0k izan dute harreman sexual arriskutsuren bat aurreko urtean, hau da, ez dago alde handirik sexuen artean.

Adina kontuan hartuta, 20 eta 24 urte bitarteko gazteak dira harreman sexual arriskutsu gehien izan dituztenak, eta 20 urtetik beherakoak (oro har, esperientzia sexual gutxiago dute) dira harreman sexual arriskutsu gutxiago izan dutenak.


Datu horiek aurreko urteetan erregistratutako datuekin alderatzen baditugu, aurreko urtean sexu-harreman arriskutsuren bat izan duten gazteen ehunekoa 2016an erregistratutakoaren (% 12,2) antzekoa eta 2012koa (% 18,4) baino txikiagoa dela ikusten dugu.

6.21 grafikoa. **Harreman sexualak izan dituzten gazteen ehunekoaren bilakaera, adin-taldearen arabera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

6.22 grafikoa. **Azken urtean sexu-transmisiozko gaixotasun bat hartzeko eta/edo nahi gabeko haurdunaldia izateko arriskua zekarren harreman sexualen bat izan duten gazteak, sexuaren eta adin-taldearen arabera. 2020 (%)**



6.8.2. Sexu-aniztasunari buruzko iritziak

Sexu-aniztasunaren aldeko iritziak oso zabalduta daude Euskadiko gazteen artean: 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 97,7 sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde daude, eta % 96,6 sexu-aldaketaren edo sexua berresleitzearen alde daude, hala egin nahi duten pertsonen kasuan.

Bi iritziak hain daude zabalduta, ezen ez baitago ia alderik gizon eta emakumeen artean edo adin-taldearen artean, baina babesa apur bat handiagoa da gazteen artean.

Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren aldeko jarrerak gora egin du, pixkanaka, 2008an egindako lehen neurketatik. Orduan, gazteen % 85,8k babesten zuten aukera hori; 2020an, berriz, % 97,7k.


Gorakada handiagoa izan da sexu-aldaketaren aldeko jarreraren: 2008ko % 78,1etik 2020ko % 96,6ra.

Gorakada horiek nabarmenagoak izan dira gizonen kasuan eta 20 urtetik beherakoek kasuan, hasierako ehunekoak txikiagoak baitziren.

6.20 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteen iritzia sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren eta sexu-aldaketaren inguruan, 2020an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Orain esadazu, zuk zeuk egingo zenukeenaz aparte, ondokoen alde ala kontra zauden							
	(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
			Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza	Alde	97,7	98,1	97,3	98,1	97,8	96,9
	Kontra	0,4	0,7	0,1	0,2	0,4	0,8
	Ed/Ee	1,9	1,2	2,6	1,7	1,8	2,2
Sexu aldaketa	Alde	96,6	97,8	95,5	97,9	96,9	94,9
	Kontra	1,0	1,2	0,8	0,2	1,0	1,8
	Ed/Ee	2,4	1,0	3,8	1,9	2,0	3,3
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100
(n)		1.500	748	752	610	547	343

6.23 grafikoa. **Sexu berekoen arteko ezkontzaren eta sexu-aldaketaren alde dauden gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

6.21 taula. **Sexu berekoen arteko ezkontzaren eta sexu-aldaketaren alde dauden gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Orain esadazu, zuk zeuk egingo zenukeenaz aparte, ondokoan alde ala kontra zauden							
(Alde daudenen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	
Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza	2008	85,8	90,9	80,7	83,0	86,3	87,6
	2012	87,0	92,2	82,1	87,0	88,5	85,9
	2016	90,5	90,2	89,1	91,7	92,6	87,9
	2020	97,7	98,1	97,3	98,1	97,8	96,9
Sexu aldaketa	2008	78,1	83,2	72,9	70,9	79,4	82,6
	2012	80,6	87,9	73,6	80,0	79,7	81,6
	2016	86,4	87,7	85,1	87,7	87,5	84,4
	2020	96,6	97,8	95,5	97,9	96,9	94,9

Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

6.8.3. Sexu-hezkuntzaren beharra

Beste alde batetik, 2020an, ikastetxeetan ematen diren sexualitateari buruzko eskolei buruzko iritzia galdetu zaie gazteei lehen aldiz. Gazte gehienak (% 96,5) ikastetxeetan sexualitateari buruzko eskolak ematearen

alde daude. Ikastetxeetan sexu-hezkuntzari buruzko eskolak ematearen aldeko jarrera apur bat zabalduago dago emakume gazteen artean gizonen artean baino. Ez dago ia ezberdintasunik adinaren arabera.

6.22 taula. **Ikastetxeetan sexualitateari buruzko eskolak emateari dagokionez 15 eta 29 urte bitarteko gazteek duten iritzia, 2020an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Orain esadazu, zuk zeuk egingo zenukeenaz aparte, ikastetxeetan sexualitateari buruzko klaseak ematearen alde ala kontra zauden						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Alde	96,5	98,5	94,7	95,2	97,8	96,7
Kontra	1,1	0,7	1,6	1,3	0,4	1,6
Ed/Ee	2,3	0,8	3,8	3,5	1,8	1,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343

6.9. Beste gai sozial batzuei buruzko iritzia

Euskadiko gazteak seriearen aurreko edizioetan bezala, gazteei abortuari, eutanasiari edo kalamua legeztatzeari buruzko iritzia galdetu zaie ere, jarreraren bilakaera aztertzeko.

6.9.1. Abortu libre eta borondatezkoa

Euskadiko gazteen % 92,1 abortu libre eta borondatezkoaren alde daude. Abortuaren aldeko jarrera apur bat zabalduago dago emakumeen

artean eta 20 eta 24 urte bitartekoen artean. Baina ezberdintasun handiena fededunen (erlijio katolikokoak, beste erlijio batekoak edo Jainkoarengan sinesten dutenak baina erlijioetan ez) eta fededunak ez direnen (ateoak, agnostikoak edo interesatzen ez zaiena) artean dago.


Beste alde batetik, gazteen jarreraren bilakaera aztertuz gero, ikusten da abortuaren aldeko jarrerak nabarmen gora egin duela 2008tik (% 75,7koa zen) 2020ra bitartean (% 92,1).

6.23 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek abortu libre eta borondatezkoaren inguruan duten iritzia, 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta erlijioarekiko jarreraren arabera (%)**

Orain esadazu, zuk zeuk egingo zenukeenaz aparte, abortu libre eta borondatezkoaren alde ala kontra zauden

(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Jarrera erlijiosoa	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Sinestunak	Sinesgabeak
Alde	92,1	93,6	90,6	92,9	94,5	88,8	81,2	96,9
Kontra	3,2	3,7	2,7	1,7	2,7	5,3	10,5	0,5
Ed/Ee	4,7	2,7	6,6	5,4	2,9	5,9	8,3	2,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343	379	1.060

6.24 grafikoa. **Abortu libre eta borondatezkoaren alde dauden 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

6.9.2. Eutanasia

Eutanasiaren aldeko jarrera, hau da, gaitz sendaezin bat duen pertsonari, hala eskatzen badu, hiltzen laguntzearen aldeko jarrera nagusia da ere. Gazteen % 88,4 eutanasiaren alde daude.

Ez dago ia alderik eutanasiaren alde dauden emakume eta gizon gazteen ehunekoen artean. Baina aldeak daude adinaren arabera, eta


20 urtetik gora handiagoa da eutanasiaren alde daudenen ehunekoa. Hala ere, berriro ere, erlijioarekiko jarreraren arabera daude alderik handienak. Izan ere, fededunak ez diren pertsonen artean eutanasiaren alde daudenen ehunekoa gazte fededunen artean erregistratutako ehunekoa baino hamar puntu handiagoa da.

6.24 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek eutanasiari buruz duten iritzia, 2020an, sexuaren, adin-taldearen eta erlijioarekiko jarreraren arabera (%)**

Orain esadazu, zuk zeuk egingo zenukeenaz aparte, eutanasiaren alde ala kontra zauden, hau da, berak horrela eskatzen badu, gaixo sendaezinari hiltzen laguntzearen alde ala kontra zauden

(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Jarrera erlijiosoa	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Sinestunak	Sinesgabeak
Alde	88,4	89,2	87,7	84,2	90,4	90,8	78,6	92,8
Kontra	3,9	4,2	3,5	4,4	3,5	3,5	9,6	1,6
Ed/Ee	7,7	6,6	8,8	11,3	6,1	5,7	11,8	5,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1.500	748	752	610	547	343	379	1.060

6.25 grafikoa. **Eutanasiaren alde dauden 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

Eutanasiaren alde dauden gazteen ehunekoak ere gora egin du 2008tik aurrera, baina igoera ez da izan beste gai batzuetan bezain deigarria (adibidez, abortuaren alde izandako igoera). Gainera, 2008tik 2012ra behera egin zuen aldeko jarrerak, eta gero gora egin zuen urte horretatik aurrera. Gorakadarik handiena 2016. eta 2020. urteen artean gertatu da, agian 2021eko martxoan Eutanasiaren Legea onartu baino lehen izandako eztabaidak eraginda¹⁰ onartu baino lehen izandako eztabaidak eraginda.

6.9.3. Kalamua legeztatzea

Kalamua legeztatzeari buruzko eztabaida bizi-bizi egon zen duela urte batzuk, bereziki xede terapeutikoetarako erabiltzeko eta kontsumo partekatutako kalamu-klub sozialak arautzeko,

baina eztabaidak indarra galdu du azken urteetan. Agian horregatik 2012tik 2020ra bitartean hamar puntu baino gehiago behera egin du kalamua legeztatzearen aldeko jarrerak gazteen artean, eta gaur egun ez da gehiengoa (% 47,1).

Are gehiago; 2008an talde guztietan gehiengoa ziren alde zeudenak, baina 2020an, ordea, soilik gizonen eta 25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean dago % 50eko atalasearen gainetik. Izan ere, adinak behera egin ahala behera egiten du ere kalamua legeztatzearen aldeko jarrerak.

Baina aldeko jarrerak behera egiteak ez du esan nahi kontrako jarrerak gora egin duenik. Bereziki gora egin duena da iritzirik ematen ez dutenen ehunekoak, eta ez dute iritzirik eman ez dutelako gaia ezagutzen, ez dutelako jarrera argirik edo ez dutelako adierazi nahi.

6.25 taula. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek kalamua legeztatzearen inguruan duten iritziaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Orain esadazu, zuk zeuk egingo zenukeenaz aparte, kanabisaren legalizazioaren alde ala kontra zauden

	(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
			Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
2012	Alde	60,5	53,3	67,3	55,9	62,4	61,9
	Kontra	26,3	31,6	21,3	27,2	25,9	26,1
	Ed/Ee	13,2	15,0	11,4	16,8	11,7	11,9
2016	Alde	55,9	51,8	59,9	46,6	58,4	61,5
	Kontra	27,4	29,4	25,5	32,4	25,5	24,9
	Ed/Ee	16,7	18,8	14,6	21,0	16,1	13,6
2020	Alde	47,1	42,1	51,8	38,5	49,2	54,1
	Kontra	26,7	28,9	24,7	31,0	26,5	22,4
	Ed/Ee	26,2	29,0	23,5	30,6	24,3	23,5
GUZTIRA		100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

¹⁰ 2021 Lege Organikoa, martxoaren 24koa, eutanasia arautzen duena [linean] Hemen eskuragarri: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2021-4628 [Kontsulta 2022/01/4]

07.

Aisialdia eta kultura

2000. urtean *Euskadiko Gazteak* saila hasi zenetik gaur arte, gazteen aisialdiko jarduerak funtsezko aldaketa bat izan dute, Interneten eta sare sozialen hedapenaren ondorioz, eta gazteen artean gailu mugikorrek orokortzearen ondorioz.

2005ean sortu zen Youtube; 2006an, Spotify. Horrekin batera, aplikazio horiek erabiltzeko aukera ematen duten smartphoneak garatu dira. Horrek guztiak erabat aldatu ditu ikus-entzunezko produktuen kontsumoarekin lotutako ohiturak, eta, kasu batzuetan, badirudi lehenago laneko denbora eta aisialdia zalantzarik gabe bereizten zituen lerroa lausotu egin dela jarduera batzuen kasuan. Paradigmatikoak dira, hain zuzen ere, sakelakoekin lotura duten guztiak.

2000an «telebistaren aurrean egindako denbora» neurtzen zen; orain, «pantailen aurrean egindako denbora» da kontzeptua, eta pantaila horietan gazteen aisialdiko ohiko jardueretako asko egin daitezke: musika entzun; serieak eta pelikulak ikusi; irakurri; kontsolekin jolastu eta kirola egin ere (gailua musika entzuteko eta, aldi berean, kirola egiteko erabiltzen denean, edo egindako kirol-jarduera erregistratzeko, edo kirolaren arloko sare sozialetara igotzeko, Interneteko konexioaz baliatuta).

Gazteen Euskal Behatokia aldaketa horietara egokituz joan da, eta Euskadiko gazteei aisialdiko jardueren inguruan egiten zaizkien galderak aldatuz joan dira azken urteetan.

7.1.

Aisialdiko jarduerak

Gazteek 2021ean nagusiki egiten dituzten aisialdiko jarduerak aztertzeko, inkesta erantzun dutenei jardueren zerrenda bat aurkeztu zaie eta jarduera horiek egiteko maiztasunaz galdetu zaie (egunero edo ia egunero, astean hiru edo lau egun, astean egun bat edo bi, gutxiago eta inoiz ez edo ia inoiz ez).

2021ean, proposatutako jarduerak egunero edo ia egunero egiten dituztela diotenen ehunekoa kontuan hartzen badugu, Euskadiko gazteek gehien egindako aisialdiko jarduera musika entzutea da, % 81,8k adierazi baitute egunero egiten dutela. Logikoa da aintzat hartzen badugu musika entzutea, kasu gehienetan, beste jarduera batekin batera egiten den jarduera dela: kirola, joan-etorriak, ikasi, lan egin, etab. Ehuneko hori handiagoa da emakumeengan gizonengan baino (% 84,3 eta % 79,2, hurrenez hurren).

Gazteek gehien egiten dituzten aisialdiko jardueretatik bigarrena bideoak edo tutorialak ikustea da: % 35,7k egiten dute egunero. Gizonak maizago egiten dute emakumeek baino (gizonen % 42,7k egiten dute egunero, eta emakumeen % 28,1ek).

Gehien aipatutako aisialdiko jardueren artean, hirugarrena telesailak edo pelikulak ikustea da: 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 28,4k aipatu dute. Kasu honetan, emakumeen ehunekoa (% 31,2) handiagoa da gizonena (% 25,8) baino.

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 26,4k esan dute egunero edo ia egunero egiten dutela kirola. Kirola egunero egiten dutenen ehunekoa handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino (% 32,3 eta % 20,5, hurrenez hurren).

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 17,8k esan dute egunero edo ia egunero irakurtzen dutela. Ehunekoa apur bat handiagoa da emakumeen artean (% 19,4) gizonen artean (% 16,3) baino.

Kontsoletan, ordenagailuko edo telefono mugikorreko jokoetan aritzea da gizonen eta emakumeen artean ezberdintasun gehien islatzen duen aisialdiko jarduera. 15 eta 29 urte bitarteko gizonen % 25,3k esan dute egunero edo ia egunero aritzen direla kontsolekin; emakume gazteen artean, berriz, balio hori % 9,6koa da. Bi ehuneko horien emaitza da 15 eta 29 urte bitarteko gazteen balio orokorra % 17,8koa dela.

% 11,8k egunero edo ia egunero argitaratzen dituzte edukiak Interneten (argazkiak, bideoak, testuak...), eta ohikoagoa da gizonen artean emakumeen artean baino. Gauza bera gertatzen da podcastekin: 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 9,5ek egunero entzuten dituzte, eta ohikoagoa da gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino.

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 7,4k arte-jardueraren bat egiten dute egunero edo ia egunero zaletasun gisa: dantza, antzerkia, musika-tresnaren bat jo... Antzeko balioak dituzte gizonak eta emakumeek. Beste alde batetik, gazteen % 5,7k esku-lanak egiten dituzte, josten dute edo kozinatzen dute egunero, zaletasun gisa. Ez dago ia alderik sexuaren arabera.

Azkenik, logikoa denez, tabernetara edo terrazetara joateko ohiturak behera egin du nabarmen, pandemiaren ondorioz 2020. urtearen hasieran ezarritako murrizketak direla-eta. Hala ere, 2021ean, gazteen % 4,3k baieztatu dute egunero edo ia egunero joaten direla taberna eta terrazetara, eta ez daude alde esanguratsurik elkarriketatutako pertsonaren sexuaren arabera.

7.1 taula. **2021ean, aisialdiko jarduera hauetakoren bat egunero edo ia egunero egin dituzten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, sexuaren arabera (%)**

Adierazi zein maiztasunez egiten dituzun aisialdiko jarduera hauek

(Jarduera bakoitza egunero edo ia egunero egiten dutenen %)	Guztira	Sexua	
		Emakumeak	Gizonak
Musika entzun	81,8	84,3	79,2
Bideoak edo tutorialak ikusi	35,7	28,1	42,7
Serieak edo pelikulak ikusi	28,4	31,2	25,8
Kirola egin	26,4	20,5	32,3
Irakurri	17,8	19,4	16,3
Kontsolekin edo ordenagailuko edo mobileko jokuekin jolastu	17,8	9,6	25,3
Interneten edozein motatako edukiak argitaratu edo igo (argazkiak, bideoak, testuak...)	11,8	10,6	12,9
Podcast-ak entzun	9,5	7,0	11,8
Jarduera artistikoren bat egin (pintura, dantza, antzerkia, musika...)	7,4	7,4	7,2
Eskulanak egin, josi edo sukaldaritza egin hobby moduan	5,7	5,5	5,9
Tabernetara edo terrazetara joan	4,3	4,2	4,4
(n)	2.495	1.700	779

7.2 taula. **2021ean, aisialdiko jarduera hauetakoren bat egunero edo ia egunero egin dituzten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, adin-taldearen arabera (%)**

Adierazi zein maiztasunez egiten dituzun aisialdiko jarduera hauek

(Jarduera bakoitza egunero edo ia egunero egiten dutenen %)	Guztira	Adin-taldeak		
		15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Musika entzun	81,8	84,0	84,0	77,2
Bideoak edo tutorialak ikusi	35,7	41,4	37,2	28,2
Serieak edo pelikulak ikusi	28,4	26,3	28,3	30,6
Kirola egin	26,4	27,6	26,5	25,2
Irakurri	17,8	16,1	17,2	20,2
Kontsolekin edo ordenagailuko edo mobileko jokuekin jolastu	17,8	19,5	18,6	15,0
Interneten edozein motatako edukiak argitaratu edo igo (argazkiak, bideoak, testuak...)	11,8	12,5	12,7	10,2
Podcast-ak entzun	9,5	13,0	6,5	8,7
Jarduera artistikoren bat egin (pintura, dantza, antzerkia, musika...)	7,4	9,3	7,8	4,9
Eskulanak egin, josi edo sukaldaritza egin hobby moduan	5,7	4,4	5,0	7,9
Tabernetara edo terrazetara joan	4,3	3,6	4,7	4,8
(n)	2.495	581	1.021	893

Adinaren arabera, gazteak banatzeko ezarri ditugun hiru adin-taldeetan musika entzutea da aisialdiko jarduera nagusia (alde nabarmena dago beste jarduerekin), baina apur bat behera egiten du 25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean.

Beste alde batetik, 15 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, gehien egiten den aisialdiko bigarren jarduera da bideoak edo tutorialak ikustea (% 41,4, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean; % 37,2, 20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean); 25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, ordea,

bigarren lekuan telesailak edo filmak ikustea dago (% 30,6).

Zaletasun gisa irakurtzeko ohiturak apur bat gora egiten du adinak gora egin ahala. Esku-lanak egitea ere ohikoagoa da adinak gora egin ahala. Baina, adinak gora egin ahala behera egiten du egunero edo ia egunero kontsolekin edo ordenagailuko edo telefono mugikorreko jokoekin jolasten diren gazteen ehunekoak, baita egunero arte-jardueraren bat egiten dutenen ehunekoak ere.

Jarraian, jarduera horietako bakoitza zer maiztasunez egiten den zehaztuko dugu, lau kategoriatan banatuta: egunero edo ia egunero, astean hiru edo lau egunetan, astean egun bat edo bitan, gutxiagotan eta inoiz ez edo ia inoiz ez. Halaber, sexuaren arabera eta bost urteko adin-taldearen arabera bereizi da maiztasun hori.

7.1.1. Musika entzutea

Taula orokorrean ikusi dugun moduan, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 81,8k musika entzuten dute egunero edo ia egunero. Musika

entzuteko zaletasuna apur bat zabalduago dago emakumeen artean gizonen artean baino (% 84,3 eta % 79,2), eta, adin-taldearen arabera, 25 urtetik beherakoek maiztasun handiagoz entzuten dute musika 25 eta 29 bitarteko gazteek baino.

2021ean musika egunero entzuten dutela dioten gazteen ehunekoa ia 2016ko bera da (% 81,9). Izan ere, jarduera honek ez du behar Covid-19aren pandemiaren eraginpean egon ahal izan den baldintzarik.

Musika entzutearen eta aisialdiko hurrengo jardueraren (bideoak eta tutorialak ikustea) artean ia ehuneko 50 puntuko aldea dago. Telefono adimendunei eta hari gabeko entzungailuei esker, musika entzutea deritzogun jarduera bateragarria da kirola egitearekin —ur-kirolak egitea barne—, hiritik ibiltzearekin, ikastearekin... Musika non-nahi dago, eta, ondorioz, erabiltzaile bakoitzak telefono adimendunetik hartzeko aukera dauka, gero bere nahiaren arabera erabiltzeko, eta, maiz, hondo-musikaren efektua sortzen da, nolabaiteko inplikazioa eskatzen duen aisialdiko jarduera bat egitearekin zerikusirik ez duena.

7.3 taula. **Musika entzuteko maiztasuna, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 2021ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Adierazi zein maiztasunez egiten dituzun aisialdiko jarduera hauek: MUSIKA ENTZUN						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Egunero edo ia egunero	81,8	84,3	79,2	84,0	84,0	77,2
Astean hiru edo lau egunetan	9,4	8,5	10,3	8,1	8,8	11,4
Astean behin edo bitan	6,0	4,7	7,4	5,7	5,2	7,0
Gutxiagotan	1,9	2,2	1,6	1,4	1,5	2,9
Inoiz ez edo ia inoiz ez	0,9	0,3	1,6	0,8	0,6	1,4
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

7.1.2.

Bideoak edo tutorialak ikustea

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 35,7k egunero edo ia egunero ikusten dituzte bideoak edo tutorialak Interneten. % 25,3k astean hiru edo lau egunetan egiten dute; % 21,2k, astean egun bat edo bitan; % 14,0k, gutxiagotan, eta % 3,8k, inoiz ez edo ia inoiz ez.

Astean gutxienez hiru aldiz bideoak edo tutorialak ikusten dituzten gazteen ehunekoa ez da asko aldatu duela bost urteko datuekin alderatuta: 2016an, % 61,3k kontsumitzen

zituzten halakoak; 2021ean, % 61,0ek. Izan ere, jarduera hori oso zabaldua dago aspaldi.

2021eko datuak kontuan hartuta, ikusten dugu Interneteko bideoen edo tutorialen eguneroko edo ia eguneroko kontsumoa sarriagoa dela gizonen artean emakumeen artean baino, eta gazteagoen artean. Adinak gora egin ahala nabarmen behera egiten du bideoen edo tutorialen kontsumoak: 15 eta 19 urte bitarteko gazteen % 41,4tik 25 eta 29 urte bitarteko gazteen % 28,2ra.

7.4 taula. **Bideoak edo tutorialak ikusteko maiztasuna, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 2021ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Adierazi zein maiztasunez egiten dituzun aisialdiko jarduera hauek: BIDEOAK EDO TUTORIALAK IKUSI						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Egunero edo ia egunero	35,7	28,1	42,7	41,4	37,2	28,2
Astean hiru edo lau egunetan	25,3	25,4	25,6	28,6	23,7	23,4
Astean behin edo bitan	21,2	24,2	18,5	18,1	20,4	25,2
Gutxiagotan	14,0	16,2	11,8	9,2	14,3	18,8
Inoiz ez edo ia inoiz ez	3,8	6,0	1,5	2,6	4,4	4,3
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

7.1.3.

Telesailak edo filmak ikustea

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 28,4k telesailak eta filmak ikusten dituzte egunero. % 27,5ek diote astean hiru edo lau egunetan egiten dutela, eta % 25,8k diote astean behin edo bitan egiten dutela.

Egunero telesailak edo filmak ikusten dituztela dioten emakumeen ehunekoak handiagoa da gizonena baino (% 31,2 vs % 25,8). Egunero telesailak edo filmak ikusten dituztenen ehunekoak gora egiten du adinak gora egin ahala, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen % 26,3tik 25 eta 29 urte bitartekoen % 30,6ra.

Bestalde, telesailen edo filmen eguneroko kontsumoaren ehunekoak nahiko homogeneoak dira adin-taldeetan.

Telesailak eta filmak eskaintzen dituzten online plataformen —Netflix, HBO edo Amazon Prime, adibidez— hedapenak eragina izan du produktu horien kontsumoaren orokortzean, bai gazteen artean, bai beste adin batzuetan, baina egia da ere gazteak urruntzen ari direla telebistaren kontsumo tradizionaletik, eta gehiago jotzen dutela plataforma horiek ahalbidetzen duten «neurrira antolatutako» kontsumora.

7.5 taula. **Telesailak edo filmak ikusteko maiztasuna, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 2021ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Adierazi zein maiztasunez egiten dituzun aisialdiko jarduerak hauek: SERIEAK EDO PELIKULAK IKUSI						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Egunero edo ia egunero	28,4	31,2	25,8	26,3	28,3	30,6
Astean hiru edo lau egunetan	27,5	28,3	26,7	26,2	27,3	29,3
Astean behin edo bitan	25,8	24,8	26,7	27,4	25,4	24,4
Gutxiagotan	14,4	12,2	16,5	15,8	14,2	13,0
Inoiz ez edo ia inoiz ez	3,9	3,5	4,4	4,3	4,8	2,7
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

7.1.4.

Kirola egitea

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 26,4k kirola egiten dute egunero. % 30,0ek diote astean hiru edo lau egunetan egiten dutela, eta, beraz, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 56,4k kirola egiten dute astean hiru egunetan gutxienez. Ehuneko oso garrantzitsua da kontuan hartzen bada egindako kiroleko batzuek atsedenaldiak behar dituztela ere.

Emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun nagusia kirola egiteko eguneroko edo ia eguneroko maiztasunean dago. Emakume gazteen % 20,5ek diote kirola egiten dutela egunero edo ia egunero. 15 eta 29 urte bitarteko gizonen ehunekoa, berriz, % 32,3 da. Hala ere, erantzunaren lehen bi kategoriak elkartzen baditugu astean gutxienez hiru egunetan kirola egiten duten gazteen ehunekoa zehazteko, emakumeen artean ehunekoa % 52,2 da, eta gizonen artean, % 60,8.

Beraz, aldeak ez dira jada kirola egunero egiteko ohituran erregistratutakoak bezain nabarmenak.

15 eta 19 urte bitarteko gazteek dute astean gutxienez hiru egunetan kirola egiteko ohituraren ehuneko handiena (% 58,7), baina beste adin-taldeekiko aldea ez da oso handia.

Kirola gutxienez astean hiru egunetan egiteko ohiturak 2016. eta 2021. urteen artean izan duen bilakaera oso positiboa izan da, 2016ko % 49,0tik 2021eko % 56,4ra pasatu baita. 2021ean zenbait jarduera egiteko ezarri diren murrizketak kontuan hartuta, pentsatu ahal da etorkizuneko inkestetan gora egingo duela ehuneko horrek.

Bilakaera positibo horren arrazoi nagusia da emakumeen artean nabarmen areagotu

dela kirola sarri egiteko ohitura. 2016an, emakumeen % 37,2k esan zuten astean gutxienez hiru egunetan egiten dutela kirola; 2021ean, % 52,2ra iritsi da ehuneko hori. Gizon gazteen kasuan, aldiz, ez dago alde handirik 2016ko eta 2021eko ehunekoen artean.

Eta zein dira Euskadiko gazteek gehien egiten dituzten kirolak? Ezin da esan futbola baztertu denik, baina egia da pandemiak asko mugatu duela haren praktika, eta, ondorioz, lehen baino dibertsifikazio handiagoa dago kirol-jardueretan. Izan ere, 2021ean gehien egin diren kirolak «gimnasioko kirolak» multzoan sartzen direnak dira (fitness, crossfit, spinning, zumba eta antzekoak). Gazteen % 22,7k egiten dituzte kirol horiek; gero, korrika egitea (% 16,6), mendira joatea (% 14,9) eta txirrindularitzaren modalitate ezberdinak (% 11,8) daude. Futbola bosgarren lekuan dago: % 10,2.

Beste alde batetik, «beste kirolak» kategoriak hartu duen pisua nabarmentzen da. Kirol minoritario batzuek gainera, hala nola patinajea, hipika edo arku-tiroa —adibide batzuk jartzearen—, etxean egindako kirola sartzen da, era askotako ariketekin eta, inoiz, bideoen eta tutorialen laguntzarekin. Aukera hau asko zabaldu da pandemian, etxeko eta herriko konfinamenduaren ondorioz, eta kirol-instalazioak erabiltzeko mugen eta murrizketen ondorioz.

Gogoratu behar da % 20,6k diotela ez dutela egiten kirolik erregulartasunez. Eta baliteke batzuek kirol bi baino gehiago egitea, baina eskatu zaie soilik adierazteko sarrien egiten dituzten bi kirolak.


Hurrengo grafikoak Euskadiko gazteek egiten dituzten kirolen dibertsitatea islatzen du.

7.6 taula. **Kirola egiteko maiztasuna, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 2021ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

**Adierazi zein maiztasunez egiten dituzun aisialdiko jarduera hauek:
KIROLA EGIN**


(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Egunero edo ia egunero	26,4	20,5	32,3	27,6	26,5	25,2
Astean hiru edo lau egunetan	30,0	31,7	28,5	31,1	28,7	30,1
Astean behin edo bitan	20,2	24,1	16,4	19,2	19,5	21,9
Gutxiagotan	14,7	14,4	14,7	12,6	16,2	15,4
Inoiz ez edo ia inoiz ez	8,7	9,3	8,1	9,5	9,1	7,5
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

7.1 grafikoa. **Astean gutxienez hiru egunetan kirola egiten duten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

7.2 grafikoa. Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek gehien egindako kirolak, 2021ean (%) *



* Pertsona bakoitzak bi kirol aipatu ahal zituen gehienez.

Egindako kirola sexuaren arabera aztertuz gero, aipatu beharreko alde ugari daude. Alde handia dago emakume eta gizonen artean futboleant eta areto-futboleant batez ere, baina aldeak daude txirrindularitzaren modalitateetan eta pala-kiroletan ere (tenisa edo padela, adibidez), eta hiru kasuetan gizonen alde.

Ibiltzeko ohituran ere aldeak daude gizonen eta emakumeen artean, kasu honetan emakumeen alde, eta dantzan ere gehiago aritzen dira emakumeak gizonak baino. Mendira joatea ohikoago da emakume gazteen artean gizon gazteen artean baino, baita yoga edo pilates

egitea ere. Etxean kirola egitea ere ohikoagoa da emakumeen artean gizonen artean baino.

Adinaren arabera ere ezberdintasunak daude, eta merezi du aipatzea. Adinak gora egin ahala, gora egiten du mendira doazen edo ibiltzera doazen gazteen ehunekoak, eta, apur bat gutxiago, yoga edo pilates egiten dutenen ehunekoak. Gainera, 20 urtetik gora, gehiago dira korrika egitera edo gimnasia doazenak adin horretatik beherakoak baino. Adinak behera egin ahala, berriz, gehiago dira futboleant edo areto-futboleant, saskibaloian edo taldeko kiroleant aritzen direnak. Gazteenen artean, beste adin-talde batzuetan baino gehiago dira dantza, balleta edo gimnasia erritmikoa egiten dutenak.

7.7 taula. **Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek gehien egiten dituzten kirolak, 2021ean, sexuaren eta adin taldeen arabera (%)**

Orain pandemia dela-eta, konfinamendu perimetralagatik ezin baduzu ere, zein kirol edo kirolak egiten dituzu sarriago?*						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19	20-24	25-29
Gimnasioan egiten den kirolen bat (fitness, crossfit, spinning, zumba...)	22,7	21,8	23,3	16,7	26,2	25,5
Korrika egitea	16,6	15,5	17,7	11,0	19,5	19,7
Mendira joatea, eskalatzea	14,9	17,1	13,0	6,5	16,4	22,3
Txirrindularitza, mountain bike	11,8	7,2	16,2	12,4	9,7	13,1
Futbola, areto-futbola	10,2	3,7	16,4	15,3	9,0	5,9
Igeriketa	7,8	8,2	7,3	6,6	7,9	8,9
Pala, erraketa edo pilotalekuko kirolen bat (pala, tenisa, padela...)	7,8	4,9	10,7	7,8	7,9	7,9
lbiltzea	6,5	9,8	3,4	3,3	7,5	8,9
Saskibaloia	5,2	4,4	5,9	8,6	4,7	2,0
Beste talde kirolen bat (eskubaloia, boleibola, errugbia...)	4,3	3,3	5,3	7,6	2,8	2,4
Dantza, gimnasia erritmikoa	4,3	7,9	0,8	7,3	2,4	2,8
Arte martzialak edo ukipen-kirolen bat (judoa, karatea, boxeoa...)	3,0	2,4	3,6	3,7	3,2	2,1
Beste ur-kirolen bat (surfa, arrauna...)	2,9	1,9	4,0	3,5	2,6	2,7
Yoga edo pilatesa	2,4	4,4	0,5	0,3	2,1	5,0
Atletismoko modalitatearen bat	1,1	0,9	1,3	2,2	0,4	0,6
Elur-kirolen bat (eskia, snowboarda...)	0,5	0,5	0,6	0,4	0,7	0,6
Beste kirol-motaren bat	7,8	10,3	5,4	9,2	7,4	6,8
Kirol bat ere ez	20,6	21,9	19,4	22,3	20,8	18,8
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

* Pertsona bakoitzak gehienez bi kirol adierazi zitzakeen.

7.1.5. Irakurtzea

Euskadiko gazteen % 17,8k diote egunero irakurtzen dutela; % 14,4k, berriz, ez dute inoiz edo ia inoiz irakurtzen, hau da, ia kopuru bera da egunero irakurtzen duten gazteena eta inoiz irakurtzen ez dutenena.

Irakurtzeko ohitura apur bat zabalduago dago emakumeen artean gizon gazteen artean baino, irakurtzeko maiztasunaren edozein kategoriatan (egunero edo astero). Izatez, gizon gazteen artean gehiago dira inoiz edo inoiz irakurtzen ez dutenak egunero irakurtzen dutenak baino.

25 eta 29 urte bitarteko gazteek gehiago irakurtzen dute 25 urtetik beherakoek baino, eta datu hori oso nabarmena da inoiz ez dutela irakurtzen dioten kasuan, ehunekoa ia erdira jaisten baita nagusien artean.

Gaian apur bat gehiago sakonduz, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 48,8k libururen bat irakurri dute aurreko hilabetea, aisialdiko jarduera gisa. Aisialdian irakurtzeak esan nahi du ez dela egin ikasketek edo lanak eraginda. Irakurtzeko ohituraren maiztasuna aztertu dugunean ikusi dugun bezala, inkesta egin aurreko hilabetea

aisialdian libururen bat irakurri duten gazteen ehunekoa handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino % 57,9, emakumeak; % 39,6, gizonak). Aisialdian irakurtzeko maiztasunak gora egiten du adinarekin ere. 15 eta 19 urte bitarteko gazteen % 46,5ek irakurri dute libururen bat, aisialdian, aurreko hilabetea; 20 eta 24 urte bitartekoen artean, % 46,1ek, eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean, % 53,8k.

Hala ere, entretenimendurako edo dibertsiorako irakurtzeko ohiturak apur bat behera egin du 2016an edo 2012an erregistratutako datuekin alderatuta. Beherakada handiagoa izan da gizon gazteen kasuan eta 20 urtetik beherako kasuan. Aurrerago ikusiko dugunez, talde horretan gora egin du aisialdiaren arloko bestelako kontsumoak, bideojokoena, adibidez.

Aurreko hilabetea irakurritako liburuen kopurua aztertuz gero, ikusten da aurreko hilabetea aisialdian libururen bat irakurri dutela esan dutenen % 53,7k liburu bakarria irakurri dutela. % 28,5ek diote aurreko hilabetea bi liburu irakurri dituztela aisialdian; % 11,6k, hiru, eta % 6,2k diote hiru baino gehiago irakurri dituztela.


7.8 taula. **Irakurtzeko maiztasuna, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 2021ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Adierazi zein maiztasunez egiten dituzun aisialdiko jarduera hauek: IRAKURRI						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Egunero edo ia egunero	17,8	19,4	16,3	16,1	17,2	20,2
Astea hiru edo lau egunetan	18,8	21,8	15,8	20,5	16,0	19,8
Astea behin edo bitan	21,8	23,8	19,8	18,8	23,7	23,2
Gutxiagotan	27,2	25,4	29,0	27,7	26,2	27,6
Inoiz ez edo ia inoiz ez	14,4	9,6	19,1	16,9	16,9	9,2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

Ez dago alde handirik emakume eta gizon gazteek irakurritako liburuen kopuruan, baina emakumeen artean gizonen artean baino apur bat handiagoa da hiru liburu baino gehiago irakurri dituztenen ehunekoa. Adinaren arabera ezberdintasunei dagokienez, gazteenek dute irakurleen ehuneko txikiena,

baina, irakurtzen dutenen artean, inkesta egin aurreko hilean liburu bat baino gehiago irakurri dutenen ehuneko handiagoa dute beste adin-taldeetan baino (% 53,2, 20 urtetik beherakoen artean; % 43,8, 20 eta 24 urte bitartekoen artean, eta % 41,9, 25 eta 29 urte bitartekoen artean).

7.3 grafikoa. **Aurreko hilabetean aisialdian gutxienez liburu bat irakurri duten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

7.9 taula. **Aurreko hilabetean aisialdian gutxienez liburu bat irakurri dutela dioten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek hilabete horretan irakurritako liburuen kopurua, 2021ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Zenbat liburu irakurri duzu azken hilean?*						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bat	53,7	52,2	55,3	46,7	56,2	58,1
Bi	28,5	27,8	29,7	33,1	26,0	26,4
Hiru	11,6	11,6	12,0	14,4	11,2	9,3
Hiru baino gehiago	6,2	8,4	3,0	5,7	6,6	6,2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	1.286	963	310	276	494	516

* Aurretik azken hilean libururen bat irakurri dutela esan dutenei egindako galdera.


Euskaraz irakurtzeari dagokionez, azken hiru hilabeteetan, arrazoiak edozein dela ere (aisia edo ikasketei edo lanari lotutako arrazoiak), libururen bat euskaraz irakurri dutela esan duten gazteen ehunekoa txikiagoa da irakurketa orokorra dela-eta erregistratutakoa baino. Izan ere, euskaraz irakurtzeko ohitura lotuta dago hizkuntzaren ezagutza-mailarekin, euskaraz irakurtzeko erraztasun gehiago izatearekin edo erosoago sentitzearekin eta euskarazko argitalpenen eskaintzarekin. Guztira, hiru gaztetik batek (% 32,8) baieztatu du libururen bat irakurri duela euskaraz galdera egin aurreko hiru hilabeteetan. Gizonen eta emakumeen arteko aldea ez da irakurketa orokorrean bezain handia. Emakumeen % 34,9k baieztatu dute libururen bat irakurri dutela euskaraz azken hiru hilabeteetan; gizonen kasuan, berriz, % 30,8k.

Adin-taldean arabera, irakurketa orokorrean gertatutakoaren kontrakoa gertatu da, ikusi baitugu gora egiten duela 25 urtetik aurrera. Euskaraz irakurtzeari dagokionez, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen % 55,2k irakurri dute liburu bat euskaraz azken hiru hilabeteetan; ehuneko

horrek % 22,8ra egin du behera hurrengo adin-taldean, 20 eta 24 urte bitartean dituztenen taldean, seguruenik ikasketetan ziklo-aldaketa bat egon delako. Eta euskaraz irakurtzen dutenen ehunekoa are txikiagoa da hurrengo adin-taldean, 25 eta 29 urte bitarteko gazteenean: % 19,1ek diote libururen bat irakurri dutela euskaraz azken hiru hilabeteetan. Datu horrek islatzen du euskaraz irakurtzeko ohitura lotuago dagoela ikasketekin aisialdiarekin baino, aurreko urteetan bezala.

Euskaraz irakurtzen dutenen ehunekoak gora egin du pixkanaka aurreko urteekin alderatuta. Hala ere, oso astiro egin du gora, eta ez dator bat euskararen ezagutzak izan duen garapenarekin. 2012tik 2020ra bitartean, euskaraz ondo hitz egiten dutela dioten gazteen ehunekoa % 62,0tik % 80,3ra pasatu da; euskaraz irakurtzen dutenen ehunekoak 2012tik 2021era izan duen gorakada, berriz, 4,1 puntukoa izan da. Adin-taldean arabera aztertuta, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean gora egin du, baina 20 eta 24 urte bitartekoen artean, ordea, behera egin du. 25 eta 29 urte bitartekoen taldean, mantendu egin da.

7.4 grafikoa. **Azken hiru hilabeteetan libururen bat euskaraz irakurri duten Euskadik 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

7.1.6.

Kontsolekin, ordenagailu-jokoekin edo mugikorreko jokoekin jolastea

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 17,8k diote kontsolekin, ordenagailu-jokoekin edo mugikorreko jokoekin aritzen direla egunero edo ia egunero. % 11,9, astean hiru edo lau egunetan. Beraz, esan dezakegu hamar gaztetik hiruk (% 29,7, zehazki) komunzki aritzen dela bideojokoekin. % 16,0k esan dute astean egun baten edo bitan baino ez direla aritzen horretan, eta gainerakoek esan dute gutxiagotan jolasten direla, edo inoiz ez duela egiten.

Bideojokoekin aritzea ohikoagoa da gizonen artean emakume gazteen artean baino, eta ohikoagoa da ere 20 urtetik beherakoekin. Adinean gora egin ahala, behera egiten du bideojokoekin aritzeko ohiturak.

Azken bost urteetan, gora egin du astean gutxienez hiru egunetan kontsolekin, ordenagailu-


jokoekin edo mugikorreko jokoekin aritzen diren gazteen ehunekoak, eta 2016ko % 24,2tik 2021eko % 29,7ra pasatu da. Ehunekoaren gorakada hori lotuta dago, batez ere, gizon gazteen artean izan duen gorakadarekin, 2016ko % 31,4tik 2021eko % 41,5era. Astean gutxienez hiru egunetan jokatzen duten emakumeen ehunekoa ez da ia aldatu azken bost urteetan (2016an, % 16,7, eta 2021ean, % 17,0). Adin-taldearen kasuan, gorakadarik handiena 20 eta 24 urte bitartekoen taldean izan da.

Ziur aski, pandemian izandako konfinamendua da, mugitzeko ordutegi-murrizketekin eta murrizketa geografikoekin batera, gorakada horren arrazoia, baita azken urteetan bideojokoekin industriak izan duen goraldia, eskuragarri dauden jokoen ugaritasuna eta beste pertsona batzuekin online jokatzeak aukera ere.

7.10 taula. **Kontsolekin, ordenagailu-jokoekin edo mugikorreko jokoekin aritzeko maiztasuna, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 2021ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Adierazi zein maiztasunez egiten dituzun aisialdiko jarduerak hauek: KONTSOLEKIN, ORDENAGAILUKO EDO MOBILEKO JOKUEKIN JOLASTU						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Egunero edo ia egunero	17,8	9,6	25,3	19,5	18,6	15,0
Astean hiru edo lau egunetan	11,9	7,4	16,2	14,6	11,8	9,2
Astean behin edo bitan	16,0	13,0	18,9	19,8	15,1	12,8
Gutxiagotan	21,5	24,6	18,6	23,1	20,0	21,4
Inoiz ez edo ia inoiz ez	32,8	45,4	21,0	23,0	34,5	41,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

7.5 grafikoa. **Astean gutxienez hiru egunetan kontsolekin, ordenagailu-jokoekin edo mugikorreko jokoekin aritzen diren Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

7.1.7.

Interneten edozein motatako edukiak (argazkiak, bideoak, testuak...) argitaratzea

Hamar gaztetik batek (% 11,8) dio egunero argitaratzen dituela edukiak Interneten. Astea hiru edo lau egunetan egiten dutela diotenak kontuan hartzen baditugu, Interneten normalean edukiak (argazkiak, bideoak, testuak...) argitaratzen dituztenen ehunekoa % 22,4ra iristen da.

Internetera edukiak igotzea ohikoagoa da 25 urtetik beherakoen artean 25 eta 29 urte bitartekoen artean baino.


Hurrengo grafikoan argi geratzen da Interneten edukiak argitaratzeko ohiturak azken bost urteetan izan duen gorakada. 2016an % 3,5ek esan zuten gutxienez astean hiru egunetan egiten zutela; 2021ean, berriz, % 22,4k esan dute hori. Ehunekoak gora egin du emakumeen eta gizonen artean, baita aztertutako hiru adin-taldeetan ere, baina apur bat gehiago 25 urtetik beherakoen kasuan.

7.11 taula. **Interneten edukiak (argazkiak, bideoak, testuak...) argitaratzeko maiztasuna, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 2021ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Adierazi zein maiztasunez egiten dituzun aisialdiko jarduera hauek: INTERNETEN EDUKIAK ARGITARATU EDO IGO (ARGAZKIAK, BIDEOAK, TESTUAK...)

(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Egunero edo ia egunero	11,8	10,6	12,9	12,5	12,7	10,2
Astean hiru edo lau egunetan	10,6	10,5	10,6	12,4	10,9	8,3
Astean behin edo bitan	15,4	18,0	13,0	14,7	15,8	15,9
Gutxiagotan	35,6	38,2	33,3	34,0	38,1	34,8
Inoiz ez edo ia inoiz ez	26,6	22,6	30,2	26,5	22,5	30,8
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

7.6 grafikoa. **Astean gutxienez hiru egunetan Interneten edukiak argitaratzen dituzten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

7.1.8.

Podcast-ak entzutea

Podcast formatuan Interneten edukiak entzutea da gazteen artean indarra hartzen ari den aisialdi digitalari lotutako beste jarduerak bat, besteak beste asko ugaritu direlako erabil daitezkeen plataformak. Euskadiko gazteen % 9,5ek diote egunero edo ia egunero entzuten dituztela.

Podcast-ak egunero entzuteko ohiturari buruzko datuak aztertzen baditugu, ikusten dugu ohitura apur bat zabalduago dagoela gizonen artean emakume gazteen artean baino (% 11,8 eta % 7,0, hurrenez hurren), eta 15 eta 19 urte bitartekoen artean (% 13,0k egunero edo ia egunero entzuten dituzte).

7.12 taula. **Podcast-ak entzuteko maiztasuna, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 2021ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Adierazi zein maiztasunez egiten dituzun aisialdiko jarduerak hauek: PODCAST-AK ENTZUN						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Egunero edo ia egunero	9,5	7,0	11,8	13,0	6,5	8,7
Astean hiru edo lau egunetan	9,1	8,2	9,9	8,6	8,5	10,2
Astean behin edo bitan	15,2	12,3	17,8	13,1	17,6	15,1
Gutxiagotan	25,3	26,6	24,2	24,4	27,5	23,9
Inoiz ez edo ia inoiz ez	41,0	45,9	36,2	40,8	39,9	42,1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

7.1.9.

Jarduera artistikoren bat (pintura, dantza, antzerkia, musika...) egitea

Euskadiko gazteen % 7,4k jarduera artistikoren bat (pintura, dantza, antzerkia, musika-tresnaren bat jo...) egiten dute egunero. Halako jardueraren bat gutxienez astean behin egiten duten pertsona guztiak kontuan hartuta, ehunekoa % 30,0era iristen da.

Ehunekoak antzekoak dira emakumeen eta gizonen artean halako jarduerak egunero egiteko maiztasunari dagokionez, baina,

asteko maiztasuna aztertzen badugu, ikusten da emakumeen artean jarduera artistikoko egiteko ohitura zabalduago dagoela gizonen artean baino. Are gehiago, gizon gazte gehienek (% 56,2) diote ez dutela inolako jarduera artistikorik egiten.

Beste alde batetik, adinak gora egin ahala behera egiten du halako jardueraren bat egiten duten gazteen ehunekoa, bai egunero egiten dutenena, bai astean behin egiten dutenena.

7.13 taula. **Jarduera artistikoren bat (pintura, dantza, antzerkia, musika...) egiteko maiztasuna, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 2021ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Adierazi zein maiztasunez egiten dituzun aisialdiko jarduera hauek: JARDUERA ARTISTIKOREN BAT EGIN (PINTURA, DANTZA, ANTZERKIA, MUSIKA...)						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Egunero edo ia egunero	7,4	7,4	7,2	9,3	7,8	4,9
Astean hiru edo lau egunetan	8,6	10,4	6,8	7,5	10,2	8,1
Astean behin edo bitan	14,0	17,1	11,2	15,7	12,4	13,9
Gutxiagotan	21,2	24,0	18,7	20,0	23,0	20,7
Inoiz ez edo ia inoiz ez	48,8	41,1	56,2	47,5	46,6	52,3
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

7.1.10.

Eskulanak egitea, jostea edo kozinatzea, zaletasun gisa

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek, entretenitzeko, eskulanak edo etxeko zereginekin lotutako lanak —jostea edo kozinatzea, adibidez— zenbatean egiten duten aztertuz gero, ikusten da aisialdiko zenbait jarduera hondar-jarduera bihurtzen ari direla gazteen artean. Gazteen %5,7k baino ez dituzte egiten halako jarduerak egunero, baina, asteko maiztasuna kontuan hartuta, % 36,2ra iristen da. Datu horrek isla dezake jarduera horiek astebururako uzten direla.

Asteko maiztasunarekin jarraituz, oro har, emakumeek gehiago egiten dituzte halako jarduerak gizonak baino. Esku-jarduerak banan-banan aztertuko bagenu, seguruenik alde gehiago egongo lirakeke gizon eta emakumeen artean. Adinak gora egin ahala gora egiten du ere halako jarduerak egiten dituzten gazteen ehunekoak. Kasu honetan lotuta egon daiteke

adinean gora egin ahala emantzipatuta dauden gazteen kopuruarekin, gehiago baitira, eta, beraz, beren etxeetan egiten dituzte halako jarduerak: kozinatzea, apaintzea, konponketak egitea, etab.

Aisialdiko jarduera hauek 2016tik aurrera izan duten bilakaera aztertuta, ikusten da nabarmen gora egin dutela azken urteetan. 2020ko etxeko konfinamenduaren ondorioz, pertsona askok (gazteak eta ez hain gazteak) kozinatzeko edo bestelako eskulanak egiteko baliatu zuten denbora, entretenitzeko, eta badirudi joera hori nolabait mantendu egin dela 2021ean.


Adinean gora egin ahala, gero eta gehiago dira astero, zaletasun gisa, eskulanak egiten dituzten gazteak. Horrez gainera, 2016arekin alderatuta, ehunekoak gehiago egin du gora.

7.14 taula. **Eskulanak egiteko, josteko edo kozinatzeko maiztasuna, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 2021ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

**Adierazi zein maiztasunez egiten dituzun aisialdiko jardura hauek:
ESKULANAK, JOSI EDO SUKALDATU... HOBBY MODUAN**

(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Egunero edo ia egunero	5,7	5,5	5,9	4,4	5,0	7,9
Astean hiru edo lau egunetan	12,4	13,8	11,2	11,6	13,4	12,4
Astean behin edo bitan	18,1	20,6	15,6	13,2	19,0	22,4
Gutxiagotan	27,2	29,0	25,5	27,1	28,1	26,3
Inoiz ez edo ia inoiz ez	36,5	31,1	41,8	43,8	34,4	30,9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

7.7 grafikoa. **Astean behin, gutxienez, eskulanak egiten dituzten, josten edo kozinatzen duten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

7.1.11.

Taberna edo terrazetara joatea

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 4,3k diote taberna edo terrazetara joaten direla egunero edo ia egunero. % 15,0ek diote astean hiru edo lau egunetan joaten direla taberna edo terrazetara. % 35,5ek astean egun baten edo bi egunetan egiten dute. Guztira, gazteen % 54,8 joaten dira taberna edo terrazetara gutxienez astean behin.

Bestalde, % 20,6 ez doaz inoiz edo ia inoiz taberna edo terrazetara, baina aisialdiko jarduera hau inoiz egiten ez dutenen ehunekoa txikiagoa da bideojokoetan aritzeko, Interneten edukiak argitaratzeko, podcastak entzuteko, jarduera artistikoak edo eskulanak egiteko jarduerak inoiz egiten ez dituztenak baino. Hots, 2021ean, tabernetara joatea ez da eguneroko aisialdiko jarduera gazteentzat, baina pisu garrantzitsua du.

Alderik handiena 20 urtetik gorakoen eta beherakoen artean erregistratu da: 15 eta 19 urte bitarteko

gazteen % 36,3k esan dute ez direla inoiz joaten taberna edo terrazetara; 20 eta 29 urte bitarteko gazteen kasuan, berriz, % 15era jaisten da ehunekoa.


Tabernetara joateko ohitura izugarri baldintzatu dute Covid-19aren pandemiaren ondorioz ostalaritzan ezarritako murrizketek. Izan ere, 2016an, gazteen % 14,1ek esan zuten egunero edo ia egunero joaten zirela tabernetara; 2021ean, ordea, % 4,3k baino ez dute esan. Tabernetara gutxienez astean behin joaten zirela esan zutenen ehunekoa kontuan hartuta, 2016an gazte guztien % 71,8k egiten zuten.

Edonola ere, pentsa daiteke aisialdiko jarduera honek berriro gora egingo duela pandemiaren osteko normaltasunera itzultzen garenean, eta ostalaritzan ezarritako murrizketa guztiak (ordutegiak, edukiera, barran kontsumitzeko aukera, etab.) eta, kutsatzea saihesteko, bakoitzak bere buruari ezarritako mugak desagertzen direnean.

7.15 taula. **Taberna edo terrazetara joateko maiztasuna, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 2021ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Adierazi zein maiztasunez egiten dituzun aisialdiko jarduera hauek: TABERNETARA EDO TERRAZETARA JOAN						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Egunero edo ia egunero	4,3	4,2	4,4	3,6	4,7	4,8
Astean hiru edo lau egunetan	15,0	17,2	12,8	9,3	18,4	17,5
Astean behin edo bitan	35,5	36,9	34,3	23,7	40,9	42,8
Gutxiagotan	24,5	24,6	24,5	27,2	22,2	24,0
Inoiz ez edo ia inoiz ez	20,6	17,0	23,9	36,3	13,8	10,8
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

7.8 grafikoa. **Gutxienez astean behin tabernetara edo terrazetara joaten diren Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

7.2. Jarduera artistiko eta kulturalak

2021ean, Gazteen Euskal Behatokiak arteari edo kulturari lotutako jardueren zerrenda bat aurkeztu die elkarrizketa egin zaien gazteei, eta azken urtean zein egin duten galdetu zaie. Emandako erantzunak kontuan hartuta, ikusten dugu Euskadiko gazteek gehien egiten duten jarduera artistiko edo kulturala dela argazkilaritza (% 49,2k adierazi dute argazkilaritza egin dutela azken urtean). Gehien egindako bigarren jarduera da bideoak edo ikus-entzunezko beste jarduera batzuk egitea (% 32,8). Bi jardueren (argazkilaritza eta bideo edo ikus-entzunezkoak) hedapena lotuta egon daiteke gazteek sare sozialak erabiltzearekin, Instagram edo TikTok, adibidez (hurrengo kapituluan aztertuko dugu). Izan ere, sare horien formatu nagusia argazkiak eta bideoak dira, hurrenez hurren. Gazteek gehien egindako hirugarren jarduera da

pintatzea, marraztea edo beste arte plastiko batzuk (zeramika, eskultura, grabatua, etab.) egitea.

Gazteen % 31,7k egin dute halako jardueraren bat azken urtean. Horrez gainera, gazteen % 24,2k diote azken urtean musika-tresnaren bat jotzen aritu direla, eta, beraz, jarduera kultural hau laugarrena da zerrendan. Bosgarrena kontakizunak, poesia, artikuluak, etab. idaztea da (% 22,7). Eta seigarren lekuan dantza dago, bere edozein modalitatetan: ballet klasikoa, dantza tradizionalak, ballet modernoa, etab. Gazteen % 15,9k egin dute dantza azken urtean. Proposatutako gainerako jarduerak (abesbatza edo musika-talde batean kantatzea, antzerkia egitea, bertsolaritza eta beste modalitate artistiko batzuk) ez dira iritsi gazteen % 10era.

Guztira, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 76,8k parte hartu dute jarduera artistiko edo kulturalen batean azken urtean. Emakumeen ehunekoa gizonena baino apur bat handiagoa da (% 79,1 eta % 74,5, hurrenez hurren), batez ere dantzan edo balletan eta arte plastikoetan (pintura, eskultura, etab.) dagoen aldearen ondorioz. Bestalde, bideoak edo ikus-entzunezko beste jarduera batzuk (diseinu grafikoa, web-orriak edo 3D animazioa) egitea zabalduago dago gizonen artean emakume gazteen artean baino.

Adin-taldeen arabera, elkarrizketa egin zaien gazteenak (15-19 urte) aktiboagoak dira galderan planteatutako jarduera askotan, eta, beraz, ehuneko handiena dute azken urtean jarduera artistiko edo kulturalen bat egiteari dagokionez (% 81,2). 20 eta 24 urte bitartekoen artean, % 77,8 da ehunekoa, eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean, % 71,2. Jarduera zehatzak aztertuta, ikusten dugu adinaren arabera alderik handiena bideoak edo ikus-entzunezko beste jarduera batzuk egiteko jardueran dagoela, ehuneko bederatzi puntu egiten baitu behera adin-talde batetik bestera, adinak gora egin ahala. Kontakizunak, poesia, artikuluak, etab. idazten dutenen ehunekoak ere behera egiten du, ia erdira, 20 urtetik beherakoen eta 25 urtetik gorakoen ehunekoak aintzat hartuta (% 31,9 eta % 15,6, hurrenez hurren). Eta hurrengo alderik nabarmena dantzaren arlokoa da, nabarmen behera egiten baitu 20 urtetik aurrera.

Azken urtean egindako jarduera artistiko edo kulturalen bilakaeran, telefono adimendunek eta sare sozialek adierazle honetan izan duten inpaktu handia nabarmentzen da. Izan ere, argazkiak edo bideoak (edo ikus-entzunezko beste jarduera batzuk) egiten dituzten gazteen ehunekoa aurreko urteetako baino askoz handiagoa da.

Nabarmen gora egin dute ere pintura edo beste arte plastiko batzuk egiten dituztenen ehunekoak, baita musika-tresnaren bat jotzen dutenen ehunekoak ere. Eraitza hau lotuta egon daiteke konfinamenduarekin eta, egoera horretan, jarduera hauek aisialdiko aukera gisa baliatzearekin.

Jarduera batzuek izan duten gorakadaren ondorioz, jarduera artistiko edo kulturalen bat egiten dutenen ehunekoak nabarmen gora egin du azken urte hauetan. Teknologia berrien inpaktuak eta gazteen artean smartphoneak orokortu izanak 2016an ere islatu zuten halako jarduerak egiten dituztenen ehunekoaren gorakada, eta konfinamenduak are gehiago handitzea ekarri du. 2012ko % 42,9tik 2021eko % 76,8ra pasatu da, hau da, ia bikoiztu egin da jarduera artistiko edo kulturalen bat egiten duten gazteen ehunekoa.

Hurrengo grafikoak erakusten du jarduera artistiko edo kulturalak izan duten gorakada ez dagoela mugatuta aldagai bakarrera, gorakada emakumeen zein gizonen artean gertatu baita, eta bost urteko hiru adin-taldeetan, eta guztietan % 70etik gora egon da 2021ean.

7.9 grafikoa. **Azken urtean jarduera artistiko edo kultural hauek egin dituzten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, jarduerak banan-banan aztertuta. 2021 (%)**



7.16 taula. **Azken urtean jarduera artistiko edo kultural hauek egin dituzten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, jarduerak banan-banan aztertuta, sexuaren eta adin-taldearen arabera. 2021 (%)**

Azken urtean egin duzu ondoko jarduera artistiko edo kulturalik?


(Jarduera bakoitza egin dutenen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Argazkigintza	49,2	51,2	46,9	49,2	51,1	47,2
Bideogintza edo beste ikus-entzunezkoak egin, esaterako diseinu grafikoa, web orriak, 3D animazioa edo antzekoak	32,8	28,0	37,0	41,6	32,4	23,8
Margolaritza edo marrazketa edo beste arte plastiko batzuk egin, hala nola, zeramika, eskultura, grabatuak eta abar	31,7	39,8	23,7	33,6	33,0	28,3
Musika-tresna bat jo	24,2	25,1	23,0	25,6	27,0	19,8
Kontakizunak, poesia, artikulua edo antzekoak idatzi	22,7	22,9	22,4	31,9	20,0	15,6
Dantza (klasikoa, modernoa, tradizionala...)	15,9	23,4	8,5	21,0	13,5	12,7
Abesbatza edo musika talde batean abestu	6,1	5,9	6,4	7,8	5,0	5,5
Antzerkia egin	4,9	4,5	4,9	6,6	3,7	4,1
Bertsolaritza	3,4	3,2	3,6	5,8	2,2	1,9
Betelako jarduera artistikoren bat (zirkua...)	4,7	4,1	5,3	4,5	4,6	5,0
AZKEN URTEAN JARDUERA ARTISTIKOREN BAT EGIN DUTENAK	76,8	79,1	74,5	81,2	77,8	71,2
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

7.17 taula. **Inkesta egin aurreko hamabi hilabeteetan jarduera artistiko edo kultural hauek egin dituzten Euskadiko 15eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoen bilakaera (%)**

Azken urtean egin duzu ondoko jarduera artistiko edo kulturalik?			
(Jarduera bakoitza egin dutenen %)	2012	2016	2021
Argazkigintza	19,0	28,2	49,2
Bideogintza edo beste ikus-entzunezkoak egin, esaterako diseinu grafikoa, web orriak, 3D animazioa edo antzekoak	10,9	17,9	32,8
Margolaritza edo marrazketa edo beste arte plastiko batzuk egin, hala nola, zeramika, eskultura, grabatuak eta abar	15,3	19,5	31,7
Musika-tresna bat jo	10,4	14,7	24,2
Kontakizunak, poesia, artikulatuak edo antzekoak idatzi	15,5	21,3	22,7
Abesbatza edo musika talde batean abestu	8,6	11,6	15,9
Abesbatza edo musika talde batean abestu	4,0	6,0	6,1
Antzerkia egin	2,4	4,9	4,9
Bertsolaritza	1,4	1,9	3,4
AZKEN URTEAN JARDUERA ARTISTIKOREN BAT EGIN DUTENAK	42,9	55,1	76,8
(n)	1.500	1.500	2.495

Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

7.10 grafikoa. **Inkesta egin aurreko hamabi hilabeteetan jarduera artistiko edo kulturalen bat egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Euskadiko Gazteak seriea

08.

Sare sozialak eta Internet

«Aspalditxotik entzuna —eta ikasia— dut sareak eskeintzen dizkigun onuren eta ezartzen dizkigun ohituren arteko orekan maneiatzeko zailtasunen berri, eta halaber honek eragiten dizkigun (barne) gatazken jakitun naiz. Bai, sarea. Elkartzeko, jasotzeko, eskeintzeko, biltzeko, emateko, hartzeko, zabaltzeko, eta balizko erorketaren batetik babesteko ere eskeinia zaigun tresna hori... eta aldi berean, harrapatzeko, lotzeko, korapilatzeke, ezarri eta baldintzapean jazartzeko; finean, menperatzeko. Ezer ez da ordainik gabea dohakotzat saltzean»¹¹.

Gazteen Euskal Behatokiaren Euskadiko Gazteak 2000 edizioan baieztatu zen gazteen artean ez zegoela oso zabalduta Interneten eguneroko erabilera, soilik % 46k esan baitzuten noizbait erabili izan zutela; % 63k, berriz, urte bat baino gutxiago zeramaten nabigatzen. Ordutik hona, Interneten erabilera ia biztanle guztiengana zabaltzeaz gainera, nabigatzeko gailuak aurrez ikusteko zaila zen moduan garatu dira. Hain zuzen ere, azken faktore hori, smartphoneen garapena, da Internet erabiltzeko eta Interneten sartzeko ohiturak izandako gorakadaren eragilea.

Interneten erabilera hain orokortua eta jarraitua da, ezen duela bi hamarkada egokiak ziren galderak gaur planteatu ere ezin baitira egin. Halaber, sare sozial berriak agertzen dira etengabe; maiz aurrekoak uztea edo haien erabilerak behera egitea eragiten dute, edo erabiltzaileen profila aldatzea. Gizarte likidoaren adierazle gorenetakoa da Internetekin orokorrean lotutako guztia, eta sare sozialekin lotutakoa bereziki. Zaila da imajinatzea zein izango diren etorkizuneko sare sozialak, eta are gutxiago zehaztera ausartzea. Horrez gainera, aurrerapen teknologikoen nahi gabeko ondorioak beranduegi denean baino ezin dira egiaztatu sarritan.

¹¹ Arsuaga Goñi, Axier. 2021eko irailaren 19a, 23:31. Facebook-en posta. <https://www.facebook.com/axier.goni/posts/6222807231095093>

8.1.

Sare sozialen eguneroko erabilera

Jarraian Euskadiko gazteen sare sozial nagusien eguneroko erabilera aztertuko dugu, kontuan hartuta, batetik, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak eta, bestetik, bost urteko adin-taldeen artekoak.

Gazteen % 99,0k erabiltzen dituzte WhatsApp, Telegram eta berehalako mezuak jaso eta bidaltzeko bestelako aplikazioak, hau da, Euskadiko ia gazte guztiek erabiltzen dituzte. Gehien erabilitako bigarren sare soziala Instagram da: Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 82,2k erabiltzen dute egunero. Youtube dago hirugarren lekuan: Euskadiko gazteen % 81,8k erabiltzen dute egunero. Zerrendako laugarren lekuan Spotify dago, eta gazteen % 71,2k erabiltzen dute egunero (ikerketa honetan Spotify sare sozialtzat jo da, nahiz eta erabiltzaileen arteko interakzioa beste sare sozial batzuetan baino mugatuago egon. Hala ere, jarraitzaile eta jarraituaren kontzeptuak daudenez eta zerrenda pertsonalizatuak, albumak eta bestelakoak partekatzeko aukera dagoenez, gazteek gehien erabiltzen dituzten sare sozialen zerrendan sartzea erabaki dugu).


Hortik aurrera, gazteen gutxiengo batek erabiltzen ditu egunero gainerako sare sozialak (talde jakin batzuetan, hala ere, gehiago izan daitezke, aurrerago ikusiko dugunez). Zerrendako bosgarren lekuan Twitter dago: gazteen % 37,2k erabiltzen dute egunero edo ia egunero. Atzetik dago Facebook, gazteen % 28,3k erabiltzen

baitute egunero. % 27,9k erabiltzen dituzte LinkedIn, Infojobs edo lana bilatzeko beste sare sozial batzuk. Gazteen antzeko ehuneko batek erabiltzen du TikTok bideo laburrak sortu eta partekatzeko (% 27,1) edo Zoom, Meet, Houseparty edo taldeko bideoedak egiteko beste aplikazio batzuk (% 27,0).

Sare sozial horien atzetik, % 20tik beherako balioekin, Twitch transmisioak zuzenean egiteko aukera ematen duen plataforma dago lehen postuan. Haren funtzio nagusia da zuzenean ematea bideojokoak, eSports lehiaketak eta bideojokoekin lotutako beste emankizun batzuk. Webgunean edukia zuzenean ikusi ahal da, edo eskaera eginda¹². Streamer ospetsuenen jarraipena egiteko aukera bat du. Erabiltzaileek jokoaren tituluen arabera edo joko ezagunen arabera nabigatu ahal dute. Beren kanal gustukoenen jarraipena egiteko aukera ere ematen die aplikazioak, eta txat bat dute aplikazioaren barruan, beste ikusle batzuekin txateatu ahal izateko. Gazteen % 18,0k erabiltzen dute egunero Twitch. Twitchen atzetik dago Snapchat, irudietarako, bideoetarako eta argazki-iragazkietarako multimedia euskarria duten telefono adimendunetarako aplikazioa, hartzailearen gailutik segundo gutxira desagertzen diren argazkiak bidaltzeko aukera ematen duena. Gazteen % 13,0k erabiltzen dute egunero Snapchat. Azkenik, gazteen % 6,4k diote egunero erabiltzen dituztela Tinder, Meetic, Badoo edo jendea ezagutzeko beste sare sozial batzuk.

¹² <https://eu.wikipedia.org/wiki/Twitch>

8.1 grafikoa. **Sare sozial bakoitza egunero erabiltzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, 2021ean (%)**



Sare sozial bakoitzaren eguneroko erabileraren ehuneko hauek 2018an erregistratutakoekin alderatzen baditugu (hau da, hiru urte lehenagoko datuekin), ikusten da aurreko datuak ditugun guztietan gora egin duela erabilerak, Facebooken izan ezik, erabiltzaile gazteak galdu baititu.

Lehenago ikusi dugun moduan, WhatsApp edo berehalako mezularitzako beste aplikazio batzuk, Telegrama edo Line adibidez, asko hedatu dira azken urteetan, eta, horren ondorioz, haien bilakaera ia % 100ekoa da. Aplikazio horiek smartphone bat duten ia pertsona guztiek erabiltzen dituzte.

Instagram 2018an % 74,1ek egunero erabiltzetik 2021ean % 82,2k erabiltzera pasatu da, eta sare sozial hau hazten ari da etengabe. Izan ere, gaur egun, 2021ean, 1.221 milioi erabiltzaile aktibo ditu. Badirudi pandemiak Instagramen erabilera sustatu duela maila orokorrean, eta 2020an seigarren postuan egotetik (1.000 milioi erabiltzaile) 2021ean laugarrenean egotera pasatu da (guztira, 1.220 milioi erabiltzaile, hau da, +% 22)¹³.

Youtuberaren erabilerak ere gora egin du Euskadiko gazteen artean, eta egunero erabiltzen dutenen ehunekoa % 73,7tik % 81,8ra pasatu da. Google eta gero, Youtube munduan gehien bisitatutako bigarren webgunea da, eta

¹³ Google-en bilaketa:

https://www.google.com/search?q=%C2%BFCu%C3%A1ntos+usuarios+tiene+Instagram+en+2021?&source=lmns&bih=625&biw=1366&rlz=1C1CHBD_esES927ES927&hl=es&sa=X&ved=2ahUKewiWp9mGqNbZAhVBZxoKHSq9ALUQ_AUoAHoECAEQAA

konfinamenduan Twitter egunero erabiltzen dutenen ehunekoak ere gora egin du Euskadiko gazteen artean, % 17,7tik % 37,2ra.

LinkedIn, Infojobs edo lana bilatzeko beste sare sozial batzuen erabilerak ere gora egin du nabarmen, % 8,6tik % 27,9ra. Bilakaera hori logikoa da Covid-19aren pandemiak ekarritako konfinamenduak eta mugikortasunaren murrizketak kontuan hartuta.


Beste alde batetik, 2018an gazteen % 1ek baino gutxiagok erabiltzen zituen bi sare sozialek, TikTok eta Twitch sareek hain zuzen, egunero % 27,1 eta % 18,0 erabiltzaile dituzte gaur egun, hurrenez

hurren. Datu horrek agerian uzten du sare sozialen arloan munduan dagoen aldakortasun handia, eta pandemian zehar, aisialdiari begira, eskaini dituzten eta eskaintzen ari diren aukerak.

Pandemiak taldeko bideodeiak egiteko aukera ematen duten sare sozial edo aplikazio batzuen erabileraren bultzada ere ekarri du: Zoom, Meet, Houseparty, etab. Euskadiko gazteen laurdenak erabiltzen ditu egunero, 2021ean.

Jendea ezagutzeko sare sozialek ere —Tinder, Meetic edo Badoo— gora egin dute urte hauetan, eta 2018an egunero gazteen % 0,6k erabiltzetik 2021ean % 6,4k erabiltzera pasatu da.

8.2 grafikoa. **Sare sozial bakoitzaren eguneroko erabileraren bilakaera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean* (%)**



* Ez dago aurreko daturik Spotify eta taldeko bideodeiak egiteko aplikazioen erabilerari buruz.

Taldeen arabera, erabileran dauden ezberdintasunak aztertzen baditugu, berehalako mezularitza-aplikazioak (WhatsApp, Telegram, etab.) hain integratuta daude, ezen ez baitago ia alderik taldeen artean. Hala ere, 25 eta 29 urte bitarteko gazteen kasuan, egunero erabiltzen dutenen ehunekoa % 99,8ra iritsi da.

Instagramen kasuan, badaude alde esanguratsuak kontsultatu diren pertsonen adin-taldearen arabera. Zenbat eta gazteago izan, gehiago erabiltzen da egunero sare sozial hau, zehazki, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen % 88,0k erabiltzen dute egunero; 20 eta 24 urte bitarteko % 84,0k, eta 25 eta 29 urte bitarteko % 73,8k. Are nabarmenagoa da sexuaren araberrako aldea, sare hori egunero erabiltzen duten emakume gazteen ehunekoa gizon gazteena baino hamar puntu handiagoa baita (% 87,3 eta % 77,7, hurrenez hurren).

Youtube da gehien erabilitako sarea talde guztietan, baina gehiago erabiltzen dute gizonak emakumeek baino (% 87,3 eta % 76,4, hurrenez hurren), eta 20 urtetik beherakoek (% 86,8).

Spotifyren kasuan ez dago alde handirik, baina erabilera apur bat hedatuago dago 25 urtetik beherakoek artean. Emakumeek ere gizonak baino apur bat gehiago erabiltzen dute.

Twitteren erabilerari dagokionez, gainerako sare sozialekin gertatzen ez den zerbait gertatzen da: 20 eta 24 urte bitarteko gazteek gehiago erabiltzen dute. Adin-talde horretan, % 48,7k esan dute egunero konektatzen direla. Bost urteko beste bi taldeetan, berriz, ehunekoa nabarmen txikiagoa da (% 30,7, 15 eta 19 urte bitartekoek artean, eta % 32,6, 25 eta 29 urte bitartekoek artean).

Gazteenek Facebook erabiltzeari uzteko joera argia da: 15 eta 19 urte bitarteko gazteen % 7,9 baino ez dira konektatzen egunero. 20 eta 24 urte bitartekoek artean, aldiz, % 26,6 konektatzen dira egunero, eta 25 eta 29 urte bitartekoek artean, % 51,6 (izan ere, adin-talde horretan Facebook Twitter baino gehiago erabiltzen da).

Antzeko zerbait gertatzen da lana bilatzeko sare sozialekin (LinkedIn, Infojobs, etb.). Adinak gora egin ahala eta ikasketak amaitu ahala, gehiago dira egunero erabiltzen dituzten gazteak, eta 25 eta 29 urte bitartekoek % 43,8 erabiltzen dituzte egunero (izan ere, adin-talde horretan, lana bilatzeko sare sozialak Twitter baino gehiago erabiltzen dira).

TikTok gehiago erabiltzen dute emakumeek gizonak baino (% 32,4 vs % 22,1), eta erabilerak gora egiten du nabarmen adinari lotuta: 15 eta 19 urte bitarteko gazteen ia erdiak (% 49,4) erabiltzen du egunero.

Snapchat ere gehiago erabiltzen da 20 urtetik beherakoek artean (% 26,2); adin horretatik gorakoek artean, berriz, % 10ek baino gutxiagok erabiltzen dute egunero.

Twitchek ere jarraitzaile gehiago ditu gazteen artean (20 urtetik beherakoek % 25,8k erabiltzen dute egunero). Bestalde, Twitchen erabilerari dagokionez, alde nabarmenak daude sexuaren arabera: emakume gazteen % 8,0k baino ez dute erabiltzen, eta gizonen artean, berriz, % 27,4k. Eraitza hori logikoa da kontuan hartzen bada bideojokoek partidak emateko erabiltzen dela batez ere, eta bideojokoak aisialdiko aukera hedatuagoa dela gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino, aurreko kapituluak ikusi dugunez.

Taldeko bideodeiak egiteko sare sozialen edo aplikazioen erabilera ohikoagoa da ere adinak behera egin ahala, baina aldeak ez dira hain nabarmenak (15 eta 19 urte bitartekoek % 32,6k erabiltzen dituzte egunero; ehunekoak % 21,7ra egiten du behera 25 eta 29 urte bitartekoek artean). Edonola ere, ez dago alde esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean.

Azkenik, jendea ezagutzeko sare sozialen (Tinder, Meetic edo Badoo) erabilera ohikoagoa da gizonen artean emakume gazteen artean baino (% 9,9 eta % 2,8, hurrenez hurren), eta adinak gora egin ahala (15 eta 19 urte bitartekoek % 2,4k erabiltzen dituzte; eta 25 urtetik gorakoek artean, berriz, % 9,0k).

Bestalde, egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa kalkulatzeko badugu (berehalako mezularitza-zerbitzua ematen dutenak sartu gabe, hala nola WhatsApp, Telegram eta antzekoak, ez baitute bereizketarik egiten, erabiltzaile kopuru handiagatik), % 84,3 da 2021ean. 2018an, berriz, % 35,6 izan zen. Sare sozialen aniztasuna, bakoitzaren ahalmenak, haien espezializazioa (musika, kirola, kontaktuak egiteko, etab.) direla-eta, egunero gutxienez hiru sare sozial erabiltzen dituztenen kopuruak gorakada handia izan du.

Taldeen arteko ezberdintasunak ez dira esanguratsuak, guztietan ehunekoa % 80etik gorakoa baita: gizonen artean, % 83,2, eta emakumeen artean, % 85,7. Adin-taldean

arabera, 25 urtetik beherakoen artean apur bat altuagoa da egunero hiru sare sozial baino gehiago erabiltzen dituztenen ehunekoa (% 85,7) 25 eta 29 urte bitartekoaren artean baino (% 81,3).

2018an, aldiz, egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen zituztenak gutxiengoa ziren talde guztietan eta, edonola ere, erabilera apur bat hedatuago zegoen emakumeen artean gizonen artean baino, eta gehiago erabiltzen zituzten 25 eta 29 urte bitarteko gazteek. Denbora-tarte honetan agertu diren sare sozial berriak (TikTok, Twitch edo taldeko bideodeiak egiteko aukera ematen duten sare sozialak) hedatuago daude gazteenen artean, lehenago ikusi dugunez. Azalpena izan daiteke egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen duten ehunekoa gorakada handiagoa izan duela 20 urtetik beherakoen artean.


8.1 taula. **2021ean sare sozial bakoitza egunero erabili duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Orain adierazi sare sozial hauek egunero edo ia egunero erabiltzen dituzun						
(Baiezko erantzunen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
WhatsApp, Telegram edo bat-bateko mezularitzako beste aplikazio batzuk	99,0	99,2	98,9	97,9	99,5	99,8
Instagram	82,2	87,3	77,7	88,0	84,0	73,8
Youtube	81,8	76,4	87,3	86,8	79,8	78,6
Spotify	71,2	73,3	69,2	72,6	74,3	66,6
Twitter	37,2	33,7	40,7	30,7	48,7	32,6
Facebook	28,3	30,5	26,3	7,9	26,6	51,6
LinkedIn, Infojobs, Indeed edo lana bilatzeko edozein sare	27,9	26,6	29,1	6,6	34,8	43,8
TikTok	27,1	32,4	22,1	49,4	20,3	10,3
Zoom, Meet, Houseparty edo taldekako bideo-deiak egiteko beste batzuk	27,0	28,1	26,1	32,6	26,2	21,7
Twitch	18,0	8,0	27,4	25,8	15,9	11,7
Snapchat	13,0	14,8	11,4	26,2	8,8	3,2
Tinder, Meetic, Badoo edo ligatzeko edo harremanetan jartzeko beste batzuk	6,4	2,8	9,9	2,4	8,1	9,0

Orokorrean, sare sozialetan elkarri eragiteko aplikazio guztiak egokituta daude Interneteko konexioa ezartzeko gai diren gailu guztietarako, eta, sakelako telefonoen

hedapena eta nonahikotasuna kontuan hartuta, pentsatzekoa da sare sozialen erabilerak, orokorrean, gora egiten jarraituko duela, sare zehatzak aldatu arren.

8.3 grafikoa. **Egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



2018ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak eta sare sozialak*)

8.2.

Youtuber, gamer eta influencerren jarraipena

Youtuber, gamer edo influencer deritzenen fenomeno ez da sare sozial jakin batean agertu den fenomeno. Ikerketa honetan, Euskadiko gazteei galdetu diegu ea halakoren baten jarraitzaileak diren, nahiz eta haien artean oso ezberdinak izan:

- Youtuberra ikus-entzunezkoen ekoizlea eta kudeatzailea da, eta YouTube erabiltzen du komunikatzeko plataforma gisa. Youtuber batzuek babesle korporatiboak dituzte, zeinek ordaindu egiten baitute haien bideoetan produktuak jar ditzaten edo iragarkiak ekoizteko linean.
- Lanbidearen ikuspegitik, gamer profesionala da dirua jasotzen duena bideojokoetan aritzeagatik. Zaleak, berriz, ondo pasatzeko baino ez du jokatzeko. Dibertsioa eta diru-sarrerak bateraezinak ez izan arren, jolasteagatik dirua jasotzea da gamerra eta erabiltzailea bereizten dituen. Twitch sare soziala da gamer gehienen joko-eremua, baina Youtuben ere presentzia nabarmena dute.
- Influencerra gai jakin batean nolabaiteko sinesgarritasuna duen pertsona da, eta, sare sozialetan duen presentzia eta eraginagatik, iragarle interesgarria izan daiteke markentzat. Influencerren presentzia nabarmenagoa da Instagramen, baina Youtuben ere badaude.

Sare sozialek aldaketak izan dituzte, eta haien erabiltzaileetako batzuen ospea entzute publikoa lortu zuten sare sozialetik harago hedatzen ari da; beraz, youtuberra, gamerra eta influencierra bereizten dituen marra, hau da, youtuberra eragin handiko edukien

sortzailearengandik bereizten duen marra lausotzen ari da.


Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 62,4k diote youtuber, gamer edo influencerren jarraitzaileak direla; % 14,4k diote lehen bazirela, baina orain ez direla, eta % 23,2k diote ez direla inoiz izan.

Youtuber, gamer edo influencerren jarraitzaile izatearen fenomeno bereziki zabaldua dago elkarrizketatutako gazteen artean: 15 eta 19 urte bitarteko gazteen % 73,1ek jarraipen hori egiteko ohitura dute. Adinak gora egin ahala, behera egiten du youtuber, gamer edo influencerren jarraitzaile direla dioten pertsonen ehunekoak: % 61,4, 20 eta 24 urte bitartekoen artean, eta % 52,0, 25 eta 29 urte bitartekoen artean.

Elkarrizketatutako gazteen sexuaren arabera, ez dago alde esanguratsurik, emakume gehienak zein gizon gehienak youtuber, gamer edo influencerren ohiko jarraitzaileak baitira (% 61,8 eta % 63,1, hurrenez hurren). Erabiltzen dituzten sareak kontuan hartuta, pentsa daiteke hedatuago dagoela gamarren jarraipena gizonen artean, baina, hipotesi hori egiaztatzeko, aukera horiek bereizita egin beharko litzateke galdera etorkizuneko ikerketetan.

Youtuber, gamer edo influencerren ohiko jarraitzaile izateko aukerak gora egin du azken urteetan: 2018ko % 52,4tik 2021eko % 62,4ra. Kontrakoa gertatu da jarraitzaile ez direnen kasuan: 2018an % 38,7k esan zuten ez zutela inoiz egin halakoen jarraipena; 2021ean, berriz, ehunekoa % 23,2 izan da.

8.4 grafikoa. **2021ean youtuber, gamer eta influencerren jarraitzaile izan diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteak (%)**



8.5 grafikoa. **Youtuber, gamer eta influencerren jarraitzaile diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, 2021ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**





Gráfico 8.6. **Youtuber, gamer eta influencerren jarraitzaile diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera (%)**



2018ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak eta sare sozialak)

8.3.

Blog eta Youtubeko kanal propioak

Interneten nabigatzen duten pertsona gehienak edukien kontsumitzaileak dira, baina badaude edukiak sortzen dituztenak ere: webguneak, testuak, argazkiak, bideoak, etab.


Jardun hori neurtzeko asmoz, gazteei galdetu zaie ea gaur egun blog propiorik edo Youtubeko kanal propiorik duten. Euskadin, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 9,0k blog pertsonalen bat edo Youtubeko kanal propioaren bat du gaur egun. % 7,6k halakoren bat izan dute lehenago, baina orain ez dago aktibo.

Blog pertsonal bat edo Youtubeko kanal propio bat izateari dagokionez, sexuaren eta adinaren arabera aztertuta, ehunekoa handiagoa da mutilen artean (% 12,4k


badaukate gaur egun, eta % 10,7k lehenago izan dute) eta 15 eta 19 urte bitartekoen artean (% 9,7k, gaur egun, eta % 9,4k, lehenago). Hala ere, inoiz blog pertsonal bat edo Youtubeko kanal propio bat izan ez duten ehunekoak oso handiak dira orokorrean, eta gora egiten dute adinak gora egin ahala.

Blog pertsonalen bat edo Youtubeko kanal propioaren bat aktibo duten gazteen ehunekoak gora egin du 2018ko % 3,5etik 2021eko % 9,0ra. Berez, gorakada handia da, ia hirukoiztu egin baita kopurua, baina, hala ere, datu horrek oraindik ere islatzen du gazteak edukien kontsumitzaile direla batez ere, edukien sortzaile baino.


8.7 grafikoa. **Blog pertsonalen bat edo Youtubeko kanal propioaren bat duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, 2021ean (%)**



8.8 grafikoa. **Blog pertsonalen bat edo Youtubeko kanal propioen bat duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, 2021ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**



8.9 grafikoa. **Blog pertsonalen bat edo Youtubeko kanal propioen bat duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



8.4.

Sare sozialetan gehien erabilitako hizkuntzak


Euskadiko gazteen % 78,8k gaztelania dute ohiko hizkuntza sare sozialetan duen jardueran. %12,7k euskara lehenesten dute erabilera horretan, eta % 8,2k ingelesa erabiltzen dute nagusiki sare sozialetako interakzioetan.

Euskadiko gazteek sare sozialetan gehien erabilitako hizkuntzak lurralde historikoen arabera aztertuz gero, Euskadiko egoera soziolinguistikoaren analisitik ateratako ondorioen isla dira, hots, Gipuzkoa da, alde handiz, euskara gehien erabiltzen den lurralde historikoa. Kasu horretan, lurralde horretako gazteen % 22,9k nagusiki euskara erabiltzen dute sare sozialetako jardueran; Araban, berriz, ehuneko hori % 5,1 da, eta Bizkaian, % 8,0.

Edonola ere, gaztelania da hizkuntza erabiliena sare sozialetako jardunean hiru lurralde historikoetan, eta balioak antzekoak dira Araban (% 84,7) eta Bizkaian (% 84,4), eta nabarmen txikiagoa da Gipuzkoan (% 68,1).

Ingelesa da sare sozialetako jardunean Euskadiko gazteek gehien erabilitako hizkuntzetatik hirugarrena, eta balioak homogeneoak dira sexuaren, adin-taldeen eta lurralde historikoaren arabera (% 7 eta % 10 artean daude kasu guztietan). Gaztelania, euskara edo ingelesa ez den hizkuntza erabiltzen dutenen ehunekoak ez da % 1era iristen kasu batean ere ez.

8.10 grafikoa. **Sare sozialetan gehien erabilitako hizkuntzak, 2021ean (%)**



Elkarriketa egin zaien pertsonen sexua eta adina kontuan hartuta, ez dago alde esanguratsurik sare sozialetan gehien erabilitako hizkuntzei dagokienez, baina esan dezakegu neskek apur bat gehiago erabiltzen dutela euskara gizonak baino (% 14,4 eta % 11,2, hurrenez hurren), eta 25 urtetik gorakoak direla euskara eta ingelesa gutxien erabiltzen dutenak.

2018. eta 2021. urteen artean Euskadiko gazteek sare sozialetako interakzioetan gehien erabilitako hizkuntzek izan duten bilakaerak erakusten du euskararen erabilerak apur bat behera egin duela,


nahiz eta ez izan esanguratsua estatistikoki, baina aztertu egin beharko da ikerketa honen edo beste batzuen hurrengo edizioetan.

Bestalde, nabarmendu behar da ingelesaren erabilerak gora egin duela: 2018an gazteen % 3,3k lehenesten zuten; 2021ean, ordea, % 8,2k. Euskadiko gazteen hirueletasunak izan duen garapena sare sozialetan ingelesa adierazpen-hizkuntza bezala erabiltzeko gaitasunean ere islatu da. Bestalde, sare sozialek aukera ematen dute munduko edozein erabiltzailerekin interaktuatzeko.

8.2 taula. **Sare sozialetan gehien erabilitako hizkuntzak, 2021ean, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%)**

Zein hizkuntza erabiltzen duzu gehien sare sozialetan?									
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Euskara	12,7	14,4	11,2	12,8	14,6	10,8	5,1	8,0	22,9
Gaztelania	78,8	77,7	80,1	78,7	76,3	81,6	84,7	84,4	68,1
Ingelesa	8,2	7,5	8,6	8,3	9,0	7,2	9,6	7,3	8,8
Beste bat	0,3	0,5	0,1	0,3	0,1	0,5	0,6	0,2	0,2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893	420	1.199	781

8.11 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek sare sozialetan gehien erabilitako hizkuntzen bilakaera (%)**



2018ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak eta sare sozialak)

8.5.

Sare sozialetan jazarpena edo umiliazioak bizitzea

Ziberjazarpena da teknologia digitalen bidez egindako jazarpena edo larderia. Sare sozialetan, mezularitza-plataformetan, joko-plataformetan gerta daiteke, eta sakelako telefonoen bidez. Behin eta berriro agertzen den portaera da, beste pertsona batzuk beldurrarazteko, haserrearazteko edo umiliatzeko, besteak beste ekintza hauetako baten bidez: sare sozialetako taldeetatik botatzea, norbaiti buruzko gezurrak zabaltzea edo argazkiak argitaratzea sare sozialetan, mezu mingarriak edo mehatxuak bidaltzea mezularitza-plataformen bidez eta identitatea ordeztzea.

Ikerketa honetan, ziberjazarpenentzat jo daitezkeen lau jokabide mota aztertu dira: WhatsApp taldeetatik kanporatzea; sare sozialetan identitatea ordeztzea; interesdunaren baimenik gabe, sare sozialetan bideo edo argazki labainak edo umiliagarriak zabaltzea, eta, mezuen bitartez, norbaiten jazarpena jasatea (iruzkin desatseginak, irainak eta/edo mehatxuak).

8.5.1.

WhatsApp taldeetatik kanporatzea


Euskadiko gazteen % 35,3 WhatsApp talde batetik kanporatuak izan dira noizbait, nahi izan gabe. % 2,7k esan dute sarritan gertatu zaiela, eta, beraz, gazteen % 38,0k diote esperientzia hori bizi izan dutela. Bestalde, % 60,7k baieztatu dute ez dituztela inoiz kanporatu WhatsApp talde batetik bere borondatearen kontra.

WhatsApp talde batetik askotan bota dituztenen ehunekoak orokorrean txikiak badira ere, ezberdintasun batzuk daude elkarriketa egin zaien pertsonen adinaren arabera. Hala, esan dezakegu 15 eta 19 urte bitartekoen artean gehiagotan jasan dutela WhatsApp talde batetik askotan kanporatua izanaren esperientzia (% 4,2); ehuneko horrek behera egiten du adinak gora egin ahala, eta % 2,2 da 20 eta 24 urte bitartekoen artean, eta % 1,6, 25 eta 29 urte bitartekoen artean.

Bestalde, adinak gora egin ahala gora egiten du ere WhatsApp talde batetik inoiz edo ia inoiz ez dituztela bota dioten ehunekoak: 15 eta 19 urteko bitartekoen taldean, % 51,6; 20 eta 24 urte bitartekoen taldean, % 59,0, eta 25-29 urtekoen taldean, % 72,1. Galderari erantzun dioten sexua kontuan hartuta, WhatsApp talde batetik kanporatua izanaren esperientzia ohikoagoa da gizonen artean (% 3,3k diote askotan bizi izan dutela, eta % 38,0k, noizbait) emakumeen artean baino (% 2,1k askotan bizi izan dute, eta % 32,6k, noizbait).

WhatsApp taldeetatik kanporatzeko joerak apur bat gora egin du 2018ko datuekin alderatuta. WhatsApp talde batetik askotan kanporatu izan dituzten gazteen ehunekoak % 1,6tik % 2,7ra egin dute gora; arazo hori noizbait izan dutenen ehunekoak, berriz, 2018ko % 32,1etik 2021eko % 35,3ra. Guztira, WhatsApp taldeetatik kanporatua izanaren esperientzia bizi izan dutenen ehunekoa % 33,7 izatetik % 38,0 izatera pasatu da.

8.12 grafikoa. 2021ean WhatsApp taldeetatik kanporatu dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa (%)




8.3 taula. 2021ean WhatsApp taldeetatik kanporatutakoei buruzko datuak, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Zu inoiz izan zara baztertua WhatsAppeko talde batetik? Bota egin zaituzte horrelako talderen batetik?

(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	2,7	2,1	3,3	4,2	2,2	1,6
Noizbait	35,3	32,6	38,0	42,4	38,2	24,8
Inoiz ez	60,7	64,1	57,3	51,6	59,0	72,1
Ez duzu erantzun nahi	1,3	1,2	1,4	1,7	0,7	1,5
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

8.13 grafikoa. WhatsApp talderen batetik kanporatu dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



2018ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak eta sare sozialak)

8.5.2.

Sare sozialetan identitatea ordezte


Sare sozialetan identitatea ordezea gutxiagotan gertatzen da WhatsApp taldeetatik kanporatzea baino. Izatez, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 87,7k baieztatu dute inoiz ez dutela haien identitatea ordeztu sare sozialetan. % 10,5ek esan dute noizbait gertatu zaiela, eta % 0,7k, askotan bizi izan dutela.

Sare sozialetan identitatea ordeztu dieten pertsonen ehunekoak nahiko homogeneoak dira

sexuaren eta adin-taldearen arabera. Emakumeen % 10,4ri ordeztu diete identitatea sare sozialetan (askotan edo noizbait); gizonen kasuan, berriz, % 12,0ri. Adin-taldearen arabera ez dago ia alderik ehunekoetan.

Datuen bilakaerak erakusten du sare sozialetan inoiz identitatea ordeztu dietenen ehunekoak apur bat gora egin duela, 2018ko % 8,7tik 2021eko % 11,2ra.

8.14 grafikoa. **Sare sozialetan identitatea ordeztu dieten 15 eta 29 urte bitarteko gazteei buruzko datuak (%)**




8.4 taula. **2021ean sare sozialetan identitatea ordeztu dietenei buruzko datuak, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Eta datuak faltsututa, zure ordeztu aritu dira inoiz sare sozialen batean zure baimenik gabe?

(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	0,7	0,3	1,1	1,0	0,5	0,6
Noizbait	10,5	10,1	10,9	10,9	10,5	10,1
Inoiz ez	87,7	88,6	86,8	86,8	88,3	88,0
Ez duzu erantzun nahi	1,1	1,1	1,2	1,3	0,8	1,2
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

8.15 grafikoa. **Sare sozialetan identitatea ordeztu dieten 15 eta 29 urte bitarteko gazteei buruzko datuen bilakaera (%)**



2018ko datuen iturria: Euskadiko gazteak eta sare sozialak

8.5.3. Sare sozialetan irudi konprometituak edo umiliagarriak zabaltzea interesdunaren baimenik gabe

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 12,2k esan dute noizbait gertatu zaiola bere bideo edo argazki labainak edo umiliagarriak zabaltzea sare sozialetan bere baimenik gabe. % 0,7k diote askotan gertatu zaiela.


Hala ere, gazte gehienek (% 85,8) diote inoiz ez direla zabaltu sare sozialetan haien bideo edo argazki labainak edo umiliagarriak haien baimenik gabe.

Sare sozialetan identitatea ordezteko jokabidearekin bezala, ez dago alde esanguratsurik sexuaren edo adinaren arabera eduki konprometituak edo umiliagarriak zabaltzeko jokabidea jasan dutenen

artean, baina badirudi jazarpen mota guztiak ohikoagoak direla gazteenen artean (15 eta 19 urte bitartekoen artean).

Jazarpen mota honen bilakaerak erakusten du beren baimenik gabe beren irudiak zabaltu izanaren esperientzia jasan duten gazteen ehunekoa minoritarioa dela, baina gora egin duela 2018ko % 7,2tik 2021eko % 12,9ra. Hau da, ia bikoiztu egin da. Sare sozialetan ahaztu egiten da askotan besteen pribatutasunak merezi duen errespetua, bai nahita, norbait umiliatu edo beheratzeko, bai ohartu gabe, helburu jakinik gabe.

8.16 grafikoa. **Sare sozialetan irudi konprometituak edo umiliagarriak zabaltzea. Beren baimenik gabe esperientzia hori bizi izan dutenen datuak, 2021ean (%)**




8.5 taula. **Sare sozialetan irudi konprometituak edo umiliagarriak zabaltzea. Beren baimenik gabe esperientzia hori bizi izan dutenen datuak, 2021ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Eta inoiz igo dute Internetera edo zabaldu dute sare sozialetan, zure baimenik gabe, konprometitua, iraingarria edo umilagarria den zure argazki edo bideoirik?

(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	0,7	0,5	0,9	1,2	0,7	0,1
Noizbait	12,2	12,5	11,7	12,9	12,0	11,7
Inoiz ez	85,8	85,8	86,0	84,5	86,4	86,5
Ez duzu erantzun nahi	1,3	1,2	1,4	1,4	0,9	1,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

8.17 grafikoa. **Sare sozialetan irudi konprometituak edo umiliagarriak, baimenik gabe, zabaltzeari lotutako datuen bilakaera 15 eta 29 urte arteko gazteen artean (%)**



2018ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak eta sare sozialak)

8.5.4.

Jazarpena, iruzkin desatseginak, irainak eta mehatxuak dituzten mezuen bidez


Euskadiko gazteen % 3,4k askotan jasan dute jazarpena iruzkin desatseginak, irainak eta mehatxuak dituzten mezuen bidez. Ehuneko esanguratsu batek jasan du jazarpen mota hori noizbait: % 20,1. Guztira, gazteen % 23,5 sentitu dira jazarrita sare sozialetan gutxienez behin. Alabaina, gehienek (% 75,3) ez dute inoiz edo ia inoiz bizi izan halako egoerarik.

Iruzkin desatseginak, irainak eta mehatxuak dituzten mezuen bidezko jazarpena askotan jasan dutenen ehunekoa handiagoa da 15 eta 19 urte bitartekoen artean, baina, noizbait (askotan edo noizbait) jasan dutenen ehunekoa aintzat hartzen badugu, ikusten da

gehiago direla 20 urtetik gorakoak. Hala, 20 eta 24 urte bitarteko gazteen % 26,7k jasan dute halako jazarpena noizbait, eta 25 eta 29 bitartekoen artean, % 25,0ek; 15 eta 19 urte bitartekoen artean, berriz, halako jazarpenaren biktimen ehunekoa % 19,1 da.

2018. eta 2021. urteen artean, nabarmen gora egin du noizbait edo askotan iruzkin desatseginak, irainak eta mehatxuak dituzten mezuak jaso dituzten gazteen ehunekoak. 2018an gazteen % 17,9k jaso zuten halakoren bat; 2021ean, berriz, % 23,5ek. Logikoa denez, behera egin du halako egoerarik inoiz bizi ez dutenen ehunekoak, 2018ko % 82,1etik 2021eko % 75,3ra.


8.18 grafikoa. **2021ean 15 eta 29 urte bitarteko gazteek iruzkin desatseginak, irainak eta mehatxuak dituzten mezuen bidez jasandako jazarpena (%)**



8.6 taula. **2021ean 15 eta 29 urte bitarteko gazteek iruzkin desatseginak, irainak eta mehatxuak dituzten mezuen bidez jasandako jazarpena, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)**

Inoiz sentitu duzu pertsona batek edo batzuek erasotzen edo jazartzen zintuztela, eten gabe mezuak bidaltzen, iruzkin desatseginak bidaltzen, iraintzen, mehatxatzen edo horrelakorik egiten?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	3,4	3,2	3,6	4,0	3,5	2,6
Noizbait	20,1	24,4	15,7	15,1	23,2	22,4
Inoiz ez	75,3	71,3	79,4	79,3	72,1	74,2
Ez duzu erantzun nahi	1,2	1,1	1,3	1,6	1,2	0,8
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
(n)	2.495	1.700	779	581	1.021	893

8.19 grafikoa. **15 eta 29 urte bitarteko gazteek iruzkin desatseginak, irainak eta mehatxuak dituzten mezuen bidez jasandako jazarpenaren bilakaera (%)**



2018ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak eta sare sozialak)

8.5.5.

Edozein ziberjazarpen mota askotan jasan dutenen bizipena


Atal honetan deskribatutako lau ziberjazarpen motak kontuan hartuta, argi izanda guztiek ez dutela larritasun bera edo angustia-gradu ezberdina eragin dezaketela, halakoetako edozein askotan bizi izan dutela dioten Euskadiko gazteen ehunekoa kalkulatu dugu. Ehuneko hori % 5,7 da.

Sexuaren edo adinaren arabera aldea ez dira esanguratsuak, baina berriro egiaztatzen da 20 urtetik beherakoak direla ziberjazarpena

behin baino gehiagotan jasan dutenak (% 6,6; nagusiagoek, % 4,4).

Datu hauek 2018koekin alderatuz gero, ikusten dugu ziberjazarpen-egoerak askotan bizi izan dituzten gazteen ehunekoa bikoiztu egin dela: 2018ko % 2,7tik 2021eko % 5,7ra pasatu da. Kasuen kopuruan gorakada handiena izan duen taldea 15 eta 19 urte bitartekoen taldea da, zeinean ehuneko 3,7 puntu egin baitu gora.

8.20 grafikoa. **Ziberjazarpena behin baino gehiagotan jasan duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



2018ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak eta sare sozialak*)

Emaitza esanguratsuenak

1. kapitulua **Okupazioa eta ikasketak**

Ikasketak dira gazte gehienek okupazio nagusia

Gazteen % 63,7k ikastea dute okupazio nagusitzat. Ehuneko horretatik, % 54,4k ikasketak dituzte okupazio bakarra, eta % 9,3ren kasuan, ikastea da okupazio nagusia, baina lanean ari da ere. Ikasleen ehunekoak gora egin du aurreko urteekin alderatuta.

Gora egin du euskaraz eta ingelesez ondo hitz egiten duten gazteen kopuruak

Hamar gaztetik zortzik (% 80,3) adierazi du ondo edo nahiko ondo hitz egiten duela euskaraz. Beraz, duela lau urteko kopurua gaititu da. Euskararen ezagutzaren gorakada hau hiru lurralde historikoetan gertatu da: Gipuzkoan % 86,5era iritsi da; Bizkaian % 77,4ra, eta Araban, % 75,8ra.

Ingelesaren ezagutza-mailak ere nabarmen gora egin du aurreko urteekin alderatuta: 2012an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 29,9k esan zuten gai zirela ingelesez ondo edo nahiko ondo hitz egiteko; 2016an, ehuneko hori % 41,5era iritsi zen, eta 2020an gehiengoa dira ingelesez ondo mintzatzen direla diotenak: % 63,0.

Nabarmen gora egin du hizkuntzak atzerrian ikasi dituzten edo ikasketak edo prestakuntza-trukeak atzerrian egin dituzten gazteen ehunekoak

Gazteen % 44,8k adierazi dute atzerriara joan direla noizbait hizkuntza bat ikastera edo hobetzera. 2016an % 22,6k adierazi zuten hori. Beste alde batetik, 2020an, gazteen % 35,5ek esan dute noizbait atzerriara joan direla ikastera edo eskola- edo unibertsitate-truke batean parte hartzera. Kopuru hori nabarmen handiagoa da 2016an halako esperientziaren bat izan zutela adierazi zutena baino (% 14,4).

Behera egin du euskal hezkuntza-sistematikiko gogobetetzeak, seguruenik Covid-19aren pandemiak eragindako egoeraren ondorioz

Euskadiko gazteen erdiak (% 52,6) uste du Euskadiko hezkuntza-sistema oso ona edo nahiko ona dela. % 28,9k ez dute ez iritzi onik eta ez txarrik, eta gainerako % 15,2ak uste dute nahiko txarra edo oso txarra dela.

Euskadiko hezkuntza-sistemari buruzko balorazioak okerrera egin du aurreko urteekin alderatuta, eta 2004ko mailetan kokatu da. Covid-19aren pandemiak eragindako egoera, aurrez aurreko eskolak eten eta online eskolekin ordeztu izana, praktikak eta ikasketa-trukeak egiteko ezintasuna, etab. izan daitezke beherakada horren arrazoiak.

2. kapitulua

Lan egoera eta egoera ekonomikoa

2020an, gazteen heren bat baino gehiago lanean ari da, eta hamar gaztetik seik laneko esperientziaren bat izan du

15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik hiruren (% 29,2) okupazio nagusia lana da. Bestalde, % 9,3k diote ikasle direla, baina lanen bat dutela.

Inkesta egin zenean, % 38,5ek baino ez zuten lana, baina, hala ere, Euskadiko gazteen % 61,0k lan-esperientziaren bat zuten.

Lan-esperientzia horietako batzuk atzerrian izan dira. Gazteen % 9,7k adierazi dute noizbait lan egin dutela beste herrialderen batean. Eta % 11,4 atzerriara joan da ikasketa-praktikak egitera, edo ikerketaren bat egitera, beka baten bidez.

Covid-19aren pandemia gorabehera, 2020an gora egin du, lan interesgarri bat lortzeko, Euskaditik kanpora emigratzeko prest dauden kopuruak

Gazteen erdia (% 51,5) prest dago atzerriara emigratzeko: % 10,0, Europar Batasunaren barruan, eta % 41,5, munduko edozein lekutara. Multzo horri Espainiako beste autonomia-erkidego batera bizitzera joateko prest daudenak (% 12,0) gehitzen badizkiogu, guztira Euskadiko gazteen % 63,5 prest dago Euskaditik kanpora emigratzeko, lan interesgarri bat eskaintzen badiote. Ehuneko hori azken hoge urteetan erregistratu den handiena da.

Lanean ari diren hamar gaztetik bat bekaduna da edo praktiketako kontratu bat du

Gazte gehienek (% 90,9) besteren kontura egiten dute lan; % 7,4 baino ez dira ari bere kontura lanera. Norberaren kontura lanean ari diren gazteen ehunekoa aurreko urteetako batezbestekoan mantendu da.

Inoren kontura lanean ari direnen artean, gehiago dira aldi baterako kontratua dutenak kontratu mugagabea dutenak baino (lana duten gazteen % 48,5 eta % 41,2, hurrenez hurren). Gazteen % 2,5ek diote besteren kontura ari direla lanean, baina kontraturik gabe.

Nabarmentzekoa da enplegua dutenen % 8,0 bekaduna dela edo praktiketako kontratu bat duela.

Enplegua duten hiru gaztetik bi lanaldi osoan ari dira lanean, eta hamarretik ia zazpi bere prestakuntzarekin bat datorren lana dute

Lana duten hiru gaztetik bik (% 65,3) 35 orduko edo gehiagoko lan-astea dute, hau da, lanaldi osoan ari dira lanean. Gazteen heren bat (% 33,3) lanaldi partzialean ari da lanean. Lanaldi partziala ohikoagoa da emakumeengan gizonengan baino (% 38,1 eta % 28,6, hurrenez hurren).

Lan egiten duten eta haien prestakuntzarekin edo ikasketekin oso lotuta edo nahiko lotuta dagoen lan bat duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoak gora egin du aurreko urteekin alderatuta, eta 2020an izan du baliorik altuena. Orokorrean lanean ari diren hiru gaztetik bik (% 67,7) ikasi dutenarekin lotutako lan bat dute.

Gora egin du lana eskuratzeko orduan diskriminazioa dagoela uste duten emakume gazteen kopuruak

2020an, hiru emakumetik batek (% 33,6) uste du lehiakide maskulino batek aukera gehiago izango lituzkeela kontratatua izateko gizona izateagatik. 2008an, sexua dela-eta lana lortzeko diskriminazioa zegoela uste zuten emakumeen ehunekoa hamar puntu txikiagoa zen (% 23,3).

Beste alde batetik, hautapen-prozesuren batean parte hartu duten bost gaztetik bat (% 18,2) diskriminatuta sentitu da gazte izateagatik.

Gazte gehienak familiaren diru-sarreretatik bizi dira, eta hamarretik hiruk baino ez dute 600 eurotik gora hilean

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 14,6 baino ez dira bizi bere diru-sarreretatik edo bere diru-sarreretatik eta bikotekidearen sarreretatik. Ehuneko horrek behera egin du 2008tik hona, orduan % 32,3 baitzen. Aitzitik, gehiengoaren diru-sarrerak gurasoen edo senideen diru-sarrerak baino ez dira edo diru-sarreraren zati bat senideena da (% 84,7).

Gurasoekiko mendekotasun hori logikoa da kontuan hartuta soilik % 29,1ek dituztela 600 eurotik gora hilean. Lanean ari direnetatik, gehienek (% 75,5) 600 eurotik gora dituzte hilean, baina % 17,8 ez dira kopuru horretara heltzen.

3. kapitulua

Familia- eta bizitegi-egoera

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazte gehienak beren jatorriko familiarekin bizi dira. Oraindik ere, etxebizitzaren prezio garestia da emantzipatzeko arazorik nagusia

Emantzipatu nahi duten baina oraindik emantzipatu gabe dauden gazteen % 74,7k uste dute etxebizitzaren prezio garestia dela bere kontura bizitzeko arazorik nagusia. Gazteek duten dirua kontuan hartuta, ez da harrizkoa 30 urte bete baino lehen emantzipatuta daudenak gutxiengoa izatea.

Gainera, pandemiaren ondorioz, gazte asko familiaren etxera bueltatu dira

2020an, nabarmen handitu da noizbait beren kontura bizi izan direla adierazi duten emantzipatu gabeko gazteen kopurua (2017an, emantzipatu gabeko pertsonen % 15,3k esan zuten; 2020an, berriz, % 29,9k). Zalantzarik gabe, pandemiak gazte asko familiaren etxera itzultzea eragin du, aurrez aurreko eskolak, beste hiri batzuetan egiten ari ziren ikasketa-proiektuak, truke-programak edo nazioarteko kooperaziorako programak eten direlako, telelana hedatu delako edo lana galdu dutelako.

Halaber, behera egin du epe laburrera emantzipatzeko gogoak. 2020an, emantzipatu gabeko gazteen erdiak baino gehiagok (% 55,0) bere kontura bizi nahi dutela adierazi badute ere, ehuneko hori aurreko urteetako erregistroa baino askoz txikiagoa da (aurreko urteetan % 70etik gora egon da beti).

Emantzipatutako gazteen artean, erdia baino gehiago bikotekidearekin bizi da, baina gero eta gehiago dira pisukideekin bizi direnak

Emantzipatutako gazteen erdia baino apur bat gehiago (% 55,4) bikotekidearekin (eta seme-alabekin) bizi dira. Laurden bat (% 24,9) lagunekin edo pisukideekin bizi da, eta % 15,4 bakarrik bizi dira.

Pisua beste batzuekin partekatzen duenen kopuruak gora egin du 2011ko % 13,8tik 2020ko % 24,9ra.

Emantzipatutako gazte gehienak alokairuan bizi dira, baina apur bat gora egin du beren jabetzako etxebizitza batean bizi direnen ehunekoak eta utzitako etxebizitza batean bizi direnen ehunekoak

Alokairuan bizi diren emantzipatutako gazteak gehiengoa dira oraindik ere (% 56,1), baina ehunekoak nabarmen behera egin du aurreko urteekin alderatuta (2017an, % 69,1). Beste alde batetik, gora egin du beren jabetzako etxebizitza batean bizi diren pertsonen ehunekoak, 2017ko % 22,1etik 2020ko

% 33,4ra. Bi azalpen osagarri daude bilakaera hori azaltzeko. Batetik, erostearen aldeko joeran eragina izan ahal izan dute alokairuen prezio garestiek eta interes-tasak txikiek, eta, horrekin batera, aurreko urteekin alderatuta, bankuek hipoteka-maileguak kontratatzeak aukera errazten hasteak. Eta, bestetik, pentsa daiteke lehenago alokairuan emantzipatutako gazteak direla gehiengoa Covid-19aren pandemiaren ondorioz familiaren etxera itzuli direnen artean.

Beste alde batetik, doan utzitako etxe batean bizi direnen ehunekoa txikiena da oraindik ere, baina 2020an bikoiztu egin da lehen neurketen zifra (2011n % 2,4 baino ez zen), goranzko etengabeko joera dirudienaren barruan.

Emantzipatu gabeko gazteen artean ere gora egin du erostearen aldeko aukera

Emantzipatu gabeko gazteen erdiak baino gehiagok baieztatu zuten nahiago duela erosi (% 56,7). Erostearen aldeko hautuak gora egiten du adinarekin, eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean % 72,0 dira horren aldekoa. Etorkizuneko etxea erostearen alde egiten dutenen gehiengoa enplegua duten gazteak dira (% 75,9).

Emantzipatutako pertsonen erosketaren aldeko aukerak nabarmen behera egin zuen 2011tik 2015era (urte horretan gehiengoa izan zen alokairuaren aldeko aukera), eta berriro egin zuen gora urte horretatik aurrera. Dirudienez, alokairuak garestiak izatea eta interes-tasak txikiak izatea dira lehentasunen bilakaera horren arrazoiak. Horrez gainera, nabarmen behera egin du etxebizitza baten erosketa finantzatzeko bankuko kreditua lortzeko arazoa aipatu duten beren kontura bizi nahi duten emantzipatu gabeko gazteen ehunekoak: 2013ko % 70,8tik 2020ko % 45,6ra.

Gazteek emantzipatzeko adin egokienarentzat jotzen dutena (24 urte eta erdi) urrun dago benetan emantzipatzen diren adinetik (30,2 urte, batez beste)

Ez da aldaketa handirik izan emantzipatzeko adin egokienari buruzko iritzian. 2011. eta 2020. urteen artean egindako neurketa guztietan, batez besteko balioak 23 urte eta erdi eta 24 urte eta erdiren artean egon dira.

Halaber, aldaketarik gabe mantendu da emantzipatzeko adin egokienaren eta gazteak, batez beste, beren kontura bizitzen hasten diren benetako adinaren arteko aldea. Alde hori sei urte ingurukoa da, eta gazteek bizimodu independenteko proiektuei ekiteko dituzten zailtasunak islatzen ditu.

4. kapitulua

Egoera pertsonalaren eta sozialaren balorazioa

Gazte gehienak pozik daude beren egoera pertsonalarekin, baina uste dute gazteen egoera orokorra hala moduzkoa dela

Gazte gehienak (% 69,4) pozik daude beren egoera pertsonalarekin, baina balorazio positibo horrek apur bat behera egin du 2012ko eta 2016ko datuekin alderatuta, eta ordura arte izandako goranzko joera eten da. Ez da arraroa kontuan hartzen bada inkesta pandemiaren testuinguruan egin dela, hark eragindako murrizketak eta mugak indarrean egon direnean. Hala ere, gazte gehienek (% 63,6) uste dute beren egoera hobea dela beren gurasoek adin berean zutena baino.

Baina soilik elkarriketatu direnen % 13,6k uste dute gazteen egoera, orokorrean, ona dela. Gehienek (% 64,2) uste dute hala moduzkoa dela, alderdi batzuetan ona eta beste batzuetan, txarra.

Gazteen kezka nagusia lana da, baina hurbil daude genero-berdintasunarekiko eta etorkizunarekiko kezkako

2020an, gazteen kezka nagusiak dira, haien erantzun espontaneoan arabera, lana (gazteen % 39,6k aipatu dute), genero-berdintasuna eta matxismoa (% 37,7k) eta etorkizuna (% 34,3k). Bigarren mailan, osasuna (% 27,1) eta ingurumena eta klima-aldaketa (% 26,1) aipatu dituzte. Hirugarren mailan, ekonomia eta egoera ekonomiko orokorra (% 18,1) eta politika (% 14,5) daude.

Emakumeen artean, genero-berdintasuna eta matxismoa dira kezka nagusiak, lana baino gehiago. Eta gazteenek (15-19 urte) gehien aipatu duten kezka etorkizunari lotutakoa da.

Oraindik ere gehiengoa dira erakundeek beren iritzia aintzat hartzen ez dutela uste duten gazteak, baina hobetu egin da administrazioek gazteriaren arloan egindako lanari buruzko balorazioad

Hiru gaztetik bik (% 64,3) uste dute erakundeek ez dutela aintzat hartzen gazteen iritzia. Ehuneko hori 2012an erregistratutakoa (% 73,2) baino txikiagoa da.

Gazteek administrazioek (udalak, aldundiak eta Eusko Jaurlaritza) gazteriaren arloan egindako lanari buruz egiten duten balorazioa 10 puntutik 6 puntura iritsi da hiru maila administratiboetan. Balorazio hori 2004koa edo 2008koa baino askoz hobea da, orduan ez baitzen 5 puntura iritsi kasu batean ere ez.

5. kapitulua

Jarrera politikoak eta parte-hartze soziala

Nabarmen gora egin du Euskadiko gazteek politikaren duten interesak

Gazteen % 51,4 politikan oso edo nahiko interesatuta dago, eta 2000tik lortutako zifrarik handiena da. Gainera, Euskadiko biztanle guztiei dagokien balioaren (% 36) gainetik dago.

Gazteen ustez beren ideietatik hurbilen dagoen alderdia Bildu da % 26,7ren kasuan. EAJ edo Podemos askoz gutxiago aipatu dira; zehazki, gazteen % 13,8k eta % 11,7k esan dute, hurrenez hurren, alderdi horien ideologia dela beren ideietatik hurbilen dagoena. Gainerako alderdiak aipatzen dituztenen ehunekoak oso txikiak dira.

Gazte gehienek uste dute gure gizarteak aldaketa sakonak behar dituela, eta gora egin du gai publikoetan parte hartzeko nahiak

Gazteen erdiak baino gehiagok (% 57,8) uste du gure gizarteak aldaketa sakonak behar dituela. Ehuneko horrek gorakada handia izan du, 2016an % 42,8 izan baitziren.

Gazteen % 55,1ek modu aktiboagoan parte hartu nahi dute gai publikoetan, eta zifrarik handiena da 2000tik aurrera. Ehuneko hori % 69,6 da politikan interesatuta dauden artean.

Greben eta mobilizazioen arloko parte-hartzea handia da. Gazte gehienek (% 68,1) greba edo manifestazioen batean parte hartu dute 2019ko udatik 2020ko udara bitartean.

Gora egin du ziberaktibismoak. 2020an, gazteen % 38,3k esan dute eztabaida edo salaketa sozialen bat hasi edo sustatu dutela Interneten, sare sozialetan edo WhatsApp bidez. 2016an erregistratutako ehunekoa (% 28,8) baino hamar puntu gorago dago.

Kirol-elkarteak edo klubak eta mendi-elkarteak dira gazteak gehien erakartzen dituztenak

2021ean, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 43,9k elkarteren batean parte hartzen dute. Euskadiko gazteak kirol-klubetan edo mendi-elkarteetan sartzen dira batez ere (% 21,9 halako elkarteren bateko kide dira). Horrez gainera, gazteen % 10,9 aisialdiko elkarteren bateko (lagunarteak, konpartsak, blusak...) edo elkarte gastronomiko bateko (txokoak edo sozietateak) kide dira; % 10,7 gazte-elkarteren edo astialdiko elkarteren bateko kide dira; % 10,4 elkarte kultural edo artistikoren batean daude edo musika-talderen bateko kide dira, eta % 11,4 beste elkarteren batean daude (politikoa, sindikala, profesionala, ikasleena, ekologista, feminista, giza eskubideena, etab., hau da, gizarte zibilarekin eta aldaketa sozialarekin edo arlo profesionalarekin lotutako elkarteetan dago).

Pandemiak eragin negatiboa izan du gazteen lonjen fenomenoan

Pandemiak ezarritako derrigorrezko itxieraren ondorioz, behera egin du gazteentzako lonja edo lokaletako kide diren gazteen ehunekoak. 2012an eta 2016an, gazteen % 20 inguruk esan zuten lonja edo lokal bateko kide zirela; 2021ean, berriz, % 5,7k baino ez.

Hamar gaztetik batek boluntario-lanak egiten dituo

Gazteen % 11,5ek boluntario-lanak egiten dituzte gaur egun. 2016ko ia ehuneko bera da. 2021ean, ordea, iraganean boluntario-lanak egin dituztela dioten ehunekoa aurreko urteetako baino nabarmen handiagoa da, eta, beraz, gora egin du noizbait boluntario-lanak egin dituzten gazteen kopuruak.

Boluntario-lanak egiten dituzten artean, jardun-eremu nagusia hurrekin eta gazteekin lotutakoa da, gaur egun boluntario-lanetan dihardutenen % 39,0 arlo horretan ari baitira.

Gainera, hamar gaztetik batek (% 10,2) adierazi du gutxienez behin izan dela atzerrian boluntario-lanak eta garapenerako kooperazio-lanak egiten edo auzolandegietan parte hartzen. Ehuneko hori duela lau urte erregistratutakoaren (% 4,6) bikoitza da.

6. kapitulua

Balio eta jarrera sozialak

Gazte gehienek feministatzat dute beren burua, eta hamar gaztetik seik dio mobilizazio feministaren batean parte hartu duela aurreko urtean

azteen % 83,4k diote oso edo nahiko feministak direla; zehazki, emakumeen % 90,5ek eta gizon gazteen % 76,8k.

Horrez gainera, gazteen erdiak baino gehiagok (% 58,4) adierazi dute martxoaren 8arekin lotutako edo genero-indarkeriaren aurkako greba, manifestazio edo mobilizazioen batean parte hartu duela galdera egin aurreko urtean. Emakumeen kasuan ehuneko hori % 73,5 da, eta gizon gazteen artean, berriz, % 44,2.

Gazte gehienek diote ekologistak direla, eta gora egin dute kontsumo jasagarriak eta garraio publikoaren eta bizikletaren erabilerak ohiko joan-etorrietan

Euskadiko lau gaztetik batek (% 76,9) uste du oso edo nahiko ekologista dela. Eta % 29,3k adierazi dute greba, manifestazio edo bestelako mobilizazio ekologistetan edo klimaren aldekoetan parte hartu dutela inkesta egin aurreko urtean. 15 eta 19 urte bitarteko gazteek gehiago parte hartu dute mobilizazio ekologistetan edo klima-aldaketaaren aurkakoetan (zehazki, % 40,8).

Kontsumo jasagarriaren indizea kalkulatzeko, aintzat hartu da normalean bost portaera hauetatik lau egiteko ohitura izatea: zarama birziklatzea, norberaren poltsa edo erosketa-orga erabiltzea, produktu ontziratuaren kontsumoa murriztea, garraio publikoa erabiltzea eta uraren kontsumoa murriztea. Datuen arabera, indize horrek gora egin du 2016tik, % 29,8tik % 41,8ra; beraz, asko areagotu da ingurumenarekiko konpromisoa.

Ohiko joan-etorrietan garraio publikoa erabiltzen duen gazteen ehunekoak gora egin du, 2016ko % 39,8tik 2021eko % 59,3ra. Halaber, bizikletaren erabilera % 8,1etik % 23,8ra pasatu da. Lurralde historikoen arabera, Bizkaia nabarmen da garraio publikoaren erabileran (% 66,8), eta Araba, berriz, bizikletaren erabileran, Arabako gazteen erdiak (% 51,1) erabiltzen baitu ohiko joan-etorrietan.

Hiru gaztetik bik diote ateak edo agnostikoak direla

2020an, gazteen erdiak baino gehiagok (% 54,7) adierazi du ez dela fededuna edo atea dela. Talde horri gehitzen badizkiogu gaiak ez diela axola edo agnostikoak direla dioten gazteak (% 14,9), ikusten dugu Euskadiko hamar gaztetik zazpi (% 69,6) ez direla inolako erlijioaren jarraitzaile. Fededunak ez diren gazteen ehunekoak goranzko joera mantentzen du etenik gabe.

Aitzitik, hamar gaztetik bik baino ez diote katolikoak direla, praktikanteak (% 2,9) edo ez-praktikanteak (% 18,0). Ehuneko hori txikiena da 2000. urtean hasitako seriearen barruan.

Euskadin atzerritar gehiegi bizi direla uste dutenen ehunekoak beherakada gogorra izan du, eta gehiengoak uste du ahalik eta gehien erraztu behar dela immigranteen sarrera

Euskadin atzerritar gehiegi bizi direla uste duten gazteen ehunekoak behera egin du, % 29,4tik % 9,1era. Gehien-gehienek (% 65,6) uste dute atzerritar dezente daudela, baina ez gehiegi. Bestalde, % 12,4k uste dute gutxi direla, eta gainerako % 12,8ak ez dute erantzun.

Immigranteen sarrera ahalik eta gehien erraztearen alde dauden gazteen ehunekoa izugarri igo da aurreko urteekin alderatuta (2020an, % 63,7; 2016an, % 39,2. Ordura arte izandako ehunekorik altuena zen). Immigranteen sarrera erabat debekatzearen alde dauden ehunekoa hutsaren hurrengo da (% 0,5). % 28,2k lan-kontratua dutenei baino ez liekete utziko sartzeko. Ehuneko horrek nabarmen egin du behera, duela lau urte % 45,8k adierazi baitzuten iritzi hori.

Bikoiztu egin da gauez bakarrik ibiltzeko beldur diren emakumeen ehunekoa

2021ean, hamar emakume gaztetik zazpik diote beldur direla herrian edo auzoan gauez bakarrik ibiltzen direnean: % 74,1. Ehuneko hori nabarmen igo da 2016. urteko % 34,2ko proportziotik.

Gizon gazteen kasuan, askoz gutxiago dira (% 11,9) gauez bakarrik ibiltzeko beldur direla diotenak, baina ehuneko horrek ere gora egin du duela bost urte erregistratutakoarekin (% 3,9) alderatuta.

Emakumeek beldur-sentsazio handiagoa izatearen ondorioetako bat da beren mugimenduak mugatzen dituztela, baita espazio publikoen eta aisialdirako denboraren erabilera ere. Hori dela eta, areagotu egiten dira emakume eta gizonen arteko desberdintasunak zenbait eremutan; ez dira lan-eremukoak bezainbeste ikusten, baina ez dira garrantzi gutxiagokoak.

Gazte gehienek tratu txarren larritasuna onartzen dute, eta 25 eta 29 urte bitarteko lau emakumetatik batek adierazi du tratu txarren bat jasan duela

Harreman sexualak izatera behartzea da gazteen ustez larriena (% 95,3k uste dute oso larria dela); bikotekidearen mugimenduak mugatzea, etxetik irtetea debekatuta, oso larria da % 89,9rentzat; mehatxu egitea oso larria da % 74,6rentzat; sare sozialetan bikotekidea kontrolatzea jokabide oso larria da % 70,7rentzat; erabakirik hartzen ez uztea oso larria da % 65,6ren ustez, eta gutxiestea oso larria da %59,4ren ustez. Iraintzea baino ez dago % 50eko atalasearen azpitik, eta % 40,7k uste dute oso larria dela.

Edonola ere, batera aztertzen baditugu indarkeriaren adierazpen horiek oso edo nahiko larriak direla uste dutenak, ikusten da kasu guztietan ehunekoak % 80tik gorakoak direla.

Gazteen % 13,5ek aitortu dute tratu txar horietakoren bat jasan dutela bikote-harremanean, oraingoan edo iraganekoan. Emakumeek gizonen baino gehiagotan bizi izan dituzte halako egoerak (% 18,9 eta % 8,4, hurrenez hurren). Eta adinak gora egin ahala gora egiten du ere halako egoeraren bat bizi izan duten gazteen ehunekoak. Sexua eta adina kontuan hartuta, ikusten dugu 25 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 25,6k esan dutela planteatutako tratu txarrak (mota bat edo batzuk) jasan dituztela bikote-harremanen batean.

Apur bat behera egin du noizbait harreman sexualak izan dituzten gazteen ehunekoak, eta ez da aldatu azken urtean harreman sexual arriskutsuren bat izan dutenenaño

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 73,9k adierazi dute harreman sexualak izan dituztela inoiz. Ehunekoa antzekoa da gizon eta emakume gazteen artean (% 72,9 eta % 74,9, hurrenez hurren), baina asko aldatzen da adin batetik bestera. 20 urtetik behera, gutxiengoa dira harreman sexualak izan dituztela dioten gazteak (% 39,3), baina adin horretatik gora nabarmen gora egiten du ehunekoak: % 88,2 da 20 eta 24 urte bitartekoen artean, eta % 96,3, 25 eta 29 urte bitartekoen artean.

Dirudenez, pandemia eta konfinamendua harreman sexualen hasiera atzeratzea eragiten ari dira. 2016an, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen % 48,8k esan zuten harreman sexualak izan zituztela inoiz; ehuneko hori % 39,3ra murriztu da 2020an, hots, ia hamar puntu gutxiago.

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 12,9k nahi gabe haurdun geratzeko eta/edo sexu-transmisiozko gaixotasun bat hartzeko arriskua zuen harreman sexual bat izan dute inkesta egin aurreko hamabi hilabeteetan. Ehuneko hori 2016an erregistratutakoaren antzekoa da (% 12,2), eta 2012koa baino txikiagoa (% 18,4).

Gazte gehienak (% 96,5) ikastetxeetan sexualitateari buruzko eskolak ematearen alde daude.

Euskadiko ia gazte guztiak daude sexu berekoen arteko ezkontzaren eta sexu-aldaketaren alde

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 97,7 sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde daude, eta % 96,6 sexu-aldaketaren edo sexua berresleitzearen alde daude, hala egin nahi duten pertsonen kasuan.

Sexu berekoen arteko ezkontzaren alde dauden gazteen ehunekoa 2008ko % 85,8tik 2020ko % 97,7ra pasatu da, eta sexu-aldaketaren alde daudenena, berriz, % 78,1etik % 96,6ra pasatu da hamabi urte hauetan.

Gora egin dute abortuaren eta eutanasiaren aldeko ehunekoek, eta behera, berriz, kalamua legeztatzearen aldekoak.

Abortu libre eta borondatezkoaren aldeko jarrerak nabarmen gora egin du: hamar gaztetik bederatzik alde daude (% 92,1). 2016an % 84,2 egon ziren alde.

2021eko martxoan Eutanasiaren Legea onartu baino lehen izandako eztabaidak azaltzen du, zalantzarik gabe, eutanasiaren aldeko jarrerak izandako gorakada. 2020an, gazteen % 88,4 zegoen eutanasiaren alde; 2016an, berriz, % 78,7.

Aitzitik, 2016tik 2020ra bitartean behera egin du kalamua legeztatzearen aldeko jarrerak gazteen artean, eta gaur egun ez da gehiengoa (% 47,1).

7. Kapituluia

Aisia eta kultura

Internetarako sarbideak aldaketa handia eragin du gazteen aisialdiko jardueretan

Euskadiko gazteek egunero gehien egiten duten aisialdiko jarduera musika entzutea da (%81,8k egiten dute egunero). Gero, bideoak edo tutorialak ikustea dago: % 35,7k egiten dute egunero. Eguneroko aisialdiko jardueren artean gehien aipatutakoetatik hirugarrena sailak edo pelikulak ikustea da (% 28,4). Bestalde, gazteen % 26,4k kirolen bat egiten dute egunero. Gazteen % 17,8k egunero edo ia egunero irakurtzen dute, eta antzeko ehunekoa da (% 17,8) egunero kontsolekin, ordenagailu-jokoekin edo mugikorreko jokoekin aritzen direnena. % 11,8k edukiak argitaratzen dituzte egunero Interneten. Aisialdiko gainerako jarduerak egunero egiten dituzten gazteen ehunekoa % 10etik beherakoa da kasu guztietan.

Bideoak edo tutorialak ikustea —egunero gehien egindako bigarren jarduera— pentsaezina zen duela 20 urte, *Euskadiko gazteak* saila egiten hasi zenean, orduan Interneten eta gailu mugikorren —smartphoneak edo tabletak— erabilera mugatua baitzen. Gauza bera esan daiteke kontsolekin jolasteko edo Interneten edukiak argitaratzeko ohituraren inguruan.

Alde garrantzitsu batzuk daude sexuaren arabera: gizon gazteek emakume gazteek baino gehiago ikusten dituzte bideoak eta tutorialak egunero, kirol gehiago egiten dute eta batez ere, gehiago aritzen dira kontsolekin, ordenagailu-jokoekin edo mugikorreko jokoekin.

Aisialdian irakurtzeko ohiturak apur bat behera egin du, eta gora egin du bideojokoen kontsumoak

Entretenimendurako edo dibertsiorako irakurtzeko ohiturak apur bat behera egin du 2016an edo 2012an erregistratutako datuekin alderatuta. 2021ean, egunero irakurtzen dutenen ehunekoa % 48,8 da. 2016an, berriz, % 54,4, eta 2012an, % 53,7. Beherakada nabarmenagoa izan da gizonen kasuan eta 20 urtetik beherako kasuan. Talde horietan gora egin du, ordea, aisialdiko beste aukera batzuen kontsumoak, bideojokoena adibidez. Izan ere, gizonen kasuan, gehiago dira egunero bideojokoekin aritzen direnak (% 25,3) egunero irakurtzen dutenak baino (% 16,3). 20 urtetik beherako artean ere ohikoagoa da bideojokoekin jolastea irakurtzea baino.

Gora egin du kirola egiten dutenen ehunekoa, batez ere emakume gazteen artean gora egin duelako ere

2021ean kirol-jarduera batzuk egiteko ezarritako murrizketak gorabehera, gora egin du kirola egiteko ohiturak: gazteen % 56,4k kirola egiten dute gutxienez astean 3 egunetan. 2016an % 49,0 zen.

Gizonen kasuan, ehunekoa % 60,8 da, eta emakumeen kasuan, % 52,2. Hala ere, emakumeek kirol gehiago egiteak eragin du ehuneko orokorraren gorakada. 2016an, emakumeen % 37,2k esan zuten astean gutxienez hiru egunetan egiten zutela kirola; 2021ean, % 52,2ra iritsi da ehuneko hori. Gizon gazteen kasuan, aldiz, ez dago alde handirik 2016ko eta 2021eko ehunekoaren artean.

Gehiago egiten dira banaka egin daitezkeen kirolak taldeko kirolak baino. Eskola-kirolari eta kirol-lehiaketei eragin dizkieten murrizketen eta mugitzeko eta instalazioak erabiltzeko murrizketen ondorioz, errazagoa izan da kirola banaka egitea beste batzuekin koordinatuta egitea baino.

Pandemiak eragin positiboa izan du jarduera artistikoetan: gazteek jarduera artistiko eta kultural gehiago egiten dituzte, eta pisu handia hartu du ikus-entzunezkoen sorkuntzak

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 76,8k jarduera artistiko edo kulturalen bat egin dute pandemiaren garaian (2020/2021). Ehuneko hori % 55,1 izan zen 2016an. Gorakada homogeneoa izan da, bai gizonen kasuan, bai emakumeen kasuan, baita adin-talde guztietan ere.

Euskadiko gazteek gehien egindako jarduera artistiko edo kulturala argazkilaritza da (% 49,2k esan dute argazkilaritza egin dutela azken urtean), eta bigarrena da bideoak edo ikus-entzunezko beste jarduera batzuk egitea (% 32,8). Bi jardueren hedapena lotuta egon daiteke gazteek sare sozialak erabiltzearekin, Instagram edo TikTok, adibidez. Izan ere, sare horien formatu nagusia argazkiak eta bideoak dira, hurrenez hurren. Gazteek gehien egindako hirugarren jarduera da pintatzea, marraztea edo beste arte plastiko batzuk egitea (% 31,7). Gero, musika-tresna bat jotzea dago (% 24,2). Bosgarrena kontakizunak, poesia, artikulak, etab. idaztea da (% 22,7). Gazteek beste jarduera artistiko edo kultural batzuk ere egin dituzte, baina bakoitzaren ehunekoa % 20tik beherakoa da.

8. Kapituluia

Sare sozialak eta internet

Pandemiaren ondorioz, gora egin du sare sozialen erabilerak, Facebookenak izan ezik. 2021ean, hamar gaztetik zortzik egunero erabili dituzte hiru sare sozial edo gehiago

Berehalako mezularitza gazteen ia % 100ek erabiltzen dute egunero. Aplikazio horiek alde batera utzita, Instagram da gazteek egunero gehien erabiltzen duten sare soziala (% 82,2k erabiltzen du egunero), eta hurbil dago Youtube (% 81,8).

Spotify % 71,2k erabiltzen dute egunero. Atzetik, eguneroko erabilera-ehuneko txikiagoekin daude Twitter, zeinak gorakada handia izan baitu 2018tik (% 17,7) 2021era (% 37,2), eta Facebook. Kasu honetan, berriz, behera egin du erabilerak, % 32,8tik % 28,3ra.

Lana bilatzeko aplikazioek —LinkedIn, Infojobs edo Indeed, adibidez— gorakada handia izan dute: % 27,9k erabiltzen dituzte egunero; 2018an, berriz, % 8,6k. Gauza bera gertatu da TikTokekin, pandemian izan baitu garairik onena, eta 2018an % 0,8k erabiltzetik 2021ean % 27,1ek erabiltzera pasatu da. Antzeko ehunekoak (% 27,0) dituzte taldeko bideoak egiteko aplikazioek (Zoom, Meet, etab.). 2018ko inkestan agertu ere ez ziren egin.

Twitch % 18,0k erabiltzen dute egunero, eta gorakada handia da 2018ko % 0,3ko balioarekin alderatuta. Snapchatek ez du arrakasta bera izan, baina, hala ere, gora egin du eguneroko erabilerak, % 8,4tik % 13,0ra. Azkenik, jendea ezagutzeko sare sozialak (Tinder, Meetic, etab.) egunero erabiltzen dituzten gazteen ehunekoak gora egin du 2018ko % 0,6tik 2021eko % 6,4ra.

Emakume gazteek gizonek baino gehiago erabiltzen dituzte Instagram eta TikTok; gizonek, berriz, emakumeek baino gehiago erabiltzen dituzte Youtube eta Twitch. Datu hori bat dator gizonek bideoak eta tutorialak eta bideojokoak maizago kontsumitzeko duten ohiturarekin.

Orokorrean, egunero hiru sare sozial edo gehiago —berehalako mezularitza-zerbitzuak kenduta— erabiltzen dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa 2018ko % 35,6tik 2021eko % 84,3ra pasatu da, eta argi islatzen du azken hiru urteetan sare sozial birtualek gazteen artean izan duten arrakasta handia.

Hamar gaztetik zazpi youtuber, influencer edo gamer baten jarraitzaile dira, eta hamar gaztetik batek eduki propioak sortzen ditu Interneten

Youtuber, influencer edo gamer baten jarraipena egiteko ohiturak gora egin du azken urteetan, 2018ko % 52,4tik 2021eko % 62,4ra, eta ohikoagoa da adinak behera egin ahala (15 eta 19 urte bitartekoen taldean % 73,1 jarraitzaileak dira).

Interneten nabigatzen duten gazte gehienek edukien kontsumitzaile dira, baina badira eduki propioen sortzaileak ere: gazteen % 9,0k blog bat edo Youtubeko kanal bat dute; 2018an, % 3,5ek zuten halakoren bat.

Gaztelania da sare sozialetan interaktuatzeko gehien erabilitako hizkuntza; atzetik ditu euskara eta ingelesa, hurrenkera horretan

Euskadiko gazteen % 78,8k gaztelania dute ohiko hizkuntza sare sozialetan duten jardueran; % 12,7k euskara lehenesten dute erabilera horretan, eta % 8,2k ingelesa erabiltzen dute nagusiki.

Gipuzkoa da, alde handierekin, euskara gehien erabiltzen den lurraldea: lurralde horretako gazteen % 22,9k nagusiki euskara erabiltzen dute sare sozialetako jardueran; Araban, berriz, ehuneko hori % 5,1 da, eta Bizkaian, % 8,0.

Gazteen ia laurden batek dio noizbait jazarria sentitu izan dela sare sozialetan

Euskadiko gazteen % 3,4k askotan jasan dute jazarpena sare sozialetan, iruzkin desatseginak, irainak eta/edo mehatxuak dituzten mezuen bidez. Horrez gainera, ehuneko esanguratsu batek jasan du jazarpen mota hori noizbait: % 20,1. Guztira, gazteen % 23,5 sentitu dira jazarrita sare sozialetan gutxienez behin. Alabaina, gehienek (% 75,3) ez dute inoiz bizi izan halako egoerarik.

2018ko datuekin alderatuta, gora egin du noizbait jazarrita sentitu diren gazteen kopuruak, % 17,9tik % 23,5era.

Azken hausnarketak

Euskadiko gazteak 2020/2021 ikerketak funtsezko aldaketak izan ditu Covid-19aren pandemiak eraginda, bai metodologian, bai emaitzetan.

Pandemian zehar mugitzeko ezarri ziren mugen ondorioz, normalean etxetik etxeko inkestaren bidez eta gai ugari buruzko galdetegi baten bidez egiten zen ikerketa telefonoz egin behar izan da lehen fase batean, 2020an, eta galdera gutxiago sartu behar izan dira. Gero, bigarren fase bat egin zen 2021ean, online inkestaren bidez, aurreko urtean galderetan sartu ez ziren gaiak ikertu ahal izateko.

Horrez gainera, pandemiak eragina izan du gazteek beren bizimoduari buruz duten gogobetetasunean: behera egin du, oraindik nagusiki positiboa den arren. Etorkizunarekiko kezka hirugarrena da gazteen arazo pertsonaletan, eta osasuna, berriz, laugarrena. Aurretik lana eta genero-berdintasuna baino ez daude.

Hezkuntza-sistemari buruzko balorazioa ere txarragoa da; aurrez aurreko eskolak eten eta online eskolekin ordeztu izana, praktikak eta ikasketa-trukeak egiteko ezintasuna, etab. izan daitezke beherakada horren arrazoiak.

Pandemiaren beste ondorio bat izan da gazte askok familiaren etxera itzuli behar izan dutela, aurrez aurreko eskolak, beste hiri batzuetan egiten ari ziren ikasketa-proiektuak, truke-programak edo nazioarteko kooperaziorako programak eten direlako, telelana hedatu delako edo lanik gabe geratu direlako. Behera egin du emantzipatutako gazteen ehunekoak, eta, horrekin bat, gora egin du familiaren etxean bizi diren eta noizbait beren kontura bizi izan direla baieztatu duten gazteen kopuruak. Halaber, behera egin du epe laburrera emantzipatzeko gogoak.

Aisialdiari ere eragin dio pandemiak. Gazteen lonja edo lokaletako kide diren gazteen ehunekoak nabarmen behera egin du. Izan ere, halako lokalak itxita egon dira denbora luzez, ezarritako neurrien ondorioz. Halaber, gazteak gutxiago joan dira tabernetara, eta gora egin du eskulanak egiten dituzten edo, zaletasun gisa, kozinatzen duten gazteen ehunekoak. Ohitura hori orokortu egin

zen etxeko konfinamenduan zehar. Horrez gainera, gora egin du bideojokoen kontsumoak gizon gazteen artean, eta kirola egiteko ohiturak emakume gazteen artean, baina kirola egiteko modua banakako praktikara bideratu da gehienbat taldeko kirolera baino.

Sare sozialen erabilera ere areagotu da, eta lau gaztetik batek egunero erabili ditu taldeko bideodeiak egiteko aukera ematen duten aplikazioak. Izan ere, aplikazio horiek baliatu dituzte lagunekin harremanetan egon ahal izateko.

Dirudienez, pandemia eta konfinamendua harreman sexualen hasiera atzeratzea eragiten ari dira ere. Noizbait harreman sexualak izan dituztela dioten 15 eta 19 urte bitarteko gazteen ehunekoak ia hamar puntu behera egin du aurreko neurketarekin alderatuta.

